



BAO

BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA

57. zk.

2023, martxoak 22. Asteazkena

1. orr.

I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

BATZAR NAGUSIAK

Bizkaiko Batzar Nagusiak

Iragarkia, Bizkaiko Batzar Nagusietako egiturazko plazetan aldi baterako enplegua finkatzeko prozesu berezien eta salbuespe"nezkoen deialdiari buruzkoa.

BAO-2023a057-(I-342)

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren Erabakia, 2023ko martxoaren 7koa, karrerako funtzionario izendatzen duena, Liburutegiko Teknikariaren espezialitatean.

BAO-2023a057-(I-323)

Bizkaiko Foru Aldundiak 2023ko martxoaren 7an egindako ohiko bilkura-saioan hartutako erabakien laburpena.

BAO-2023a057-(I-325)

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren 1913/2023 FORU AGIN-DUA, martxoaren 13koa. Honen bidez, «Lurgorritik Gaztelugatxera irisgarritasuna hobetzeko proiektuaren» ingurumen inpaktuari buruzko txostena egitea ebazten da.

BAO-2023a057-(I-327)

II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Abanto y Ciervana-Abanto Zierbenako Udala

Abanto Zierbenan «Auzotax» zerbitzura bideratutako dirulaguntzen emakida arautzen duten oinarriak onesten dituen Ordenantza espezifikoren aldaketa behin betiko onestea.

BAO-2023a057-(II-1266)

Ajangizko Udala

Hirilurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren Ordenantza fiskala.

BAO-2023a057-(II-1252)

Atxondoko Udala

Akats zuzenketa. «Markoida» industria sektorearen plan partzialaren aldaketa puntualerako hirigintza hitzarmena Atxondoko ekialdea.

BAO-2023a057-(II-1292)

Barrikako Udala

Bide publikoan ibilgailua uztearren persona ezezagunari jarri zaion errekerimendua.

BAO-2023a057-(II-1259)

Basauriko Udala

2023ko martxoaren 13ko 1014/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Gazteria» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681495.

BAO-2023a057-(II-1239)

2023ko martxoaren 13ko 1022/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Kirola: kirol-jarduera egonkorak eta/edo lehiaketak egitea» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681514.

BAO-2023a057-(II-1240)

2023ko martxoaren 13ko 1015/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Hezkuntza: eskola garraioko jarduerak» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681497.

BAO-2023a057-(II-1241)

2023ko martxoaren 13ko 1013/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Hezkuntza: Ikasleen guraso elkarteek, ikastetxeek eta ikasketa-kooperatibek egindako jarduerak» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681503.

BAO-2023a057-(II-1242)



2023ko martxoaren 13ko 1018/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Hezkuntza: eskola kirola bultzatzeko» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681508.	BAO-2023a057-(II-1243)
2023ko martxoaren 13ko 1017/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Kirolak: kirol-ekitaldi puntualak egitea» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681516.	BAO-2023a057-(II-1244)
2023ko martxoaren 13ko 1016/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Hezkuntza: eskola liburutegiak edo jolastoki inklusiboak sustatzea» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681512.	BAO-2023a057-(II-1245)
2023ko martxoaren 13ko 1009/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Kultura: kultura-jarduera orokorrean» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681520.	BAO-2023a057-(II-1247)
2023ko martxoaren 13ko 1011/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Euskara: elkarreetan euskararen erabilera sustatzea» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681528.	BAO-2023a057-(II-1249)
2023ko martxoaren 13ko 1019/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Euskara: Euskara Ikastaroak Egitea» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681533.	BAO-2023a057-(II-1250)
2023ko martxoaren 13ko 1021/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Euskara: ikastetxeetan egindako jarduerak, Euskararen Nazioarteko Eguna» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681578.	BAO-2023a057-(II-1254)
2023ko martxoaren 13ko 1010/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Euskara: astialdiko monitore edota zuzendari titulua edota gizarte eta kultura sustatzaile titulua lortzeko presakuntza euskaraz egitea» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681598.	BAO-2023a057-(II-1255)
2023ko martxoaren 13ko 1020/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Euskara: euskararen erabilera sustatzea enpresetan eta merkataritzan» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681594.	BAO-2023a057-(II-1256)
2023ko martxoaren 13ko 1012/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Euskara: gidabaime-na lortzeko azterketa euskaraz egitea» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681590.	BAO-2023a057-(II-1257)
Derioko Udala	
Alkatearen ordezkapena Alkatetzako Dekretua 84/2023.	BAO-2023a057-(II-1233)
Behin betiko onarpena, Zeroetxe plazako 5. zenbakian dagoen partzelaren erabilera eta antolamendu xehatua aldatzeko Plan Berezia behin betiko onartzea.	BAO-2023a057-(II-1237)
Durangoko Udala	
2023ko martxoaren 14ko 2023/0477 Ebazpenaren laburpena, Durangon gazteek alokairuko etxebizitzak eskuratzeko diru laguntzak deitzen dituen. BDNS (Identif.): 681663.	BAO-2023a057-(II-1258)
2023ko martxoaren 14ko 2023/0482 Ebazpenaren laburpena, 2023ko Julene Azpeitia literatur saria deitzen duena. BDNS (Identif.): 681677.	BAO-2023a057-(II-1262)
Eako Udala	
Euskara, musika eta bestelako ikasketak burutzeko eta kiroldegietara eta haurreskolara joateko diru laguntzak. 2023ko deialdia.	BAO-2023a057-(II-1093)
Etxebarriko Udala	
Lan Eskaintza Publikoa.	BAO-2023a057-(II-1234)
Galdakaoko Udala	
UECR9 unitatearen Birpartzelazio Proiektuaren hasierako onespina.	BAO-2023a057-(II-1260)
Gernika-Lumoko Udala	
Lanpostuen Zerrenda eta Udal Plantilla Organikoaren aldaketa puntuala onartzea.	BAO-2023a057-(II-1261)

**Plentziako Udala**

Plentziako Udaleko Iragarkia, 2023. urteko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren kobrantzari buruzkoa.

BAO-2023a057-(II-1248)

Sestaoko Udala

Sestaoko Euskal Forging 02, PEOU_EF02 Area Industrial eta Tertziarioaren Birpartzelazio Proiektuaren behin betiko onarpena.

BAO-2023a057-(II-1232)

Zeanuriko Udala

Ikasgela berria arautzeko Ordenantza.

BAO-2023a057-(II-1246)

Bake Epaile titularren eta Ordezko Bake Epailearen karguak betetzeko eskaerak.

BAO-2023a057-(II-1253)

Bilbao Musika Toki Erakunde Autonomoa

Iragarkia, Bilbao Musika tokiko erakunde autonomoaren, Bandako Musikako Goi-Mailako Irakasleko 16 plaza (A lanbide-sailkapeneko taldekoak, A1 azpitaldekoak, horietatik 2 euskarazko derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunekoak eta beste 14 plaza euskarazko derrigorrezkoa ez den 3. hizkuntza-eskakizunekoak); eta Artxiboko Laguntzaile/Atril Jartzaileko plaza 1 (C lanbide-sailkapeneko taldekoa, C2 azpitaldekoa, euskarazko derrigorrezkoa ez den 2. hizkuntza-eskakizunekoak), lehiaketaren bidez betetzeko hautaketa-prozesuko hautagaiak behin-behinean onartzeari eta baztertzeari buruzkoa. Egonkortzeko hautaketa-prozesu hau behin bakarrik deitu da eta salbuespenezkoa da.

BAO-2023a057-(II-1263)

Iragarkia, Bilbao Musika tokiko erakunde autonomoaren, Musika Eskolako Irakasleko 36 plaza (A lanbide-sailkapeneko taldekoak, A2 azpitaldekoak, horietatik 19 euskarazko derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunekoak eta beste 17 plaza euskarazko derrigorrezkoa ez den 3. hizkuntza-eskakizunekoak), lehiaketaren bidez betetzeko hautaketa-prozesuko hautagaiak behin-behinean onartzeari eta baztertzeari buruzkoa. Egonkortzeko hautaketa-prozesu hau behin bakarrik deitu da eta salbuespenezkoa da.

BAO-2023a057-(II-1264)

Iragarkia, Bilbao Musika tokiko erakunde autonomoaren Zerbitzu Orokorren Sailean, Kudeaketako Zuzendariordeko plaza 1 (A lanbide-sailkapeneko taldekoa, A1 azpitaldekoa, euskarazko derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunekoak); Informatikako Koordinatzaile/ Administrazio/ Kudeaketako plaza 1 (C lanbide-sailkapeneko taldekoa, C1 azpitaldekoa, euskarazko derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunekoak); Musika Jardueren Koordinatzaileko plaza 1 (C lanbide-sailkapeneko taldekoa, C1 azpitaldekoa, euskarazko derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunekoak); Administrariako plaza 1 (C lanbide-sailkapeneko taldekoa, C1 azpitaldekoa, euskarazko derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunekoak); eta Menpekoa: Atezaintza/ AJAko 2 plaza (C lanbide-sailkapeneko taldekoak, C2 azpitaldekoak, euskarazko derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunekoak), lehiaketaren bidez betetzeko hautaketa-prozesuko hautagaiak behin-behinean onartzeari eta baztertzeari buruzkoa. Egonkortzeko hautaketa-prozesu hau behin bakarrik deitu da eta salbuespenezkoa da.

BAO-2023a057-(II-1265)

Bilboko Udal Etxebizitzak TEA

2022ko EPEko Gizarte Langile lanpostu bat, salbuespenezko egonkortze sistemaren bidez (lehiaketa), txanda irekiaren bidez betetzeko deitutako hautaketa-prozesuan izangaiak onartzea eta behin-behinean baztertzea.

BAO-2023a057-(II-1229)

2022ko EPEko Administralari Balioanitzuna lanpostu bat, salbuespenezko egonkortze sistemaren bidez (lehiaketa), txanda irekiaren bidez betetzeko deitutako hautaketa-prozesuan izangaiak onartzea eta behin-behinean baztertzea.

BAO-2023a057-(II-1230)

2022ko EPEko Komunitateen Administralari lau lanpostu, salbuespenezko egonkortze sistemaren bidez (lehiaketa), txanda irekiaren bidez betetzeko deitutako hautaketa-prozesuan izangaiak onartzea eta behin-behinean baztertzea.

BAO-2023a057-(II-1231)



III. ATALA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA

Lan eta Enplegu Saila

Erabakia Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko Lurralde ordezkaria-rena. Honen bidez ebazten da Fundiciones San Antonio de Urkiola, S.L. enpresaren Hitzarmen Kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48100492012013).

BAO-2023a057-(III-65)

IV. ATALA

EUSTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRA

Justizia Ministerioa

Notificación de contrato de financiación a comprador de bienes muebles.

BAO-2023a057-(IV-35)

Notificación de mandamiento de anotación preventiva de embargo.

BAO-2023a057-(IV-36)

Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana

Anuncio del ADIF - Alta Velocidad por el que se somete a información pública a efectos de declaración de la necesidad de ocupación el Proyecto «Modificación número 2 del proyecto de construcción de plataforma de la línea de alta velocidad Vitoria Bilbao-San Sebastián. Tramo: Elorrio-Elorrio. 2018».

BAO-2023a057-(IV-37)

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Batzar Nagusiak****Bizkaiko Batzar Nagusiak**

Iragarkia, Bizkaiko Batzar Nagusietako egiturazko plazetan aldi baterako enplegua finkatzeko prozesu berezien eta salbuespe”nezkoen deialdiari buruzkoa.

Argitara eman dira ondoren aipatzen diren hautaketa-prozesuetan onartutako eta baztertutako izangaien behin-betiko zerrendak. Argitalpena Bizkaiko Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean egin da, 2023ko martxoaren 1ean, F-III-01 (f eta g) sailean:

- Aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesua, Administrazioen Eskalako bi plaza (C lanbide-sailkapeneko taldekoak, C-1 azpitaldekoak; batari derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna esleitu zaio eta besteari derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuna) betetzeko lehiaketa sistemaren bidez deitutakoa.
- Aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu berezia, Administrazioen Eskalako plaza bat (C lanbide-sailkapeneko taldekoa, C-1 azpitaldekoa, derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna esleitu zaiona) betetzeko oposizio-lehiaketa sistemaren bidez deitutakoa.

Hautaketa-prozesu honetako merezimenduak aurkezteko epea irekitzen da:

- Aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesua, Administrazioen Eskalako bi plaza (C lanbide-sailkapeneko taldekoak, C-1 azpitaldekoak; batari derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna esleitu zaio eta besteari derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuna) betetzeko lehiaketa sistemaren bidez deitutakoa.

Honako hautaketa-prozesu honen azterketaren eguna, tokia eta ordua argitaratzen dira:

- Aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu berezia, Administrazioen Eskalako plaza bat (C lanbide-sailkapeneko taldekoa, C-1 azpitaldekoa, derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna esleitu zaiona) betetzeko oposizio-lehiaketa sistemaren bidez deitutakoa.

Deialdi honi lotuta, eta oinarrietan agindutakoaren arabera, hartu daitezten enparauko erabakiak Bizkaiko Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta laburpen bat Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Era berean, hautaketa-prozesuan zehar, Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) webgunean argitaratuko da prozesuaren garapenaren alderdiekin lotutako informazio guztia.

Bilbon, 2023ko martiaren 21ean.— Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak, Ana Otadui Biterik.

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren Erabakia, 2023ko martxoaren 7koa, karrerako funtzionario izendatzen duena, Liburutegiko Teknikariaren espezialitatean.

Bizkaiko Foru Aldundiak, 2023ko martxoaren 7ko Gobernu Kontseiluan, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

- Karrerako funtzionario izendatzea Administrazio Bereziko Eskalan, Azpieskala Teknikoan, mota: Goi-mailako Teknikariak, Liburutegiko teknikariaren espezialitatean, A taldea, A1 azpitaldea:

Barne-sustapen arrunteko txanda, derrigorrezko III. Hizkuntza eskakizunarekin
Turno Promoción Interna con perfil lingüístico III de carácter preceptivo

Nombre y apellidos
MARTA ESPINA ARTZE

Txanda askea, derrigorrezko III. Hizkuntza eskakizunarekin
Turno libre con perfil lingüístico III de carácter preceptivo

Nombre y apellidos
JUNE GÓMEZ ALONSO

Bilbon, 2023ko martxoaren 14an.—Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua, Elixabete Etxanobe Landajuela

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako saila**

Bizkaiko Foru Aldundiak 2023ko martxoaren 7an egindako ohiko bilkura-saioan hartutako erabakien laburpena.

AZTERGAIEEN ZERRENDAA

1. 2023ko otsailaren 28an egindako ohiko bilkura-saioko akta onestea.

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila

2. Administrazio bereziaren eskalan, teknikarien azpieskalan, goi-mailako teknikarien klasean, liburutegiko teknikarien berezitasunean, bitarteko funtzionarioak kargugabetzea.
3. Administrazio bereziaren eskalan, teknikarien azpieskalan, goi-mailako teknikarien klasean, liburutegiko teknikarien berezitasunean, karrerako funtzionarioak izendatzea.
4. Administrazio bereziaren eskalan, teknikarien azpieskalan, erdi-mailako teknikarien klasean, arkitekto teknikoen berezitasunean, bitarteko funtzionarioa kargugabetzeko.
5. «Bizkaiko Foru Aldundiaren instalazio elektrikoaren eta segurtasun-instalazioen mantentze osoa, 2019., 2020. eta 2021. urteetan» zerbitzu-kontratuaren 3.etik 14.era bitarteko aldaraziak onestea eta esleitzea.
6. Udalerriek Lurralde Historikoari dagozkion kopuruetan parte hartzea erabakitzea. Zenbateko horiek Estatuari ordaindu beharreko kupo likidoan konpentsatuko dira, Euskadik kreditu-erakundearen aldi baterako kargaren eta 2023 eta 2024ko aldi baterako kargetako udal-partaidetzaren ondoriozko aldi baterako karga energetikoaren biderkaduran duen partaidetza gisa.

Ogasun eta Finantza Saila

7. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia eta Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia aldatzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua onestea.
8. Bizkaiko Foru Aldundiak 2022ko azaroaren 8ko bilkura-saioan hartutako erabakia (Eguneko Aztergaien Zerrendako 6. gaia) aldatzea. Erabaki hura Euskalduna Jauregia-Palacio Euskalduna, S.A. merkataritzako foru sozietate publikoaren kapital soziala handitzea onartzeko eta, diru-ekarpena eginda, ordaintzeko baimenari buruzkoa izan zen.

Euskara, Kultura eta Kirol Saila

9. Bizkaiko Lurralde Historikoko 2023. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 10/2022 Foru Arauan aurreikusitako dirulaguntza zuzen izenduna emateko sinatuko den hitzarmena onestea. Hitzarmen horren bidez, Abadiñoko Durangerriko Adiskideen Gerediaga Elkarteari ematen zaio dirulaguntza, 2023. urtean «Durangoko Azoka 2023» proiektua zati batean finantzatu dezan.
10. Bizkaiko Foru Aldundiak Bilbao Bizkaia Museoa, S.L. erakundeari egingo dizkion ekarpenak onestea. Ekarpenen xedea da 2023an Bilboko Berreginen Museoaren eta Bilboko Euskal Museoaren jarduerak orokorrean finantzatzea.

**Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila**

11. Bizkaiko Foru Aldundiaren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Bizkaiko zenbait enpresa elkarteren artean sinatuko diren bost (5) hitzarmen onesteko. Hitzarmen horien bitartez, abian jarriko dira langabezia dauden pertsonen zuzendutako berrorientazio, birkualifikazio eta birkokatze neurriak (3r enpresa).

12. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilboko Asociación Benéfico-Asistencial Elkarbanatuz elkartearen artean sinatuko den hitzarmena onestea. Hitzarmenaren xedea da gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen arreta eskaintzea, Hiranka programa izeneko baliabidean.

Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Saila

13. Uribe Kostako (A3400) eta Ezkerraldea-EHU (A2300) errepide bidezko bidaia-rien erabilera orokorreko garraio publiko erregularreko zerbitzuari dagokion kontratuaren 2023ko ekitaldirako kilometroko prezioa eguneratzea.

14. Uribe Kostako (A3400) eta Ezkerraldea-EHU (A2300) errepide bidezko bidaia-rien erabilera orokorreko garraio publiko erregularreko zerbitzuari dagokion kontratuaren 2021eko ekitaldiaren urteko likidazioa egitea.

15. Bizkaiko Foru Aldundia Red de Ciudades que Caminan elkartean bazkide modura sartzea erabakitzea.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila

16. Bizkaiko Toki Eskumeneko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030era-ko Plan Integral berria (BHPKPI 2030) hasieran onestea.

17. Akatsak zuzentzea Bizkaiko Foru Aldundiak 2022ko urriaren 11ko bilkura-saioan hartutako erabakian (Eguneko Aztergaien Zerrendako 14. gaia). Erabaki horren bidez, Otxandioko Udalaren «Mirugain, Mendikurren, Olazar eta Iluntxo» 19. zenbakiko onura publikoko mendiaren mugatze partziala onetsi zen.

Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Saila

18. Metropoliko bide-nodoetan pilaketak murrizteko eta Europa barneko sarearekin lotzeko eraikuntza -proiektuaren (zatia: Gurutzeta-Errontegi) obra-kontratuaren Segurta-sun eta Osasun Planaren 17. eranskina onestea.

19. "Ibaizabaleko bizikletentzako bidearen proiektua (zatia: Zornotza-lurreta)" obra-kontratuaren 2. betearazpen-epea luzatzea eta lan-programa egokitzea.

Ekonomia Sustatzeko Saila

20. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Elkargi, Elkarrekiko Berme Sozietatearen artean sinatutako lankidetzak hitzarmenaren luzapena onestea. Hitzarmenaren xedea da Bizkaiko ETE-etan berrikuntza-proiektuen finantziaketa sustatzea, EELIF Berrikuntza Funtsa-ren bitartez.

Bilbon, 2022ko martxoaren 7an.—Idazkaritza Nagusiaren Unitateko burua, Joseba Mikel García Pérez.—Ontzat emana, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu eta idazkaria, Elixabete Etxanobe Landajuela



I. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA
Bizkaiko Foru Aldundia

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren martxoaren 13ko 1913/2023 FORU AGINDUA. Honen bidez, «Lurgorritik Gaztelugatxera irisgarritasuna hobetzeko proiektuaren» ingurumen inpaktuari buruzko txostena egitea ebazten da.

1. Aurrekariak

2022ko urriaren 5ean, Bizkaiko Foru Aldundiko Bide-sarea Kudeatzeko Zuzendariorde-tza Nagusiak proiektuaren sustatzaile gisa bidalitako idazkia jaso zen Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren erregistroan, «Lurgorritik Gaztelugatxera irisgarritasuna hobetzeko proiektuaren» dokumentazioa erantsita. Idazki horretan, ingurumen-organoak, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak, ingurumen-ebaluazioaren prozedura has dadila eskatzen zen.

Proiektua Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen II.E eranskinean jasotzen da. Beraz, ingurumen inpaktua ebaluatzeko prozedura sinplifikatua bete du. Proiektuak ingurumenean ondorio nabarmenak dituen ala ez zehazteko, Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 45. artikulutik 48. artikulura bitartean ezarritako prozedurari lotzen zaio.

Hauexek ditu ingurumen ebaluazioaren prozedura hasteko eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuak:

- «Lurgorritik Gaztelugatxera sartzeko proiektuaren» ingurumeneko dokumentua, Fulcrum aholkularitza etxeko teknikariek egina, 2022ko urtarrileko datarekin.
- «Lurgorritik Gaztelugatxera sartzeko proiektuaren» aurrerapena, 2022ko uztaileko datarekin.

2. Proiektuaren ezaugarriak


Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiak Gaztelugatxerako irisgarritasuna hobetzeko beharrezko obrak zehazten dituzten eraikuntza proiektuak idatzi ditu, bai Eneperi ingurutik (dagoeneko egin da), bai Lurgorritik (proiektu honen xedea).

Ondorioz, jarduera beharrezkoa da, bisitariei lurraldeko toki desberdinetatik Gaztelugatxera eta haren ingurura sartzeko erraztasunak jartze aldera.

Proiektuaren barruan, autobusek bira egiteko plataforma bat (biribilgunea) egin eta markesina duen badia bat sortzea aurreikusten da, hartara ibilgailuen sarrera arautzeko biotopo babestuan, garraio publikoaren erabilera sustatuz eta beste garraibide batzuen bidezko mugikortasun jasagarria indartuz.

Proposatutako helburuak lortzeko, hiru aukera desberdin planteatzen dira, 0 aukeraz edo egikaritza ezaz gain.

1. aukeraren arabera, autobus geltoki bat eraikiko litzateke, badia eta markesinarekin, egun turismoen aparkaleku moduan erabiltzen den espazioaren amaieran. Hartara, garraio kolektiboko sistemarako bidaiarien sarrera eta irteerak erraztuko lirateke. Halaber, sarbidearen amaieran biraketa plataforma bat aurreikusten da (28 metroko diametroa), autobusek maniobrak egin ahal izateko. Horrez gain, autobusentzako 5 aparkaleku plaza sortu eta turismoen aparkaleku plazak antolatzea aurreikusten da, bidea asfaltatuz eta marka bidez mugatuz, aparkalekuaren egungo hornidurari eutsita (32 plaza). Gainera, espaloiak jarri nahi dira, galtzadaren kanpoko bi aldeetatik gidaritza segurua eman dezaten autobus geltokitik eta aparkalekuetatik (turismoa eta busa) biotopora oinez sartzeko orduan.



1. Aukera

2. aukerak 1. aukerarako deskribatutako helburu berberak ditu. Elementuen banaketa ere antzekoa da, baina Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritzak «Gaztelugatxera sartzeko proiektua. 2. fasea, Mendebaldetik» proiekturako gomendatu dituen diseinu irizpideak sartzen ditu, garapenean sartu beharreko material eta elementuei dagokienez. Zoladura bigun iragazkorren aldeko irtenbidea aukeratzen du, ikusizko eragin txikiagoa ere badu eta. Gainazaleko geruza galtzada harriz osatuta dago. Bertako zuloetan landaretza hasi daiteke. Luzetarako azaleko drainatze sistemaren ordez, zoladura bigun iragazkorren azpiko drainatze areka aurreikusten da.



2. Aukera

3. aukerak biraketetako plataforma lekualdatzen du, BI-3101 errepidearekiko bidegurutzera hurbilduz, eta aparkalekuaren berrantolaketa baztertzen du, egun dagoen bezala utziz. Biraketetarako plataforma bat sartzen du (32 metroko diametroa), autobusek maniobrak egin ahal izateko, BI-3101 errepidera sartzean eta bertatik irtetean. Autobus

geltoki bat aurreikusten du badia eta markesinarekin biraketarako plataformara sartze-ko adarrean, bidaiariak garraio kolektiboko sistemetara sartu eta horietatik irteteko. 2. aukeran aplikatutako diseinu irizpideak mantentzen ditu, garapenean sartu beharreko material eta elementuetan (autobus geltokiarekin lotutako espaloia «aripa» motako zoladurarekin egitea aurreikusten da). Drainatze sistemarako, bi bideratzen ordez bi-raketarako plataforma inguratzen duten harri lubetak erabiltzea proiektatzen da. Hau-xe da jardueraren sustatzaileak aukeratu eta garatu duen aukera, baina ingurumeneko dokumentuan ez dira zehazten aukera honek beste bien aldean dituen baldintzak edo abantailak.



3. Aukera

Ondoren, 2023ko martxoaren 2an, sustatzailearen jakinarazpena jaso zen, eta lau-garren aukera bat aurkeztu zen, biribilgunea 1-2 eta 3 alternatiben arteko tarteko espazio batean kokatzen duena.



4. Aukera

**3. Egindako kontsultak**

21/2013 Legearen 46. artikulua ezartzen duenez, kontsultak egin zaizkie eragindako administrazio publiko eta interesdun hauei:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Antolamendurako Atala.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Saileko Ingurumenaren Iraunkortasunerako Atala.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Naturaguneak Kudeatzeko eta Zerbitzu Orokorrak Bideratzeko Zuzendariordetza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitate eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri-berroneratze Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzaren Bizkaiko Osasun Ordezkaritza.
- IHOBE, Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa. Eusko Jaurlaritza.
- URA, Uraren Euskal Agentzia. Eusko Jaurlaritza.
- Ekologistak Martxan.
- Bermeoko Udala.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean jarri da jendearen eskura espedienteak biltzen duen dokumentazioa.

Txosten hau eman den egunera arte, honako erantzun hauek jaso dira:

Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza

Adierazi duenez, aurkeztutako ingurumeneko dokumentuak behar bezala heltzen die inpaktuen azterketari eta prebentzio eta zuzenketa neurrien gaineko proposamenari. Ondorioz, baztertu egiten du proiektuak eragin nabarmenik izango duenik Natura 2000 Sarean, bereziki, eta natura ondarearen gainean, oro har.

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritzako Zuzendaritza Nagusia

Proposatutako jarduera EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurralde Plan Sektorialak antolatutako eremuan kokatzen dela adierazten du.

Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza

Arrisku sismikoari dagokionez, jakinarazten du proiektuaren eremua IV-V intentsitateko zonaldean dagoela, EAEko arrisku sismikorako larrialdi planaren arabera, eta arlo horretan aplikatu beharreko araudia adierazten du. Baso suteen arriskuari buruz, jakinarazten du errepedearen trazadura baso eremuko gunetik pasatzen dela, eta, bertatik hurbil, baso suterako arrisku oso altua kartografiatuta duten orbanak daudela. Ondorioz, obrak egin bitartean arriskua gutxitzeko neurri egokiak hartu beharko direla azpimarratzen du. Era berean, proiektua diseinatzeko fasean, behar diren neurriak hartu behar dira azpiegiturak berak baso sutearen arriskua areagotu ez dezan. Bere txostenaren amaieran, azterketa eremuko prezipitazioen gehieneko kopuruak batzen ditu, drainatze obrak diseinatuko orduan kontuan har daitezela.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza

Proiektuaren esparruan kultura ondarearen gaineko eraginik antzeman ez duela jakinarazten du.

*Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua*

Baieztatu du ez dagoela babestu beharreko ondasunik eta ustezko gune arkeologikorik, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen eta apirilaren 13ko 125/2021 Dekretuaren arabera –zeinaren bidez Gaztelugatxeko San Juan, Bermeon (Bizkaia) kokatutakoa, babes bereziko kultura ondasun deklaratzeko baita, Paisaia Kulturalaren kategoriarekin–, proiektuan adierazitako obren ondorioz erasango denik.

Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua

Bizkaiko Foru Aldundiaren Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuaren Naturagune Babestuak Kudeatzeko Ataletik lau txosten jaso dira.

Horietako lehenaren arabera, biribilguneak Bakio-Bermeo (Lurgorri-Erleko Punta, 1. fasea) oinezko bidea okupatuko luke, hots, Bizkaiko Foru Aldundiak garatu nahi duena eta oraintsu, proiektua onartu ondoren, erabilera publikoko aitortu dena. Halaber, Lurgorriko aisia-gunea ere okupatuko luke. Beraz, bete egin behar da Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 26ko 174/2017 Foru Dekretua, zeinaren bidez Bizkaiko Foru Aldundiaren atsedenlekuen erabilera arautzen baita.

Aipatu duenez, Bermeoko Udalak eta Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak inguruko espezie exotikoak ezabatzeko lan handiak egin dituzte, inguru horretan era horretako espezieen kolonizazioaren ziozko arazoa erregistratu baitzen. Lehen txostenari jarraikiz, biribilgune berriak, 3. aukeraren arabera egingo balitz, lurzoru naturalaren gainean eraiki diren bi drainatze inbadituko lituzke, errepidetik etor daitezkeen urak ebakutzeko jarritakoak. Halaber, txostenaren arabera, inguruan egonkortasun geologikoko arazoak egon dira, kasu batzuetan, uraren ondorioz.

Proiektuko aukeren analisiari buruz, egungo errepedearen gainean biribilgune bat eraikitzea aurreikusten duen aukera baten falta nabari du. Horrek egungo arloaren azalera mantenduko luke (eragin oso txikiarekin), eta, horrez gain, aprobetxatu egingo luke egungo bidea, autobus geltokia jartzeko, berdeguneak murriztu behar izanik gabe. Halaber, azaldu duenez, proiektuak irtenbide integratzaileagoak jarri beharko lituzke, ikuspegi ekologikoarekin, errepedearen ondoan dagoen aparkaleku azalera ere hobetzeko. Irtenbide horien arabera, egungo asfaltzoko geruza kendu eta material iragazkorrak erabili beharko lirateke bere garaian (errepide berria zabaldu zenean) Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailak abandonatu zuen errepedean.

Sortutako eraginen analisiari buruz jakinarazi denez, ez dira aztertu bisitarien igoerak eta erabilera publiko intentsiboagoak izan litzakeen eraginak, Lurgorri inguruan biribilgune bat eta autobus geltoki bat eraikitzearen ondorioz eta naturagune babesturako irizgarritasuna hobetu edo erraztearen ondorioz.

Landaretza berrezartzeko proiektuari buruz, txostenari jarraikiz, ez du dentsitate nahikorik, ez eta lekurako egokiak diren espezieen hautaketarik ere. Halaber, txostenaren arabera, eraikuntza berria aisia-gune osoaren inguruan integratzeko saiakera egin beharko luke (biribilgunean soilik zentratu beharrean). Landaretza jartzeko proiektu honetan sartu beharreko hainbat irizpide adierazten ditu.

Txostenak amaieran dioenez, proiektuak ingurumenean eta Natura 2000 Sarean eragina izango luke. Beraz, bere ustez, ingurumen inpaktuaren ohiko ebaluazioa egin beharko litzaioke, eta, horren esparruan, beste aukera bat planteatu, Natura 2000 Sareko berdegunea libre geratzeko.

Bigarren txostenean, sustatzaileak ordura arte kontuan hartu dituen bi aukera nagusiak alderatzen dira. Proiektuko aurrerapenaren agiriko 1. eta 2. aukerak ia berdina dira okupazioan eta oinplanoan, eta, bigarren txostenean, Naturagune Babestuak Kudeatzeko Atalak bateratu egiten ditu, 1. aukera izena jarrita; hala, proiektuaren aurrerapenaren agiriari 3. aukera izena daukanak 2. aukera izena hartzen du txostenean. Azterketa horretan ondorioztatzen denez, bi aukerek daukate eragina Natura 2000 Sarean, Urdaibaiko itsasadarra HBBERen barruan. Lehenaren eragin maila bigarrenarena baino txikiagoa da.

Hirugarren txostenean, 1. eta 2. aukerak alderatu ostean (aurreko paragrafoan aipatutako salbuespenarekin, hau da, 2. aukera izena emanek proiektuaren aurrerapenaren



agirian 3. aukera izena daukanari), jakinarazten da aukerarik onena honako hau litzatekeela: naturagune babestuan sartzen ez dena, lurzoru artifizial edo urbanizatu ahalik eta gehien aprobetxatzen duena, lurzoru natural ahalik eta gutxien kontsumitzen duena, estolderietatik ahalik eta gehien urruntzen dena, hau da, azken batean, ingurumenari, bidezidorrari, erabilera publikoko mendiari, aisia-guneari, erabilera publikoari eta Urdai-baiko itsasadarra HBBERen naturagune babestuari ahalik eta gutxien eragiten diena. Horrenbestez, eskatu du Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailak hirugarren aukera bat baloratu dezala, ingurumenaren gaineko eragin maila murriztuz eta aipatutako baldintzei gehiago erreparatuz. Hirugarren aukera horrek ezin badu biribilgunea errepidearen enborrean bertan ezarri, 1. aukeraren aldaera bat iruditzen zaio irtenbiderik onena, integratuena eta errespetuzkoena, ingurumenaren eta funtzioaren aldetik. Aldaera horrek biraketarako plataforma errepideko bidegurutzearekiko ahalik eta hurbilen eta bidezidorretik eta itsaslabarraren ertzetik ahalik eta urrunen kokatuko luke. Gainera, eskatzen du aukera berriaren proposamenean berariaz zehaztu dadila aztertutako aukera guztietan «Sollubemendi» erabilera publikoko mendian okupatuko litzatekeen azalera, eta aukera berriaren proiektioak lehendik dagoen oinezkoen bidezidorrari lotutako erabilera publikoa txertatu dezala. Azkenik, eskatzen du ibilgailuak errepide nagusitik eta nagusira sartu eta irteteko irtenbide bat ere aztertu dadila, lerro zuzenean eta abiadura handian doan bide horretan, ibilgailuen sartu-irtenak erraztu eta etorkizuneko istripuak saihesteko.

Ingurumen-organo horrek babestutako eremua kudeatzen duen organoaren txostena helarazi zion proiektuaren sustatzaileari, eta, horren ostean, Azpiegitura Sailak laugarren biribilgunerako proposamen bat aurkeztu du, ingurumen-inpaktuari buruzko txosten honen 2. atalean emandako deskribapenaren arabera.

Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuaren laugarren txostena planteatutako hiru kokapen-alternatiben zuinketa tokian bertan egin ondoren egin du (batak eta biak xedapen bera dute oinplanoan), horietako bakoitzaren eragina in situ baloratzeko. Zuinketa egiaztatu ondoren, Natura Ondarearen Zerbitzua 2. alternatibaren alde agertu da (3. aukera, txosten honetako 2. ataleko izendapenaren arabera), uste baitu kosta-habitatarekiko eta paisaia natural eta hauskorrenarekiko distantziari eta mugikortasunaren eta erabilera publikoaren antolamenduari dagokienez lortzen den irabaziaz nabarmen gainditzen duela okupazioari eta lurzoru naturalaren azalerari dagokienez nabarmendu beharreko ingurumen-baliorik ez duen galera. Nolanahi ere, beharrezkotzat jotzen du biribilguneko plataforma egungo errepidetik gertuago eraikitzeko aukera aztertzea, landa-lurzoruen kontsumoa murrizte aldera.

Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Antolamendurako Atala

Jakinarazten duenez, planteatzen den jarduera, hertsiki Gernika-Markinako Lurralde Plan Partzialean sartuta ez dagoen arren, koherentea da bertan ezartzen den lurralde ereduarekin, baina proiektuaren ingurumeneko dokumentuak ez du planaren gaineko erreferentziarik egin.

Paisaiaren gaineko inpaktuei dagokienez, adierazi du aurkeztutako dokumentazioan ez dagoela jasota paisaia integrazioko azterlana, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuan zehaztutakoarekin bat etorritik. Aukera desberdinek paisaiaren gainean duten eragin desberdinak aztertzen ditu, eta, ondorioztatzen du hautatutako aukerak (3. aukera) ezpondak sortzen dituela jardueraren kanpoko ertzerantz, eta, beraz, ia-ia ezinezkoa dela ikusizko integrazio xumea izatea; aitzitik, beste bi aukerak lehendik dagoen bide zatiaren gainean garatzen dira. Autobusek bira egiteko plataforma birakari bat jartzeko aukera planteatzen du, Elantxoben dagoenaren antzekoa. Hori guztia, adierazi duenez, paisaia integrazioko azterlan batean aztertu beharko litzateke.

Adierazi duenez, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) 19. artikuluan ezarritakoaren arabera, jarduketak kontuan hartu behar ditu lurraldean eragina duten zeharkako gaiak (irisgarritasun unibertsala, genero ikuspegia, klima aldaketa, osasuna, euskara eta lurralde erlazioa).



Amaitzeko, jarduera lurralde plangintza aplikagarriarekin bateragarria dela adierazi du, baina, bere sutez, aurkeztutako aukerak paisaia duen eragina murriztu egin daiteke. Halaxe aztertu behar da paisaia integratioko azterlan batean, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

URA, Uraren Euskal Agentzia. Eusko Jaurlaritza

Jakinarazi duenez, proiektuaren eremuan ez dago ubiderik, baina BI-3101 errepideko zeharkako bi drainatze obra antzeman dira, errepidearen beste aldetik iristen diren isurketak batzen dituztenak. Azaldu duenez, obretan zehar arreta handia jarri beharko da, esekita dauden solidoak ugaritu ez daitezen eta materialak eta elementu kutsagarriak isurketa horietara joan ez daitezen. Hainbat neurri babesle eta zuzentzaile jasotzen ditu (solidoak atxikitze sistemak, makinak mantendu eta aparkatzeko guneen iragazgaiztea, material xurgatzaileen erabilera, proiektuaren eremuaren garbiketa obrak amaitu ostean...).

4. 21/2013 Legearen III. eranskineko eta 10/2021 Legearen II.F eranskineko irizpideen arabera azterketa

Ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuan proiektu jakin batek ingurumenen efektu nabarmenik eduki dezakeen analizatzen da eta, hala bada, ingurumen inpaktuaren ohiko ebaluazioa egin behar da. Azterketa hori egiteko, kontuan hartu dira egindako kontsulten emaitzak eta 21/2013 Legearen III. eranskinean eta 10/2021 Dekretuaren II.F eranskinean bildutako irizpideak. Edozelan ere, analisi hau indarrean dagoen ingurumen ebaluazioko araudian ezarritakoaren ondorioetarako egiten da; horrez gain, beharrezkoak izan daitezkeen baimenak, lizentziak eta/edo nahitaezko txostenak ere egin beharko dira.

Aipatutako bi arauetan jasotako irizpideetako bat, proiektuak ohiko prozedura jarraitu behar duen zehazteko, honako hau da: proiektuen kokapena. Hala, jarduera desberdinen eragina jasan dezaketen eremu geografikoen ingurumen sentikortasuna aztertu behar da.

Kasu honetan, nahiz eta proiektuak ez dituen ezaugarri bereziki nabarmenak dimentsioetan, baliabide naturalen erabileran, giza osasunerako arriskuetan eta abar, nabarmentzekoa da, ingurumenaren eta erabilera publikoaren ikuspegitik eremu sentikor bat delako, ingurumenen eta Natura 2000 Sareko espazio batean eragina izan dezakeena (kasu honetan, Urdaibaiko Itsasadarra HBBEn), Bizkaiko Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak jakinarazi duen bezala (horixe da Bizkaiko Lurralde Historikoan naturagune babestuak kudeatzen dituen organoa). Halaber, Zerbitzu honek eragin osagarriak identifikatzen ditu, besteak beste erabilera publikoko mendi bateko azalaren okupazioa, eta hiri izaerakoa ez den lurzoruaren okupazioa eta kontsumoa, guzti hori, dioenez, eraginak xurgatzeko gaitasun mugatua, ikusgarritasun zaurgarritasun handia, paisaia kalitate altua eta esanahi historiko nabarmena duen inguru batean.

Hori dela eta, lehendik ere adierazi den bezala, Bizkaiko Foru Aldundiko Naturagune Babestuak Kudeatzeko Atalak, Urdaibaiko itsasadarra HBBeko Naturagune Babestua kudeatzen duen organoa denez genero (haren barruan kokatzen da garatu nahi den proiektua) beste aukera bat eskatu dio proiektuaren sustatzaileari, ingurumenaren gaineko eragina murrizteko.

Eskaera horri erantzunez, sustatzaileak beste aukera bat proposatu du, eta, txosten honen 2. atalean deskribatzen den bezala, biribilgunea 1. eta 3. alternatibek egiten dutenaren tarteko puntu batean planteatzen du, turismoentzako egungo aparkalekuaren trazan bertan.

Aztertutako aukera guztiak lekuan bertan birplanteatu ondoren, proiektuaren xede den naturagune babestuaren kudeatzaileak 3. txosten alternatibo honetan deitutakoaren alde egiten du, uste baitu kostaldeko habitatarekiko eta paisaia natural eta hauskorrenarekiko eta mugikortasunaren eta erabilera publikoaren antolamenduarekiko distantziari dagokionez lortzen den irabaziak nabarmen gainditzen duela okupazioari eta lurzoru naturalaren azalerari dagokienez izandako galera, ez baitu nabarmentzeko ingurumen-baliorik.



Kontuan hartu beharreko beste irizpide bat proiektuen ezaugarriak dira, dimentsioei, beste jarduketa batzuekin metatzeari, hondakin naturalak erabiltzeari eta abarri dagokie-nez. Lurgorritik Gaztelugatxera iristeko proiektuaren kasuan, dimentsio txikiko jarduketa da, lehendik dagoen errepide baten ondoan kokatua, eta ez dago ondorio metagarriak edo sinergikoak izan ditzakeen hurbileko jarduketarik. Ez dago proiektuaren inplikaziorik istripu-arriskua edo giza osasuna areagotu dezakeenik.

Horregatik guztiagatik, ingurumen-organismo honek 3. txosten alternatibo honetan dei-tutakoa jotzen du ingurumen-eraginetarako onuragarriena, eta, beraz, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituren eta Lurralde Garapenaren Zuzendaritza Nagusiak eraikun-tza-proiektuan garatu beharrekoa da.

Aukera horretarako, betegarri batzuk egin beharko dira, eta horien gainean biribilgu-neia jarriko da, paisaia eragin handia izan dezaketenak. Horregatik, hurrengo atalean horri buruzko neurri zuzentzaileak adierazten dira.

Ondorio gisa, proiektuaren ingurumen-dokumentuan eta ingurumen-inpaktuaren txosten honetan aurreikusitako prebentzi. eta zuzenketa-neurriak aplikatuz, eta inguru-mena zaintzeko programa behar bezala gauzatuz, proiektuaren inpaktua eraginkortasu-nez murriztu daitekeela ulertzen da.

5. Proiektuan integratu beharreko neurri babesle edo zuzentzaileak eta inguru-men baldintzak

Proiektuaren ingurumeneko dokumentuan (8. eranskina) eta Ingurumena lehenera-tzeko eta landareztatzeko eranskinean jasotakoez gain, jardueraren sustatzaileak neurri babesle eta zuzentzaile hauek hartu behar ditu:

1. Lehenetsuna izango da proiektu honetan soberan dauden lurrak eta arroka gar-biak maileguak behar dituzten beste proiektu batzuetan berrerabiltzea, halako hondakineterako 2030erako Euskadin Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko Planean ezartzen diren helburuetarantz (%75 berrerabiltzea) aurrerapausoak emateko. Hondeatutako material naturalak betelanean eta jatorri obretatik kan-poko beste obra batzuetan erabiltzeko balorizazio arau orokorre buruzko urria-ren 10eko APM/1007/2017 Aginduan jasotakoa kontuan hartu beharko da, baita Eraikuntza eta eraipen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko den ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan jasotakoa ere.
2. Proiektua naturagune babestu baten barruan garatzean, zoladura iragazkorak, drainatze iraunkorreko sistemak eta bioingeniaritzako teknikak erabiliko dira pro-posatutako jardueretarako.
3. Proiektua garatzean bete egin beharko dira lurzorua kutsatzea saihestu eta ku-tsututakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean adierazitakoaren arabera beharrezkoak diren neurriak, proiektua Euskal Autonomia Erkidegoan kutsaga-riak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan sartuta dagoen kokapen batean garatuko baita.
4. Ingurumena leheneratzeko lanetan, bete egin beharko da Bizkaiko Foru Aldun-diaren Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak bere kontsulta faseko txostenetan horren gainean adierazitakoa.
5. Proiektatutako jarduerak Bizkaiko Foru Aldundiko Lurgorriko aisia-gunean eta Bakio-Bermeoko oinezko bidezidorrean (Lurgorri-Erleko Punta, 1. fasea) integra-tu behar dira. Azken hori garatu nahi du Bizkaiko Foru Aldundiak, eta, oraintsu, proiektua onartu ondoren, erabilera publikoko aitortu da. Integrazio horrek saihestu egin behar ditu aparkalekuaren eta aisia-gunearen erabilera desagokiak. Horreta-rako, kontuan hartu beharko dira Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuak ezartzen dituen irizpideak, naturagune babestuaren kudeatzailea denez gero.
6. Proiektuak obra-fasean jarduteko protokolo bat izango du, espezie exotiko inba-ditzaileak ez ugaltzeko, eta espezie horien aleak desagerrarazteko programa.
7. Uraren Euskal Agentziak bere txostenean adierazitako neurri babesle eta zuzen-tzaileak jasoko ditu proiektuak.



8. Proiektuaren behin betiko zuinketa Bizkaiko Foru Aldundiaren Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzuarekin lankidetzan egin beharko da.
9. Proiektuak betelane sortutako ezpondak paisaia integratzeko neurriak hartuko ditu, biribilgune berria hartuko duen plataforma atontzeko, Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduko Atalak hautemandako eta erantzunean adierazitako inaktuak ahal den neurrian minimizatzen.
10. Proiektuaren ingurumen-jarraipena proiektuaren ingurumen-agirian eta ingurumen-inaktuaren txosten honetan aurreikusitakoaren arabera egingo da. Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 52. artikuluan ezarritakoaren arabera, Azpiegiturako eta Lurralde Garapeneko Foru Departamentuak jarraipen-txosten bat bidaliko dio ingurumen-organo honi, obra hasten denetik hiler, ingurumen-dokumentuaren ingurumena zaintzeko programan eta ingurumen-inaktuaren txosten honetan aurreikusitako neurriak egiaztatzen zerrenda bat barne hartuta. Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri batekina eta egiaztapen-zerrenda Azpiegiturako eta Lurralde Garapeneko Foru Sailaren egoitza elektronikoa argitaratuko dira, eta, aurretik, ingurumen-organo honi jakinaraziko zaio egoitza elektronikoa horretan argitaratuko dela.
11. Obraren Zuzendaritzak Obrako Ingurumen zuzendari bat izan beharko du, eta izendapena ingurumen-organo honi jakinaraziko dio. Obrak amaitu arte eta horien berme-aldian, Obra Zuzendaritzak ingurumen-gaietan kualifikatutako aholkularitza bat izango du, egin beharreko lanengatik behar diren espezialistak izango dituen. Aholkularitza horren xedea izango da ingurumenean eragina duten obraren alderdi guztiak gainbegiratzea, obrak egiten diren bitartean jardunbide egokiak kontrolatzea, eta proiektuan, ingurumen-dokumentuan eta ingurumen-inaktuaren txosten honetan deskribatzen diren zuzenketak eta babes-neurriak aplikatzen direla ziurtatzea. Halaber, gaitasuna izango du egikaritze-obrak nola doazen ikusita komenigarritzat jotzen diren beste neurri batzuk antolatzen.
12. Ingurumen-organo honi jakinaraziko zaio lanak hasteko aurreikusitako eguna, gutxienez bi aste lehenago.

6. Proiektuak ingurumenean izango dituen eragin nabarmenei buruzko ondorioak

Kontuan hartuta txosten honetan adierazitako guztia, eta egindako ingurumen inaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren arabera eta 21/2013 Legearen III. eranskinean eta 10/2021 Legearen II.F eranskinean ezarritako irizpideei jarraikiz egindako azterketaren arabera, ondorioztatzen da «Lurgorritik Gaztelugatxera sartzeko proiektuak» ez duela eragin nabarmenik ingurumenean, betiere proiektuak bete egiten baditu ingurumen inaktuaren txosten honetan jasotako ingurumen baldintzak eta prebentzio neurriak. Ondorioz, ez da ingurumen inaktuaren ohiko ebaluazioa egin behar.

Nolanahi ere, ondorio honek ez du sustatzailea salbuesten legez eska daitezkeen ingurumen baimenak lortu beharretik.

Horrenbestez, eta bat etorritik otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzkoak, 39. artikuluen i) letran eta 67.1 artikuluan xedatutakoekin, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 31ko 79/2022 Foru Dekretuak, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren egitura organikoa arautzen duenak, xedatutakoarekin, sinatzen duten proposatuta, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa: «Lurgorritik Gaztelugatxera sartzeko proiektuaren» ingurumen inaktuaren txostena egitea.

Bigarrena: Ebazpen hau publikoki jakinaraztea Bizkaiko Lurralde Historikoko aldiakari ofizialaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren webgunearen bitartez (<http://www.bizkaia.eus/ebaluazioa>).



Hirugarrena: Ebazpen hau Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea.

Laugarrena: Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 79.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, ingurumen inpaktuari buruzko txosten hau loteslea eta nahitaezkoa da.

Bosgarrena: Organo substantiboak proiektua baimentzeari buruzko erabakia hartu eta argitaratuko du, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 48. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta.

Seigarrena: Onartutako proiektua aldatzen edo handitzen den kasuetan, eta 21/2013 Legearen 7.2.c artikulua xedatutakoa aplikatuz, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sail honek erabakiko du aldaketa edo handitze horiek ingurumen araudiak xedatzen dituen ingurumen inpaktuaren ebaluazioko kasuren bati lotu beharko zaizkion, baldin eta horien ondorioz ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak sor badaitezke.

Obrak egiteko gainerako izapideak egin bitartean sortzen diren eta aurreko paragrafoan adierazitakoak bezain handiak ez diren proiektuaren aldaketa puntualak ere ingurumenaren ikuspuntutik justifikatu beharko dira, ingurumen aholkularitzaren txosten baten bidez.

Zazpigarrena: Ingurumen inpaktuari buruzko txosten honek indarra galduko du eta hari datxekion ondorioak galduko ditu baldin eta, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, proiektua onetsi ez bada argitaratu eta lau urteko epean, salbu eta indarraldia luzatzea erabakitzen bada 21/2013 Legean ezarritakoaren arabera.

Zortzigarrena: 21/2013 Legearen 47.6 artikuluekin bat etorriz, ingurumen inpaktuari buruzko txosten honi ezingo zaio errekursorik jarri; nolahi ere, administrazio bidean edo bide judizialean dagozkionak ezarri ahalko dira, hala badagokio, proiektua baimentzeko egintzaren aurka.

Bederatzigarrena: Proiektua behin betiko onartu baino lehen, sustatzaileak (Bizkaiko Foru Aldundiko Bide Berrikuntza eta Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusia) behin betiko proiektua bidali beharko du, txosten honetan ezarritako neurriak ezartzearen ondoriozko aldaketekin.

Bilbon, 2023ko martxoaren 13an.

La diputada foral de Sostenibilidad
y Medio Natural,
AMAIA ANTJUSTEGI ZIARDA

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Abanto y Ciervana-Abanto Zierbenako Udala**

Abanto Zierbenan «Auzotax» zerbitzura bideratutako dirulaguntzen emakida arautzen duten oinarriak onesten dituen Ordenantza espezifikokoaren aldaketa behin betiko onestea.

Abanto Zierbenako Udalak, 2022ko abenduaren 29an eginiko osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Abanto Zierbenan «Auzotaxi» zerbitzura bideratutako dirulaguntzen emakida arautzen duten oinarriak onesten dituen Ordenantza espezifikokoaren aldaketa.

Jendaurrean jartzeko izapidea bete zen 2023ko urtarrilaren 18ko Bikaiko Aldizkari Ofizialean (12. zenbakia) eta udaletxeko iragarki-oholean zegokion iragarkia argitaratuta 30 egunez. Oharrik edo alegaziorik egin ez zenez, ordura arte hasiera batekoa zen onespén-erabakia behin betiko erabaki bihurtu zen, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena) 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Horregatik, 7/1985 Legearen 49.c) eta 70.2 artikuluetan ezarritakoa betez, behin betiko onetsitako aldaketaren testu osoa argitaratzen da, indarrean jar dadin. Hain zuzen ere, lege-testu horretako 65.2 artikulua ezarritako epea igarotakoan jarriko da indarrean.

Abanto Zierbenan, 2022ko abenduaren 29an. — Alkatea, Maite Etxebarria Azpiolea



Jarraian transkribatzen da Ordenantzaren testua, aldaketekin:

«4. artikulua. —Eskatzaileak

Auzotaxi txartela lortu ahal izango dute honako egoeretako batean daudela egiaztatzen duten pertsonak:

- a) 18 eta 30 urte bitarteko gaztea edo 65 urte edo gehiagoko pertsona izatea, ez izatea ibilgailu propioa eta honako auzotaxi batean errolatuta egotea: Abanto, Putxeta, Carolinas, Sopeña, Cotorrio, El Campillo, El Cerrillo, El Manzanal, El Once, Fonso, La Balastera, La Barga, La Florida, La Hera, Las Calizas, Las Cortes, Los Castaños, Picon-El Cerrillo, Revilla, Rubias, Triano, San Pedro, La Barcena, Buenos Aires, El Bao, La Hera eta Murrieta.»

«6. artikulua. —Dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptuak

Diruz lagundu ahal izango dira udalerriaren barnean egiten diren bidaiak, hau da, etxebizitzatik hirigunera joan eta bueltatzeko bidaiak. Bidaia horiek Abanto Zierbenan taxi-lizentzia duten taxi-gidariekin egingo dira, edo Meatzaldeko Erregimen Berezikoko Eremuko udalerrietako batean desgaitasuna duten pertsonak garraiatzeko lizentzia duten taxi-gidariekin, horiek programan sartzen badira. Bidaiak dagokion urteko deialdian ezarritako epean egin beharko dira.

Zerbitzua astelehenetik igandera eskainiko da. Ordutegiak dagozkion deialdietan zehaztuko dira.»

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Ajangizko Udala****Hirilurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren Ordenantza fiskala**

Ajangizko Udalak 2023ko martxoaren 9an ospatutako osoko bilkuran, Hirilurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren Ordenantza Fiskalaren aldaketa onartu du, 2022ko abenduaren 28ko 10/2022 Foru Arauak araututakora egokitzeko.

Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoa betez, akordio hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitatzen da, argitalpenaren biharamunetik zenbatuta eta 30 laneguneko epean interesdunek espedientea aztertu eta dagozkien alegazioak aurkeztu ditzaten.

Jendaurreko epean inolako erreklamaziorik ez balego, aldaketa behin betiko onartutzat joko da, beste akordiorik gabe.

Ajangizen, 2023ko martxoaren 9an. — Alkatea, Koldo Carbonell Oiartzabal



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Atxondoko Udala

Akats zuzenketa. «Markoida» industria sektorearen plan partzialaren aldaketa puntualerako hirigintza hitzarmena Atxondoko ekialdea.

Alkateak, otsailaren 24ko 0036/2023 Ebazpenaren bidez, honako hau xedatu du:

Lehenengoa: Aipatutako hirigintza-hitzarmenaren proposamena izapidetzen hastea. Hona hemen hitzarmenaren testua:

Bigarrena: Administrazio-prozedura bere izapide guztietan ofizioz bultzatzea, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 70. artikuluen eta hurrengoaren arabera.

Hirugarrena: Lege-xedapenen arabera nahitaezkoak diren txostenak eta ebazteko beharrezkotzat jotzen direnak biltzea, aipatutako 39/2015 Legearen 79. artikuluen eta hurrengoaren arabera.

Laugarrena: Jendaurrean jartzeko epe bat irekitzea, hogeitasei eguneko, eduki osoa lurralde historikoko aldizkari ofizialean erakusteko. Epe horretan alegazioak aurkeztu ahal izango dira, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarriaren arabera.

Atxondon, 2023ko martxoaren 15ean.—Alkatea, Xabier Azcarate

**«MARKOIDA» INDUSTRIA SEKTOREAREN PLAN PARTZIALAREN ALDAKETA
PUNTUALERAKO HIRIGINTZA HITZARMENA ATXONDOKO EKIALDEA**

Atxondoko udaletxean, xxaren xxan 2023.

BILDUTA:

Alde batetik:

Mikel Lasuen Churruca jauna, adin nagusikoa, 3xxx29xxN NAN zenbakia duena eta ondorio horietarako helbidea Abadiñoako Astola auzoko 68an duena.

Bestetik:

Xabier Azkarate Arostegi jauna, adinez nagusia, Atxondoko Udaleko alkate-udalburua, hitzarmen honen ondorioetarako helbidea udaletxean duena.

PARTE-HARTZAILEAK:

Mikel Lasuen Churruca jaunak, adinez nagusiak (NAN zenbakia: xxx), Construcciones Lasuen, S.A. enpresaren administratzaile gisa esku hartu du. Enpresaren helbidea: Astola auzoa 68, Abadiño, Bizkaia IFK: A48093421 IFK eta, gainera, Ekialdeko Markoida Egikaritze-Unitatearen Hitzarmena Kontratazio Batzordearen ordezkari gisa,

kargu horretarako hautatu zuten 2022ko martxoaren 10eko Batzarrean, eta urte bereko maiatzaren 27an jarri zuten jendaurrean, Durangoko notario Nestor José Almarza de la Peña jaunaren aurrean.

Xabier Azkarate Arostegi jaunak, Atxondoko Udalaren izenean eta ordezkaritza, Udaltzako alkate-udalburua den aldetik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) artikulua behar bezalako ahalmena du hitzarmen hau egiteko, lege horren 22.2.c) artikulua arabera.

Berlaratutako jaun-andreek, parte hartzen duten izaerari dagokionez, hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasun nahikoa dute eta aitortzen diote elkarri, eta, horrenbestez,

AZALDU DUTE:**I. Aurrekariak**

Lehenengoa: Atxondoko Arau Subsidiarioak 1999ko maiatzaren 10eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Uztailaren 21eko 1093/2005 Foru Aginduen bidez, Atxondoko Markoida Ekialdea Industria Sektorearen Plan Partzialaren testu arauemailea onartu zen (HI-126/2001-P06 espediente), eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 185. zenbakian argitaratu zen erabakia (irailaren 28koa) 2005eko uztailaren 24ko osoko bilkuran, «Markoida Ekialdea» Sektorearen Plan Partzialaren aldaketa puntuala onartzea erabaki zen, Egikaritze Unitate bakarra sortzeko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 183, 2006ko irailaren 25koa, hirigintza-kudeaketarako itun-sistemara aldatuz.

2007ko apirilaren 23an, Atxondoko Udalak Ekialdeko Markoida sektorearen kudeaketa itundua egiteko Hitzarmen Arautzailea eta Hitzarmen Batzordearen Estatutuak onartu zituen, eta 2007ko maiatzaren 15eko 94 zenbakiko BAOan argitaratu zen onarpena. Hitzarmen hori Bilboko notario Ramón Múgica Alcorta jaunaren aurrean egindako eskritura publikoaren bidez eratu zen, 2007ko uztailaren 11n, SPKLren 161.1 taulan adierazitakoa betez.

Aurreko araudia garatzeko, birpartzelazio-proiektua 2008ko urtarrilaren 23an onartu zen behin betiko, Alkatetzaren Dekretu bidez, interesdunei jakinarazi zitzaizen eta 2008ko otsailaren 22ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (38. zenbakia) argitaratu zen, eta 2010eko martxoaren 11n inskribatu zen Durangoko Jabetza Erregistroan.

Bigarrena: Hitzarmen Batzordeak 2008ko otsailaren 18an urbanizazio-proiektua aurkeztu zuen, Atxondoko Udalak onar zezan.

2008ko otsailaren 19an (sarrera-erregistroa: 531), Ur Agentziaren bulegoetan, Markoida Ekialdea sektorea urbanizatzeko obrak egiteko baimen-eskaera aurkeztu zen.



Agentzia honek 2008ko martxoaren 10a igorri zuen, otsailaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuaren arabera, 2008, apirilaren 11ko 849/1986 Dekretuaren bidez onartutako Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua aldatzen duena, eta urbanizazio-proiektua baimentzen ez duena, azterketa hidraulikoaren beharra nabarmenduz:

«jarduketa proiektatua baimendu ahal izateko, aldeztu aurretik azterketa hidrauliko bat egin beharko da, Atxondoko udal-mugartean uraldietako korrontearen erregimen naturala eragozten duten egungo oztopoak identifikatuko dituen. Azterketa horretan, erreferentziako fluxu-bidea eta 10, 100 eta ZOO aiko errepikatze-denborako uraldiek hartzen dituzten arloak definituko dira, behin ibilguari pertsonentzat eta ondasuentzat arriskurik gabe modu naturalean igortzeko beharrezko neurri guztiak hartu ondoren.

Ez da onartu azterketa hidraulikorik ez izateagatik.

Ondoren, 2017ko ekainaren 21ean, 201755700001813 erregistro-zenbakiarekin, baimen-eskaera bat aurkeztu zen Ur Agentzian jabari publiko hidraulikoko eremuan, zortasun-eremuetan eta ibilguen poliziako eremuetan obrak egiteko, Markoida plazako zubia 1. aldiz ordeztuari eta sektorearen eremuko uholdeen ibilgua handitzeari dagokionez (AO-B-2017-0181 espediente), sektorea urbanizatu ahal izateko.

Ur Agentziak, 2018ko martxoaren 23an, erantzun du eskatutako jarduketak ezin direla baimendu, ez baitute betetzen Uraren Euskal Agentziaren Plangintza eta Obren Zuzendaritzaren 018ko martxoaren 9ko txostenean ezarritakoa, eta, beraz, ukatu egiten direla.

Hitzarmen Batzordeko ordezkarien eta Ur Agentziako ordezkarien artean duela gutxi egindako bileretan, eta Uraren Euskal Agentziako Plangintza eta Obra Zuzendaritzaren 2022ko urtarrilaren 12ko txostenean, aurkeztutako azterketa hidraulikoari erantzuteko APO2021-0114 espedienteari buruzkoan, ondorioztatu da aurkeztutako azterlan hidraulikoak baldintza hauek betetzen dituela:

- 401,45 m luze eta 12 m zabal den ubide bat egitea Markoidako zubien eta BI-3336 errepedearen artean.
- Hitzarmen Batzordeak eta haren jabeek konpromisoa hartu dute Atxondoko Markoida plazako 7. industria-nabea erosteko. Nabe hori ibaiaren ibilguaren ezker aldean dago, eta errekatik gertuen dago, jarduketa-eremutik kanpo, ondoren eraitsi eta egokitzeko.
- Hitzarmen Batzordearen konpromisoa, Markoida plazako harlanduzko zubiaren ordeztu 500 urteko errepikatze-denborako uraldietako ezaugarri hidrauliko mesedegarriak dituen pasabidea jartzeko. Horretarako beharrezkoa izanez gero, Atxondoko Udalaren kontura izango dira lursailak.

Horren arabera, aukera ematen du eremuaren urbanizazioa baimentzeko eta Hiri-gintza Proiektuan aitortutako eraikuntza-eskubideak gauzatzeko Birpartzelazioa, 500 urteko uholde-arriskuaren lerroa errespetatuz, egungo partzelen konfigurazioa eta lerro-kadurak aldatuz.

Hirugarrena: 94/2020 Foru Dekretua, azaroaren 10ekoa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Atxondoko Udalari BI-3336 (N-636 Beasain-Durango) foru-errepedearen titulartasuna aldatzeari buruzkoa. 45+310 p.k. 46+530 (Atxondoko udalerriaren muga, lagatako zatia), Bizkaiko Foru Aldundiak Durangoko Jabetza Erregistroan inskribatutako finka lagatzen dio udal horri: Atxondoko 1699 zenbakia, 2201 liburukia, 28 liburua, 209 folioa, «Hiriko: foru bide partzela. Forma irregularreko lurzati, Atxondoko Udalaren Ekialdeko Markoida Sektoreko Egikaritze Unitatearen Hitzarmen Proiektuaren barruan dagoena. Lurzati horrek bi mila berrehun eta hogeita lau metro karratuko azalera du; barruko bideetarako eta foru-biribilgunerako erabiltzen da; eta honako muga hauek ditu: iparraldean, ekialdean eta mendebaldean, espazio libreak eta udal-bideak; eta hegoaldean, egikaritze-unitate-tik kanpoko biribilgunearen gainerakoa, birpartzelazioan doan lagatako lursailen emaitza, eta erregistroko finka bakar bat osatzeko hamaika eta hamabi lursailetan, 1689 eta 1690 erregistroetan, deskribatutako lursailak.



Ajuriaguerra, hiru SLPk, hirigintza-kudeaketako sozietateak, N636a Atxondotik igarotzen den hiri-zeharbide bihurtzeko proiektua idatzi du. Proiektuaren xedea da eraldaketa horretara bideratutako obren trazadurari, diseinuari eta gauzatzeari buruzko alderdiak arautzea, Arau Subsidiarioen berrikuspenean aurreikusitako zerbitzu-sareen eta ibilgai-luen eta oinezkoen bideen eskemen trazadurari eta ezaugarriei dagokienez.

Biribilgune berriaren diseinuak berekin dakar indarrean dagoen Plan Partzialean ezarritako diseinua erabat aldatzen duen sarbide bat ezartzea, eta ez du aurreikusten Ekialdeko Markoida sektorerako sarbiderik, eta hori zen Plan Partzial horren eta Birpartzelazio Proiektuaren helburuetako bat.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Atxondoko Udalarekin lortutako akordioaren arabera, proiektua 2021eko irailaren 9ko osoko bilkuran onartu zen biribilgunearen exekuzioaren % 100 ordainduko du.

Laugarrena: Markoida Ekialdea Industria Sektorearen itunpeko kudeaketa arautzen duen hitzarmenaren bidez, bere garaiari, Hitzarmen Batzordea arduratu zen hiritartze sistema orokorra barne hartzen duen eremuan aurreikusitako urbanizazio obrak gauzatzeari, eta Atxondoko Udalak ordaindu zuen biribilgunearen hego-ekialdeko irteera, Plan Partzialean aurreikusia.

II. Helburua eta xedea. Alderdien borondatea

Oro har, hirigintza-hitzarmenak legezko zehaztapenak osatzeko joera dute, eraginpeko aldean arteko akordioa ahalbidetuz, kudeaketa erraztuz eta hirigintza-jarduera jakin batek sor ditzakeen tirabirak eta oztopoak hasieratik ezabatuz.

Atxondoko Udalak eta Hitzarmen Batzordeak, bai eta huraosatzen duten jabeek ere, Ur Agentziak adierazitako zehaztapenen eta biribilgunearen diseinori berriaren ondorioz Birpartzelazio Proiektuaren ondoriozko eraikuntza-eskubideen gauzatze materiala bideraezina zela jakinik, elkarriketa-prozesu bati ekin zioten, eta Plan Partziala eta, ondorioz, Ekialdeko Markoidako Birpartzelazio Proiektua aldatzea proposatu zuten, Ur Agentziaren eskakizunetara egokitzeko, bai eta N-636 errepidea Atxondotik igarotzen den Hiri Zeharbidean eraldatzeko obra-proiektua gauzatzeko ahalbidetzeko eta plangintzara egokitzeko ere.

Konponbide hori Ur Agentziarekin ere negoziatu da, hasiera batean ez baitzuen baimentzen urbanizazioa egitea; izan ere, Ibaizabal ibaiak baldintzatu egiten du hiri-antolamenduaren osaera-garapena, eta eragotzi egiten du Birpartzelazio Proiektuan aitortutako eraikigarritasuna gauzatzeko, Plan Partzialean planteatuta zegoen bezala.

III. Justifikazioa eta egokitasuna

636 N Hiri Zeharbidea Atxondotik igarotzean eraldatzeko proiektua gauzatzeak berekin dakar udalerrirako sarbide bat ezartzea, zeina, lurraldearen, hirigintzaren, funtzionaltasunaren eta ekonomiaren ikuspegitik, udalerrarentzat interes publiko eta sozial handikoa baita zentzu horretan. Hitzarmen honetan jasotzen den proposamenaren helburua da antolamendu xehatua ezartzea, berme nahikoekin garatu ahal izateko, eta, aldi berean, kalitate handiko hiri-eremua sortzea, 636 N zeharbidea bihurtuz.

Atxondoko Udalak hitzarmen hau sinatzea komenigarria eta egokia dela onartzen du, interes orokorra onuragarria izango baita, Atxondoko herrigunearen eraldaketa eta sarbidea, bai eta eraikuntza-eskubideak gauzatzeko benetako aukera ere.

Plangintza birzatzitzeko eta gauzatzeko proiektuaren ondorioz, Atxondoko Markoida ekialdea eremuak izan dezakeen uholde-arriskua konponduko da, eta udal-lurraldearen zati baten hiri-garapena eta ingurunearen hirigintza-jarraitutasuna modu egokian gauzatu dira.

Interes publikoetarako komenigarritasunaren frogak gisa, txosten bat idatzi da, Atxondoko Markoida Este Industria Sektorearen Plan Partzialaren aldaketa puntualerako hirigintza-hitzarmenaren zirriborrotik eratorritako konpromisoen balorazioa, Ajuriaguerra Tres Urban Planingek 2022ko maiatzan idatzia.

**IV. Esparru juridikoa**

Mota honetako hitzarmenei aplika dakiekeen araubide juridikoari dagokionez, izaera eta izaera administratiboa dutenak, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 61. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio, bai Estatuko oinarritzko legeriari, bai Euskal Autonomia Erkidegoko legeriari.

Lehenengoari dagokionez, honako hauek aipatu behar dira: 9/2017 Lege berria, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuari buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/2J/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora; 1 administrazio-kontratu betetzeko eta azkentzeko aplikatu beharreko araubide juridikoaren arauketa ezartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 111. artikulua, Xedapenen Testu Bategina onartzen duena Toki-araubidearen arloan indarrean dauden legeak, zeinak adierazten baitu toki-erakundeek komenigarritzat jotzen dituzten kontratu, itun edo baldintzak hitzartu ahal izango dituztela, betiere interes publikoaren, ordenamendu juridikoaren edo administrazio onaren printzipioen aurkakoak ez badira, eta horien arabera bete beharko dituztela, erakunde horien alde ezarritako prerrogatibei kalterik egin gabe, hala badagokio, bai eta Lurzoruari buruzko maiatzaren 28ko 8/2007 Legearen Bederatzigarren Xedapen Gehigarria ere, artikulua hori aldatzen duena. 22.2 c. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, udaletako osoko bilkurari dagokio plangintza orokorraren hasierako onarpena eta hirigintza-legerian aurreikusitako planen eta gainerako antolamendu-tresnen udal-izapideei amaiera emango dien onarpena, bai eta tresna horietako edozein aldatzea xede duten hitzarmenak ere.

Hitzarmen Batzordeak Plan Partzialaren aldagetari buruz egindako proposamena aztertu ondoren, Atxondoko Udalak Hirigintza Hitzarmen hau sinatu du, bertaratutako alderdien artean lortutako akordioak islatzeko, eta ekainaren 30eko Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriarekin bat etorritz. Hona hemen hitzarmenaren,

ITUNAK**Lehenengoa. — *Markoida ekialdeko hitzarmen batzordeak eta partaideek hartutako konpromisoak***

Atxondoko Markoida Ekialdea Egikaritze Unitatearen Hitzarmen Batzordeak honako konpromiso hauek hartu ditu:

- A. APO2021-0114 espedienteari buruz Uraren Euskal Agentziaren Plangintza eta Obren Zuzendaritzak 2022ko urtarrilaren 12an egindako txostenaren arabera aurreikusitako jarduketak gauzatzea eta ordaintzea. Hauek dira jarduketak:
 - A.1. Markoidako zubien eta BI-3336 errepidearen artean 401,45 m luze eta 12 m zabal den ubide bat egitea, proiektua idazteko eta obrak zuzentzeko ordainsari profesionalak barne.
 - A.2. Atxondoko Markoida plazako 7. zenbakiarekin identifikatutako industria-nabea erostea. Plaza hori ibaiaren ibilguaren ezker aldean dago, errekatik hurbilen dagoena da eta jarduketa-eremutik kanpo dago, ondoren eraitsi eta egokitzeko. Zehazki, Mauda anaien artisau-lantegia eta Ibai, Maderas y Embalajes, SL enpresaren nabea.
 - A.3. Markoida plazako harlanduzko zubiaren ordeztu ezaugarri hidraulikoak dituen pasabide bat jartzea, 500 urteko itzulera-aldia. Lurrak lortzeko, beharrezkoa izanez gero, 1. tramitazioa Atxondoko Udalaren kontura izango da, eta kostua, berriz, Hitzarmenaren* Batzordearen kontura.
- B. Hitzarmen-batzarrak onartu du Atxondoko Udalak Durangoko Jabetza Erregistroan Atxondoko 1699 zenbakiarekin inskribatutako finkaren biribilgunerako zehaztutako lursailen erabilgarritasuna izatea. Finka hori 2201 liburukian, 28 liburuan, 209 folioan dago inskribatuta, eta honela dio: «Hirikoa: Foru bide-partzela.



Forma irregularreko lurzatia, Atxondoko Udalaren Ekialdeko Markoida Sektoreko Egikaritze Unitatearen Hitzarmen Proiektuaren barruan dagoena. Lurzati horrek bi mila berrehun eta hogeita lau metro karratuko azalera du; barruko bideetarako eta foru-biribilgunerako erabiltzen da, eta honako muga hauek ditu: iparraldean, ekialdean eta mendebaldean, espazio librean eta udal-bideak; hegoaldean, egikaritze-unitatetik kanpoko biribilgunearen gainerakoa, eta Atxondoko 1689 eta 1690 erregistro-zenbakidun Birpartzelazio Proiektuko hamaika eta hamabi lursailetan Atxondotik igarotzen den N636 hiri-zeharbidea eraldatzeko proiektua gauzatzeko emandako lursailetan deskribatutako lursailak. Ezin izango zaie kosturik eragin Hitzarmen Batzordeari eta haren jabeei.

- C. Atxondoko Udalari aurkeztea, Hirigintza Hitzarmen hau behin betiko onartu eta hurrengo egunetik hilabeteko epea igaro baino lehen, Atxondoko Markoida Ekialdea Industria Sektorea Antolatzeko Plan Partzialaren 2. Aldaketa, alderdiek adostutako baldintzetan eta dokumentu honen I. eranskinean adierazitako Antolamendu Proposamenaren arabera idatzia, bai eta sektorearen hirigintza-kudeaketarako beharrezkoak diren proiektuak eta proiektuen aldaketak ere, Markoida Ekialdea Egikaritze Unitate Bakarraren lurretan urbanizazioa gauzatzuz.
- D. Birpartzelazio Proiektuaren aldaketa idaztea eta aurkeztea, ondoriozko lurzatiaren konfigurazio berriaren deskribapenarekin eta Planteatutako Plan Partzialaren aldaketaren arabera antolamendua, Atxondoko Udalari lagatzeko eraikuntza-eskubideen konpentsazioa errespetatuz. Eskubide horiek bere garaian onartutako hitzarmen arautzailean eta Birpartzelazio Proiektuan ezarrita zeuden.
- E. Hirigintza-plangintzako eta -betearazpeneko tresnak garatzen parte hartzen duten profesional guztien ordainsariak ordaintzea.

Bigarrena. — Bere gain hartutako konpromisoak Atxondoko Udala

- A. Atxondoko Udalak konpromisoa hartzen du Atxondoko Markoida Ekialdea Industria Sektorea Antolatzeko Plan Partzialaren 2. aldaketa izapidetzeko, harik eta behin behineko onarpena lortu arte, eta konpromisoa hartzen du ahalik eta lasterren onartzeko, alderdien artean adostutako moduan eta dokumentu honen I. eranskinean adierazitako antolamendu-proposamenaren arabera idatzita, bai eta administrazio-izapideak egiteko ere, harik eta Bizkaiko Foru Aldundian behin betiko onartu arte eta Markoida Ekialdea sektoreko lursailak urbanizatzeko eta birpartzelatzeko proiektuaren aldaketa onartu arte. Halaber, konpromisoa hartzen du Atxondoko Markoida Ekialdea eremuaren egungo hirigintza-kalifikazioari eusteko, Atxondoko udalerrirako Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria onartzen den kasurako, eta eremurako lizentziak etetea salbuetsita.
- B. Bizkaiko Foru Aldundiarekin lortutako akordioaren arabera, N-636 errepidea Atxondotik igarotzen den hiri zeharbide bihurtzeko obra proiektua osorik burutzea ordaintzea. Proiektua 2021eko irailaren 9ko osoko bilkuran onartu zen, aurreko Lehenengo Ituneko B.- atalean adierazitako lurretan.
- C. Aurreikusitako zubi berria egiteko behar diren lursailen eskuraketa izapidetzea, desjabetze-espedientearen bidez edo beste prozedura baten bidez, eta Hitzarmen Batzordearen esku jartzea, eskuratzearen kostua Hitzarmen Batzordeak ordainduta.

Hirugarrena. — Ez-betetzea

Aldeetako edozeinek bere betebeharrak betetzen ez baditu, hitzarmena azkendu egingo da, eta ez-betetzailerak kalte-ordaina eman beharko du eragindako kalte eta kopuruengatik.

Laugarrena. — Hitzarmenaren betearazpenaren jarraipena, zaintza eta kontrola

Hitzarmen honen Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori Atxondoko Udalarekin bi ordezkari eta Hitzarmen Batzordeko ordezkari batek osatuko dute, eta udal-ordetzarietako batek Batzordearen Lehendakari izango du, alkateak izendatua.



Batzordearen eginkizunak izango dira hitzarmen hau interpretatzean eta betetzean sor daitezkeen zalantzak ebaztea.

Hala nola, bertan aurreikusitako jardueren gauzatzearen jarraipena egitea, elkarri informazioa emateko eta konpromisoak behar bezala betetzeko irizpideak eta moduak zehaztuz.

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, aldeetako edozeinek proposatuta, Batzordea alde zuretik deialdia eginda bilduko da, lanak behar bezala egiteko beharrezkoa den guztietan.

Bosgarrena. — Indarraldia

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuz, lankidetzaz-hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da hitzarmenaren xede diren prestazioak jaso eta likidatu arte. Hala ere, aipatutako legearen 49. artikulua arabera, hitzarmenaren iraupena ezin izango da 4 urtetik gorakoa izan, eta edozein unetan, aurreikusitako epea amaitu baino lehen, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute lau urte gehiago luzatzea edo azkentzea.

Seigarrena. — Hitzarmena azkentzea

Hitzarmen hau iraungi egingo da osorik betetzen bada edo suntsiarazten bada.

Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

- Indarraldia luzatzea erabaki gabe igarotzea.
- Sinatzaile guztien aho bateko akordioa.
- Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.
- Deuseztasuna deklaratzeko duen erabaki judiziala.
- Legeetan aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.

Zazpigarrena. — Alderdien lankidetzaz-betebeharra

Atxondoko Udalak eta Hitzarmen Batzordeak elkar kontrolatzeko eta informatzeko eginkizunetan laguntzeko konpromisoa hartu dute.

Zortzigarrena. — Izaera peiisonaleko datuen babesa

Alderdi sinatzaileek konpromisoa hartzen dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko.

Bederatzigarrena. — Araubide juridikoa

Hitzarmen hau administratiboa da, 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren VI. kapituluaren xedatutakoaren arabera. Arlo publikoko juridikoa.

Hitzarmenaren garapenean eta betearazpenean alderdien artean sortzen diren eta Jarraipen eta Kontrol Batzordean ebatzi ezin diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen xedatutakoaren arabera.

Hitzarmen honetan aurreikusi ez den guztirako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea aplikatuko da, baita aplikatu daitezkeen beste edozein xedapen ere.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela eta onartzen dutela adierazteko, parte-hartzaileek agiri honen lau ale sinatu dituzte, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Barrikako Udala**

Bide publikoan ibilgailua uztearren persona ezezagunari jarri zaion errekerimendua.

JAKINARAZPENA

Ibilgailuaren titularrari ezin izan zaielarik asanbidez jakinarazi, bide publikoan ibilgailua uzteko adierazpena, horren etxebizitzan ez zelako egon inor edo antzerako arrazoi beretzuengatik, jendaurreko egiten dugu iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen (39/2015 Legea) 42. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Ikusi ahal izan dugu, ezezagun baten Peugeot 206 motako DF-675-NK ibilgailua Barrikako Udalerrian aparkaturik dagoela, eta argi ikusten da, bestalde, horrek matxurak dituela, eta bere kabuz ezin dela ibili, Udaltzaingo honetako langileak, bere momentuan, jasotako aktaren arabera.

Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bateginaren urriaren 30eko 6/2015 Legegintzazko Errege Dekretuaren 106. artikuluen arabera, ibilbailua lekualdatzeko agindua eman aurretik administrazioak titularrari horretarako errekerimendua egindo dio eta hilabeteko epean ibilgailua kentzen ez badu, tratamendurako baimendutako zentzora eramango da.

Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 22/2011 Legearen 3.b) artikulua etxeko hondakin gisa definitzen ditu bertan behera utzitako ibilgailuak eta dagozkien zehapenak ezartzen dizkie erantzuleei.

Honen bidez, jabeari errekerimendua egiten zaio hilabeteko epean aipatutako ibilgailua kentzeko, eta ohartarazten zaio hori egin ezean etxeko hondakin gisa tratatuko dela, eta 22/2011 Legean ezarritako zehapenak aplikatuko zaizkiola, eta bere kontura izango direla hondakina kudeatzeko gastuak.

Barrikan, 2023ko martxoaren 13an.— Alkatea, Roberto Muñoz García

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

2023ko martxoaren 13ko 1014/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: “Gazteria” dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681495.

Diru-laguntza orokorreko buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681495>).

Lehenengoa. — Deialdi honetako dirulaguntzen onuradunak

Basauriko Udalaren Elkarteen Erregistroan izena emanda dauden aisialdi elkarteei, edota udalerriko biztanleei zuzendutako jarduerak edo programak garatzen dituztenei. Hala xedatzen du Oinarri Orokorren 3.3 atalak.

Bazter utzitakoak

Ikastetxeak, Gurasoen elkarteak (IGE), ikasleen elkarteak, eta beste edozein, beren jarduna eskola edo akademia eremuko bada.

Bigarrena. — Dirulaguntzaren xedea

Astialdi eta aisialdi hezitzaileko elkarteei laguntzea gazteentzako programen eskaintza garatzen.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Kultura-politika eta Euskara arloko dirulaguntzak emateko Oinarriak ete Oinarri arautzaileen Eranskinak onartu ditu 2023ko otsailaren 24ko 0746/2023 Dekretuak; eta 2023ko martxoaren 8ko 47 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

Laugarrena. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza 5.323,55 eurokoa da.

Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea

Hilabeteko epea egongo da eskabideak aurkezteko, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

Seigarrena. — Beste datu batzuk

Zuriketa egiteko epemuga 2024ko urtarrilaren 31 izango da.

Basaurin, 2023ko martxoaren 13an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

2023ko martxoaren 13ko 1022/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Kirola: kirol-jarduera egonkorak eta/edo lehiaketak egitea» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681514.

Diru-laguntza orokorreki buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681514>).

Lehenengoa. — Deialdi honetako dirulaguntzen onuradunak

Kirol elkarte eta klubei, Basauriko Udalaren Elkarteen Erregistroan izena emandako erakundeei, edota udalerriko biztanleei zuzendutako jarduerak edo programak garatzen dituztenei. Hala xedatzen du Oinarri Orokorren 3.3 atalak.

Bazter utzitakoak

Ikastetxeak, elkarteak eta kirol eremukoa ez den beste edozein jarduera.

Bigarrena. — Dirulaguntzaren xedea

Kirol elkarte eta klubek urtero antolatzen dituzten kirol jarduera egonkorak edota txapelketak sustatzea, eta bultzada ematea Basauriko Udaleko Kirol Atalak antolatutako kirol jardueren osagarriak antolatzen dituzten elkarteei.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Kultura-politika eta Euskara arloko dirulaguntzak emateko Oinarriak ete Oinarri arautzaileen Eranskinak onartu ditu 2023ko otsailaren 24ko 0746/2023 Dekretuak; eta 2023ko martxoaren 8ko 47 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

Laugarrena. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza 270.000,00 eurokoa da.

Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea

Hilabeteko epea egongo da eskabideak aurkezteko, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

Seigarrena. — Beste datu batzuk

Zuriketa egiteko epemuga 2024ko urtarrilaren 31 izango da.

Basaurin, 2023ko martxoaren 13an. — Alkatea, Asier Iragorri Basaguren

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

2023ko martxoaren 13ko 1015/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «hezkuntza: eskola garraioko jarduerak» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681497.

Diru-laguntza orokorre bidezko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681497>).

Lehenengoa. — Deialdi honetako dirulaguntzen onuradunak

Udalerriko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikastetxeei; eta prestakuntza-zikloak ematen dituzten zentroei. Era berean, eskabideak aurkez ditzakete Basauri udalerriko ikastetxe eta ikasketa kooperatibetako guraso elkarteek (IGE).

Bigarrena. — Dirulaguntzaren xedea

Basauriko Udalak eta bere erakunde autonomoek antolatutako jardueretan parte hartzeagatik garraio-gastuei aurre egiteko laguntza ekonomikoak.

Basauri Kirolakek Lehen Hezkuntzako ikasleentzat antolatutako igeriketa-ikastaroei dagokienez, ikastetxe bakoitzeko, maila bakarraren gastuak bakarrik ordainduko dira.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Kultura-politika eta Euskara arloko dirulaguntzak emateko Oinarriak eta Oinarri arautzaileen Eranskinak onartu ditu 2023ko otsailaren 24ko 0746/2023 Dekretuak; eta 2023ko martxoaren 8ko 47 zenbakidun Bizkaiko Alderdi Ofizialean argitaratu dira.

Laugarrena. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza 3.235,00 eurokoa da.

Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea

Hilabeteko epea egongo da eskabideak aurkezteko, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

Seigarrena. — Beste datu batzuk

Zuriketa egiteko epemuga 2024ko urtarrilaren 31 izango da.

Basaurin, 2023ko martxoaren 13an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

2023ko martxoaren 13ko 1013/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Hezkuntza: Ikasleen guraso elkarteek, ikastetxeek eta ikasketa-kooperatibek egindako jarduerak» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681503.

Diru-laguntza orokorre bidezko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681503>).

Lehenengoa. — Deialdi honetako dirulaguntzen onuradunak

Udalerriko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikastetxeei; eta prestakuntza-zikloak ematen dituzten zentroei. Basauri udalerriko ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteek (IGE) eta ikasketa-kooperatibek ere aurkeztu ditzakete eskabideak, hain zuzen ere, udalerrian eskolaz kanpoko jarduerak, oro har, egiten dituztenek (antzerkia, abesbatzak, zenbait kultura jarduera...).

Bazter Utzitakoak

Ikasleentzako jarduerak egiten ez dituzten ikastetxeak, elkarteak eta beste.

Bigarrena. — Dirulaguntzaren xedea

Ikastetxeko ikasleen gurasoen parte-hartzea erraztuko duten jarduerak sustatu eta bideratzea, bai eta guraso horiek hezkuntza arloan egiten dituzten ekimenei laguntzea, baldin eta ekimen horien bidez Basauri udalerriko ikastetxeetako hezkuntzaren kalitatea hobetzeko laguntza ematen bada.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Kultura-politika eta Euskara arloko dirulaguntzak emateko Oinarriak ete Oinarri arautzaileen Eranskinak onartu ditu 2023ko otsailaren 24ko 0746/2023 Dekretuak; eta 2023ko martxoaren 8ko 47 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

Laugarrena. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 21.136,50 eurokoa da.

Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea

Hilabeteko epea egongo da eskabideak aurkezteko, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

Seigarrena. — Beste datu batzuk

Zuriketa egiteko epemuga 2024ko urtarrilaren 31 izango da.

Basaurin, 2023ko martxoaren 13an. — Alkatea, Asier Iragorri Basaguren

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

2023ko martxoaren 13ko 1018/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Hezkuntza: eskola kirola bultzatzeko» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681508.

Diru-laguntza orokorreki buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681508>).

Lehenengoa. — Deialdi honetako dirulaguntzen onuradunak

Udalerriko Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikastetxeei; eta prestakuntza-zikloak ematen dituzten zentroei. Basauri udalerriko ikastetxeetako edo ikasketa-kooperatibetako guraso elkarteek (lehen eta bigarren hezkuntza) ere aurkeztu ahalko dituzte, baldin eta ikastetxeok Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ikastolen Elkar-teak antolaturiko Eskola Kiroleko txapelketetan parte hartzen dituzten taldeak badituzte.

Bazter Utzitakoak

Ikasleentzako jarduerak egiten ez dituzten ikastetxeak, elkarteak eta beste.

Ikastetxetik kanpo egiten diren jarduerak, gehienak, eta ikasturtean zehar jarraitutasunik ez dutenak.

Bigarrena. — Dirulaguntzaren xedea

Basauri udalerriko ikastetxeetan eskola kirola bultzatzea.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Kultura-politika eta Euskara arloko dirulaguntzak emateko Oinarriak ete Oinarri arautzaileen Eranskinak onartu ditu 2023ko otsailaren 24ko 0746/2023 Dekretuak; eta 2023ko martxoaren 8ko 47 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

Laugarrena. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza 8.934,77 eurokoa da.

Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea

Hilabeteko epea egongo da eskabideak aurkezteko, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

Seigarrena. — Beste datu batzuk

Zuriketa egiteko epemuga 2024ko urtarrilaren 31 izango da.

Basaurin, 2023ko martxoaren 13an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

2023ko martxoaren 13ko 1017/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Kiro-lak: kirol-ekitaldi puntualak egitea» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681516.

Diru-laguntza orokorreki buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681516>).

Lehenengoa. — Deialdi honetako dirulaguntzen onuradunak

Kirol elkarte eta klubei, Basauriko Udalaren Elkarleen Erregistroan izena emandako erakundeei, edota udalerriko biztanleei zuzendutako jarduerak edo programak garatzen dituztenei. Hala xedatzen du Oinarri Orokorren 3.3 atalak.

Bazter utzitakoak

Ikastetxeak; kirol arlokoak ez diren elkarte zein jarduerak; eta kirol jarduerak (besteak beste) antolatzeke dirulaguntza jasotzen duten elkarteak. Azken hauei dagokienez, beraz, ezin izango dute dirulaguntzarik jaso baldin eta jarduerak dagoeneko aurreikusita badaude dirulaguntza izendunean.

Bigarrena. — Dirulaguntzaren xedea

Kirol elkarte eta klubak jarduera zehatzak sustatzea eta, horren bidez, herritarrentzako kirola bultzatzea. Era berean, kirol erakunde eta elkarteak sortzea, eta arlo horretako boluntarioria sendotzea.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Kultura-politika eta Euskara arloko dirulaguntzak emateko Oinarriak ete Oinarri arautzaileen Eranskinak onartu ditu 2023ko otsailaren 24ko 0746/2023 Dekretuak; eta 2023ko martxoaren 8ko 47 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

Laugarrena. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza 110.000,00 eurokoa da.

Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea

Hilabeteko epea egongo da eskabideak aurkezteko, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

Seigarrena. — Beste datu batzuk

Zuriketa egiteko epemuga 2024ko urtarrilaren 31 izango da.

Basaurin, 2023ko martxoaren 13an. — Alkatea, Asier Iragorri Basaguren

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

2023ko martxoaren 13ko 1016/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Hezkuntza: eskola liburutegiak edo jolastoki inklusiboak sustatzea» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681512.

Diru-laguntza orokorreki buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681512>).

Lehenengoa. — Deialdi honetako dirulaguntzen onuradunak

Udalerriko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeetako eta prestakuntza-zikloetako IGEak eta Basauriko udalerriko irakaskuntza-kooperatibak.

Bigarrena. — Dirulaguntzaren xedea

Diruz laguntzeko bi jarduera hauetako bat hautatu behar da (bateraezinak dira-eta):

1. Aukera: eskola-liburutegien sustapena

Eskolako liburutegietan irakurketa bultzatzea.

2. Aukera: patio inklusiboak

Proiektu parte-hartzaileak sustatzea, eskola-patioak dinamizatzeko eta/edo ikasteko, jolasteko eta mugitzeko espazio inklusibo bihurtzeko, bai eta kalitatezko harremanak eta esperientziak eraikitzeko ere, eskola-ordutegian zein eskola-ordutegitik kanpo, berdintasunean eta aniztasunaren (kulturala, etnikoa, sexuala, funtzionala, etab.) errespetuan oinarrituta, ikasleen eta haien familien beharrianetara eta interesetara egokituta.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Kultura-politika eta Euskara arloko dirulaguntzak emateko Oinarriak ete Oinarri arautzaileen Eranskinak onartu ditu 2023ko otsailaren 24ko 0746/2023 Dekretuak; eta 2023ko martxoaren 8ko 47 zenbakidun Bizkaiko Aldizkaro Ofizialean argitaratu dira.

Laugarrena. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza 3.235,00 eurokoa da.

Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea

Hilabeteko epea egongo da eskabideak aurkezteko, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

Seigarrena. — Beste datu batzuk

Zuriketa egiteko epemuga 2024ko urtarrilaren 31 izango da.

Basaurin, 2023ko martxoaren 13an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

2023ko martxoaren 13ko 1009/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Kultura: kultura-jarduera orokorrean» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681520.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681520>).

Lehenengoa. — Deialdi honetako dirulaguntzen onuradunak

Kultura-jarduerak, oro har (antzerkia, txapelketak, kultura-jarduerak) egiten dituzten Basauri udalerriko talde edo elkarteei.

Bazter Utzitakoak

Gurasoen talde edo elkarteak, ikastetxeak, ikasleen elkarteak, eta jarduna kulturaren eremukoa ez duen beste edozein.

Bigarrena. — Dirulaguntzaren xedea

Elkarteei laguntza eskaintzea, kultura, orokorrean, bultzatzeko xedez.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Kultura-politika eta Euskara arloko dirulaguntzak emateko Oinarriak ete Oinarri arautzaileen Eranskinak onartu ditu 2023ko otsailaren 24ko 0746/2023 Dekretuak; eta 2023ko martxoaren 8ko 47 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

Laugarrena. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza 15.000,00 eurokoa da.

Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea

Hilabeteko epea egongo da eskabideak aurkezteko, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

Seigarrena. — Beste datu batzuk

Zuriketa egiteko epemuga 2024ko urtarrilaren 31 izango da.

Basaurin, 2023ko martxoaren 13an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

2023ko martxoaren 13ko 1011/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Euskara: elkarteetan euskararen erabilera sustatzea» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681528.

Diru-laguntza orokorreki buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvencio-nes.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681528>).

Lehenengoa. — Deialdi honetako dirulaguntzen onuradunak

Elkarteen Udak Erregistroan inskribatuta dauden eta irabazi-asmorik ez duten elkarte eta taldeak.

Bigarrena. — Dirulaguntzaren xedea

Basauriko elkarten irudi publikoan euskararen erabilera sustatu eta bultzatzea.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Kultura-politika eta Euskara arloko dirulaguntzak emateko Oinarriak eta Oinarri arautzaileen Eranskinak onartu ditu 2023ko otsailaren 24ko 0746/2023 Dekretuak; eta 2023ko martxoaren 8ko 47 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

Laugarrena. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

— Banatzeko gehieneko zenbatekoa: 1.000,00 euro (500,00 euro aldi bakoitzeko).

— Diruz lagun daitekeen kontzeptu bakoitzagatik gehieneko kopurua:

A) Errotulazioa:

Euskaraz bakarrik: Diruz lagunduko da zuritutakoaren %50, epealdi bakoitzera-ko 350 euroko mugarekin.

Euskaraz eta gaztelaniaz: diruz lagunduko da zuritutakoaren %30, epealdi bakoitzera-ko 240 euroko mugarekin.

B) Irudi korporatiboa, kanpora begirako dokumentuak: eskuorriak, inprimakiak, txartelak, eta abar:

Euskaraz bakarrik: diruz lagunduko da zuritutakoaren %50, epealdi bakoitzera-ko 400 euroko mugarekin.

Euskaraz eta gaztelaniaz: diruz lagunduko da zuritutakoaren %30, epealdi bakoitzera-ko 250 euroko mugarekin.

C) Webguneak:

Euskaraz bakarrik: diruz lagunduko da zuritutakoaren %50, epealdi bakoitzera-ko 500 euroko mugarekin.

Euskaraz eta gaztelaniaz: Diruz lagunduko da zuritutakoaren %30, epealdi bakoitzera-ko 360 euroko mugarekin.

D) Enpresetan eta merkataritza-establezimenduetan euskararen normalizazioan laguntzako programa informatikoa:

Diruz lagunduko da programa informatiko bakoitzaren kostuaren %50, epealdi-ko 250 euroko mugarekin.

**Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea**

Deialdi honetan epe bi daude:

- 2022ko urriaren 1etik 2023ko ekainaren 15era bitartean euskara sustatzeko egindako jardueretarako: deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik 2023ko ekainaren 30era arte.
- 2023ko ekainaren 1etik urriaren 31ra bitartean euskara sustatzeko egindako jardueretarako: 2023ko uztailaren 1etik azaroaren 7ra arte.

Basaurin, 2023ko martxoaren 13an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

2023ko martxoaren 13ko 1019/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Euskara: Euskara Ikastaroak Egitea» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681533.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681533>).

Lehenengoa. — Deialdi honetako dirulaguntzen onuradunak

Udalerrian errolatutako 16 urtetik gorakoei.

Bigarrena. — Dirulaguntzaren xedea

Basauriarren euskalduntze eta alfabetatzea sustatzea.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Kultura-politika eta Euskara arloko dirulaguntzak emateko Oinarriak ete Oinarri arautzaileen Eranskinak onartu ditu 2023ko otsailaren 24ko 0746/2023 Dekretuak; eta 2023ko martxoaren 8ko 47 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

Laugarrena. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza 35.000,00 eurokoa da.

Dirulaguntza oro har, matrikularen %50ekoa izango da, deialdian jasotako salbuespenak salbu.

Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea

Deialdi honetan epe bi daude:

- 2022ko urriaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitartean egindako ikastaroetarako: oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren biharamunetik 2023ko uztailaren 10era.
- 2023ko udako ikastaroetarako (uztaila, abuztua, iraila) eta 2022ko urriaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitartean egindakoetarako, betiere, ez badute lehen aldian eskabidea aurkeztu: 2023ko urriaren 16ra.

Basaurin, 2023ko martxoaren 13an. — Alkatea, Asier Iragorri Basaguren

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

2023ko martxoaren 13ko 1021/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Euskara: ikastetxeetan egindako jarduerak, Euskararen Nazioarteko Eguna» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681578.

Diru-laguntza orokorre bidezko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681578>).

Lehenengoa. — Deialdi honetako dirulaguntzen onuradunak

Udalerriko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergo ikastetxeei; eta prestakuntza-zikloak ematen dituzten ikastetxeei. Era berean, eskabideak aurkez ditzakete Basauri udalerriko ikastetxe eta ikasketa-kooperatibetako guraso elkarteek (IGE).

Ikastetxe berean Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza badago, eskabide bi aurkeztu ahal izango dira, ikastetxe horiek baztertuta geratu ez daitezzen. Egiaztatu beharko da, ordea, jarduerak desberdinak izango direla (zein ikasleri zuzentzen zaizkien).

Bigarrena. — Dirulaguntzaren xedea

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko jarduerak sustatzea udalerriko ikastetxeetan. Jarduera horiek ikastetxeak berak antolatu beharko ditu, Udalak egun horretarako programatutako jarduerekin koordinatuta.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Kultura-politika eta Euskara arloko dirulaguntzak emateko Oinarriak ete Oinarri arautzaileen Eranskinak onartu ditu 2023ko otsailaren 24ko 0746/2023 Dekretuak; eta 2023ko martxoaren 8ko 47 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

Laugarrena. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza 4.500,00 eurokoa da.

Eskatzaile bakoitzak, gehienez ere, 300,00 euro eskatu ditzake.

Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 23tik azaroaren 10era izango dela.

Seigarrena. — Beste datu batzuk

Zuriketa egiteko epemuga 2024ko urtarrilaren 31 izango da.

Basaurin, 2023ko martxoaren 13an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

2023ko martxoaren 13ko 1010/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Euskara: astialdiko monitore edota zuzendari titulua edota gizarte eta kultura sustatzaile titulua lortzeko prestakuntza euskaraz egitea» diru laguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681598.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681598>).

Lehenengoa. — Deialdi honetako dirulaguntzen onuradunak

Udalerrian erroldatutako gazteak.

Bigarrenena. — Dirulaguntzaren xedea

Astialdiko begirale edo zuzendari titulua edota gizarte eta kultura sustatzaile titulua lortzeko prestakuntza euskaraz egitea sustatzea.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Kultura-politika eta Euskara arloko dirulaguntzak emateko Oinarriak ete Oinarri arautzaileen Eranskinak onartu ditu 2023ko otsailaren 24ko 0746/2023 Dekretuak; eta 2023ko martxoaren 8ko 47 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

Laugarrena. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza 2.000,00 eurokoa da.

Oro har, diruz laguntzeko zenbatekoa ezingo da izan ikastaroko matrikularen %50 baino altuagoa.

Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren biharamunetik 2023ko urriaren 31ra arte izango dela.

Basaurin, 2023ko martxoaren 13an. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

2023ko martxoaren 13ko 1020/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Euskara: euskararen erabilera sustatzea enpresetan eta merkataritzan» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681594.

Diru-laguntza orokorre bidezko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681594>).

Lehenengoa. — Deialdi honetako dirulaguntzen onuradunak

Merkataritza- eta ostalaritza-establezimendu iraunkorrei —egoitza Basaurin izan, eta herrian jarduten dutenei—. Eta, salbuespenez, egoitza soziala beste udalerrri batzuetan izan, baina enpresa garatzeko proiektuan kokapena Basaurin izatea aurreikusita daukaten establezimenduei.

Egoitza edota zerga-egoitza Basauri udalerrian duten merkataritza-sozietate eta kooperatibei. Eta, salbuespenez, egoitza soziala beste udalerrri batzuetan izan, baina enpresa garatzeko proiektuan kokapena Basaurin izatea aurreikusten dutenei.

Bazter utzitakoak

Oinarri hauetan ezarritako dirulaguntzen onuradunak izan daitezkeen erakundeei zerbitzuak ematen dizkieten merkataritza-sozietateak eta kooperatiba-sozietateak.

Eta beren helburu sozialen artean Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 826 eta 933.3 atalei —hizkuntzen irakaskuntzaren arloan— eta 774 eta 849.3 atalei —itzulpen zerbitzua eta antzekoak— dagozkien jarduerak dauzkaten merkataritza-sozietateak eta kooperatiba-sozietateak.

Era berean, deialditik kanpo geratzen dira administrazio publikoen parte-hartzea duten merkataritza-erakundeak.

Bigarrena. — Dirulaguntzaren xedea

Udalerriko merkataritza-eremuan euskararen erabilera sustatzea, hedatzea edo normalizatzea.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Kultura-politika eta Euskara arloko dirulaguntzak emateko Oinarriak eta Oinarri arautzaileen Eranskinak onartu ditu 2023ko otsailaren 24ko 0746/2023 Dekretuak; eta 2023ko martxoaren 8ko 47 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

Laugarrena. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

- Banatzeko gehieneko zenbatekoa: 9.800,00 euro (4.900,00 euro aldi bakoitzeko).
- Diruz lagun daitezkeen kontzeptu bakoitzagatik gehieneko kopurua:

A) Errotulazioa:

Euskaraz bakarrik: diruz lagunduko da zuritutakoaren %50, epealdi bakoitzeko 350 euroko mugarekin.

Euskaraz eta gaztelaniaz: diruz lagunduko da zuritutakoaren %30, epealdi bakoitzeko 240 euroko mugarekin.

B) Irudi korporatiboa, kanpora begirako dokumentuak: eskuorriak, inprimakiak, txartelak, eta abar:



Euskaraz bakarrik: diruz lagunduko da zuritutakoaren % 50, epealdi bakoitze-rako 400 euroko mugarekin.

Euskaraz eta gaztelaniaz: diruz lagunduko da zuritutakoaren % 30, epealdi bakoitzerako 250 euroko mugarekin.

C) Webguneak:

Euskaraz bakarrik: diruz lagunduko da zuritutakoaren % 50, epealdi bakoitze-rako 500 euroko mugarekin.

Euskaraz eta gaztelaniaz: diruz lagunduko da zuritutakoaren % 30, epealdi bakoitzerako 360 euroko mugarekin.

D) Enpresetan eta merkataritza-establezimenduetan euskararen normalizazioan laguntzako programa informatikoak:

Diruz lagunduko da programa informatiko bakoitzaren kostuaren % 50, epeal-diko 250 euroko mugarekin.

Diruz lagundutako jarduerak, Basaurin kokatutako establezimenduaz gain, beste udalerrri batzuetan kokatutako merkataritza-establezimenduentzat ere onuragarriak izango badira, Basaurin kokatutakoei dagokien dirulaguntzaren ehunekoa baino ez da emango.

Bosgarrena.— Eskabideak aurkezteko epea

Deialdi honetan epe bi daude:

— 2022ko urriaren 1etik 2023ko ekainaren 15era bitartean euskara sustatzeko egin-dako jardueretarako: deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik 2023ko ekainaren 30era arte.

— 2023ko ekainaren 1etik urriaren 31ra bitartean euskara sustatzeko egindako jar-dueretarako: 2023ko uztailaren 1etik azaroaren 7ra arte.

Basaurin, 2023ko martxoaren 13an.—Alkatea, Asier Irigorri Basaguren

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

2023ko martxoaren 13ko 1012/2023 Alkatetza Dekretuaren laburpena: «Euskara: gidabaimena lortzeko azterketa euskaraz egitea» dirulaguntzarako 2023ko deialdia (Kultura-politika eta Euskara Arloa). BDNS (Identif.): 681590.

Diru-laguntza orokorreki buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681590>).

Lehenengoa. — Deialdi honetako dirulaguntzen onuradunak

17 eta 23 urte arteko gazteak (hau da, 2000-2006 bitartean jaioetakoak), basaurin erroldatuak, gidabaimena lortzeko azterketa euskaraz egin dutenak 2022ko irailaren 1etik, 2023ko deialdiko eskabideak aurkezteko azken egunera bitartean.

Bigarrena. — Dirulaguntzaren xedea

Udalerriko merkataritzan euskararen erabilera zabaltzeko edo normalizatzea; eta, era berean, bultzatzea udalerriko gazteek gidabaimena lortzeko prestakuntza euskaraz egitea.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Kultura-politika eta Euskara arloko dirulaguntzak emateko Oinarriak eta Oinarri arautzaileen Eranskinak onartu ditu 2023ko otsailaren 24ko 0746/2023 Dekretuak; eta 2023ko martxoaren 8ko 47 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

Laugarrena. — Dirulaguntzaren zenbatekoa

— Dirulaguntza 3.500,00 eurokoa da.

— Eskatzaileak 100 euro jasoko ditu, teoria azterketa euskaraz egitearren.

Dirulaguntzak eman eta gero partidaren dirua geratu bada, 100 euroko saria zozkatuko da dirulaguntza jaso dutenen artean, gasolina erosteko udalerriko gasolindegietan. Partida agortu arte, ahal beste sari zozkatuko dira. Dirulaguntza jaso duen gazte bakoitzak sari bakarra jaso ahal du.

Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren biharamunetik 2023ko urriaren 31ra arte izango dela.

Seigarrena. — Beste datu batzuk

Dirulaguntzaren zuriaketak bat egin behar duela eskabideari erantsi beharreko fakturaren jatorrizkoaren aurkezpenarekin.

Sarien kasuan zurrizteko azken eguna 2024ko abuztuaren 1 izango da.

Basaurin, 2023ko martxoaren 13an. — Alkatea, Asier Irigarri Basaguren

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Derioko Udala****Alkatearen ordezkapena Alkatetzako Dekretua 84/2023**

2023ko martxoaren 10eko 84/2023 zenbakiko Alkatearen Dekretuz, nire karguari dagozkion funtzio guztien ordezkari izendatzea, Lehenengo Alkateordea den Nekane Aiarza Zallo andrea, 2023ko martxoaren 15etik 20ra arte, egun biak barne.

Ebazpen honek amaiera ematen dion administrazio bideari, baina bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da administrazio-organo beraren aurrean, hilabeteko epean, berau jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39 (2015) 123.1 eta 124.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera. Bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa ere jarri ahal izango da egoki den Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean, berau jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautu duen uztailaren 13ko 29/1998 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Hori gorabehera, interesdunek egoki irizten dituzten beste errekurtso guztiak ere ezarri ahal izango dituzte.

Derion, 2023ko martxoaren 13an.—Idazkaria

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Derioko Udala**

Behin betiko onarpena, Zeroetxe plazako 5. zenbakian dagoen partzelaren erabilera eta antolamendu xehatua aldatzeko Plan Berezia behin betiko onartzea.

Korporazio honetako Osoko Bilkurak, 2023ko otsailaren 28an egindako ohiko ekitaldian, eta, aldeko 7 botoekin (7 EAJ-PNVk), eta, kontrako 3 (3 EH-Bilduk) eta abstentzio 3 botoekin (3 SV-ESk), besteak beste, honela dioen ebazpena erabaki zuen:

Lehenengoa: Zeroetxe Plazako 5. zenbakian dagoen Partzelaren Erabilera eta Antolamendu Xehatua Aldatzeko Plan Berezia behin betiko onartzea.

Bigarrena: Behin betiko onartutako Plan Berezia bidaltzea Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza Plangintzaren Erregistroari.

Hirugarrena: Plana onartu eta hamabost eguneko epean Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta dagokion lurralde historikoan zabalkunderik handiena duen egunkarian edo egunkarietan honako dokumentazioa hau argitaratzea:

- Plana onartzen duen ebazpena eta organo substantiboak plan horren eduki osoa jendearen eskura jarriko duen helbide elektronikoaren erreferentzia.
(www.derikoudala.net).
- Ingurumen txosten estrategikoa argitaratu duen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren erreferentzia.

Halaber, hirigintza arauak eta lizentziak eteteko eta kentzeko erabakiak argitaratzea, dagokion hirigintza plana, Hirigintza Plangintzaren erregistroan hirigintza-plana gordailutua dela adierazita.

Derion, 2023ko martxoaren 13an. — Alkatea, Esther Apraiz Fernández La Peña

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durangoko Udala**

2023ko martxoaren 14ko 2023/0477 Ebazpenaren laburpena, Durangon gazteek alokairuko etxebizitzak eskuratzeko diru laguntzak deitzen dituenak. BDNS (Identif.): 681663.

Diru-laguntza orokorreki buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681663>).

Lehenengoa. — Onuradunak

Indarrean dagoen aurrekontu-ekitaldiaren kargurako laguntzen onuradunak oinarri hauek argitaratzen diren egunean eta diruz lagundu daitekeen epean Ordenantzako 5. artikuluan modu orokorrean zehaztutakoa eta ondorengo baldintza zehatzak betetzen dituztenak izango dira:

- a) Gazte emantzipatuak, 18 eta 35 urte bitartekoak, aldi berean alokairu-kontratu baten titularrak direnak. Ezin da logelarik berrakuratu.
- b) Kide batek ere ez izatea bere jabetzako etxebizitzarik. Salbuespena izango da herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza baten edo batzuen titularkide izatea, baina baldin eta titularkidetasun horren portzentaje batek ere ez badu %50 gainditzen eta etxebizitza-partaidetzen balioa 75.000 eurotik gorakoa ez bada. Eskatzailearen ardura izango da ondasunen balioaren egiaztatzea (jabetzan dituen ondasunen tasazioa egitea).
- c) Onuradunek ezin izango dute, aldi berean, alokairu kontzeptuagatik beste inongo laguntzaren onuradunak izan, diruz lagundu daitekeen epean. d) Onuradunek diruz lagunduko den etxebizitzan erroldatuta egon behar dute. Horrez gain, Durangoko udalerrian egon beharko dira erroldatuta, gutxienez 2 urteko etenik gabeko antzinatasunarekin, eskaera aurkezten den unean, edo, behintzat, etenik gabe 5 urtez udalerrian erroldaturik egon izanak.

Diruz lagundu daitekeen epean, kontratuaren titularrak eta beraien kargura dau-
den adin txikikoak baino ezin izango dira egon etxebizitzan erroldatuta. Erroldan
altak edo bajak badaude, behar bezala justifikatuta egon beharko dute, eta da-
gokion titulartasun aldaketa jasota geratu beharko da etxebizitza horren alokai-
ru-kontratuan.

Kontratua hasi baino lehenagoko datarekin, kontratuaren titularrak ez diren
pertsonak etxebizitzan erroldatuta baleude, kontratuaren titularrek erroldako
baja-eskaera egin beharko dute pertsona horientzat, diruz lagundu daitekeen
epearen barruan. Borondatezko baja pertsonalik ez da onartuko.

- e) Diru-laguntzen onuradunen diru-sarrerak ezin izango dira 25.000,00 euro gordin baino gehiago izan urtean. Urteko diru-sarrera gordintzat jotzen da pertsona fisi-
koen errentaren gaineko zergaren zerga oinarri orokorra gehi lan etekinei aplika-
tutako hobariak, bai eta zergagarria ez den beste edozein diru-sarrera ere.
- f) Diru-sarreraren osaketari dagokionez, betetako azken zerga-ekitaldiko kapital
errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa ezin izango da izan
601,10 eurotik gorakoa urteko.
- g) Diru-laguntzen onuradunek Durangoko Udaleko eta beste edozein administrazio
publiko batzuen zerga, tasa, ariel eta zehapenak ordainduta izan behar dituzte.
- h) Etxebizitzan bizi diren pertsonen artean ezin izango da egon inongo lotura fami-
liarrik onuradunen eta errentatzailearen artean, odolkidetasun edo ahaidetasu-
neko bigarren mailaraino.

**Bigarrena. — *Diru-laguntza ematearen xedea***

Laguntza hauen xedea da ohiko egoitza gisa alokairuko etxebizitza duten 18 eta 35 urte bitarteko gazteen alokairu gastuak diruz laguntzea.

Hirugarrena. — *Oinarri-araupetzaileak*

Udalak, 2021eko abenduaren 20an egindako osoko bilkuran, 2022-2024 aldiko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen. Oinarri horiek, deialdi hau eta eredu normalizatuak Durangoko Udalaren web orritik jaitsi ahal izango dira: (www.durango.eus/dirulaguntzak).

Laugarrena. — *Zenbatekoa*

- Kopuru osoa: 70.000 euro.
- Aurrekotu partida: 41.3340.48101.

Bosgarrena. — *Eskariak aurkezteko epea eta lekua*

Eskariak aurkezteko epea 20 egun baliodun, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskaerak aurkezteko bi bide daude:

- On-line. Durangoko Udaleko egoitza elektronikoaren bitartez. Horretarako, baliodun agiri elektronikoa izan beharko du eskatzaileak
- Presentzialki Durangoko Udaleko erregistro orokorren.

Edozein galdera edo zalantza argitzeko hurrengo helbide elektronikora idatzi daiteke: (gazteria@durango.eus).

Durangon, 2023ko martxoaren 14an. — Alkateordea, Julian Rios Santiago

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durangoko Udala**

2023ko martxoaren 14ko 2023/0482 Ebazpenaren laburpena, 2023ko Julene Azpeitia literatur saria deitzen duena. BDNS (Identif.): 681677.

Diru-laguntza orokorreko buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/681677>).

Lehenengoa. — Onuradunak

Lehiaketak hiru sail izango ditu: ipuinak, olerkiak eta bertsoak. Eta bost kategoriatan sail bakoitzean: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak; Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak; Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleak; Batxilergo eta Lanbide Heziketako maila ertaineko ikasleak; 18 urtetik gorakoak. Lehen 4 kategorietan Durangoko eskolatan ikasten ari diren umeei eta gazteei har dezakete parte eta, halaber, beste herrietako eskolatan ikasten ari diren ume eta gazte durangarrak ere aurkeztu daitezke. 5 kategorian, aldiz, edonork har dezake parte.

Ipuinak

- LHko 5. eta 6. maila. Luzera: 1-3 orrialde artekoa. Saria: liburu sorta - DBHko 1. eta 2. maila. Luzera: 2-4 orrialde artekoa. Saria: liburu sorta.
- DBHko 3. eta 4. maila. Luzera: 3-6 orrialde artekoa. Saria: 150 euro.
- Batxilergo eta Lanbide Heziketako maila ertaina. Luzera: 4-7 orrialde artekoa. Saria: 200 euro.
- 18 urtetik gora. Luzera: 4-8 orrialde artekoa. Saria: 600 euro (PFEZ barik).

Olerkiak

- LHko 5. eta 6. maila. Luzera: 10-20 lerro. Saria: liburu sorta.
- DBHko 1. eta 2. maila. Luzera: 20-30 lerro. Saria: liburu sorta.
- DBHko 3. eta 4. maila. Luzera: 30-40 lerro. Saria: 150 euro.
- Batxilergo eta Lanbide Heziketako maila ertaina. Luzera: 40-50 lerro. Saria: 200 euro.
- 18 urtetik gora. Luzera: 50-70 lerro. Saria: 300 euro (PFEZ barik).

Olerkietan, olerki bat edo olerki sorta aurkeztu ahal izango da, adin-tarte bakoitzean bere neurrikoa.

Bertsoak/Koplak

- LHko 5. eta 6. Maila. Luzera: 3 bertso edo 6 koplak. Saria: liburu sorta.
- DBHko 1. eta 2. Maila. Luzera: 4 bertso edo 8 koplak. Saria: liburu sorta.
- DBHko 3. eta 4. maila. Luzera: 5 bertso edo 10 koplak. Saria: 150 euro.
- Batxilergo eta Lanbide Heziketako maila ertaina. Luzera: 6 bertso. Saria: 200 euro.
- 18 urtetik gora. Luzera: 8 bertso. Saria: 300 euro (IRPF barik).

Indarrean dagoen legediak ezartzen duena aintzat hartuta, 300 eurotik gorako sariak PFEZren %19ko atxikipena izango dute. Akzesitak Ezarritako sarietaz gain, epaimahaiak akzesitak ematea proposatu dezake. Horrela balitz, saria liburu-sorta bat izango litzateke.

**Bigarrenena. — *Diru-laguntza ematearen xedea***

Lehiaketaren xedea da euskaraz idazteko zaletasuna sustatzea eta indartzea eta, aldi berean, lan sarituak argitara ematea. Alde batetik, Durangoko eskoletan ikasten ari diren ume eta gazteei (11 urtetik 18ra bitartekoak) zuzenduta dago, eta baita ere beste herrietako eskoletan ikasten ari diren ume eta gazte durangarrei. 18 urtetik gorako sarietara, oster, edonor aurkez daiteke.

Hirugarrena. — *Oinarri araupetzaileak*

Deialdi hau Durangoko Udalak 2021eko abenduaren 20ko osoko bilkuran onartutako 2022-2024ko diru-laguntzen plan estrategikoan jasota dago.

Laugarrena. — *Zenbatekoa*

- Kopuru osoa: 3.500 euro.
- Aurrekontu partida: 61.3350.48101.

Bosgarrena. — *Eskariak aurkezteko epea*

Eskariak aurkezteko azken eguna: 2023ko apirilaren 27a.

Durangon, 2023ko martxoaren 14an. — Alkateordea, Julian Rios Santiago



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Eako Udala

Euskara, musika eta bestelako ikasketak burutzeko eta kiroldegietara eta haurreskolara joateko diru laguntzak. 2023ko deialdia.

Udalbatzak 2023ko otsailaren 28an egindako ohiko osoko bilkuran euskara, bestelako ikasketak, kiroldegietara eta haurreskolara joateko diru-laguntzak jasotzeko 2023 ekitaldirako 1. deialdia eta oinarri arautzaileak onartu ditu.

Ean, 2023ko martxoaren 2an.— Alkateak, Iratxe Arriola Alzola

**EUSKARA, MUSIKA ETA BESTELAKO IKASKETAK BURUTZEKO ETA KIROLDEGIETARA
ETA HAURRESKOLARA JOATEKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK****1. Oinarri arautzaileen xedea**

Oinarri-deialdi honen xedea Eako herritarrak kiroldegietara joateko, euskara ikastaroak egiteko, musika ikastaroak egiteko eta bestelako ikastaroak egiteko eta Eako haurreskolara joateko matrikula eta abonuetarako laguntzen baldintzak arautzea da; Eako diru-laguntzak emateko udal Ordenantzan jasotakoaren arabera eta Eako Udalean onartutako Diru-laguntzen Plan Estrategikoan jasotakoaren arabera.

2. Aurrekontua

2.1. Eako Udalak 12.900,00 euroko aurrekontua izango du xede honetarako.

Kasuan kasu, eskaerak aztertuta, deialdi honetan aurreikusitako kopurua gaindituko balitz, eskaeren kopuruaren eta, deialdiaren arabera, erabilgarri dagoen kopuruaren diferentzia proportzionalki kalkulatu da diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten eskatzaile guztien artean.

2.2. Diru-laguntzen xedearen barruan atal ezberdinak aurrikusten direnez, atal bakoitzaren kopurua jarraian zehazten da:

- 1 Motako diru-laguntzen kopuru osoa (kiroldegia) 3.000,00 eurokoa izango da.
- 2 Motako diru-laguntzen kopuru osoa (euskara ikasteko) 1.500,00 eurokoa izango da.
- 3 Motako diru-laguntzen kopuru osoa (bestelako ikastaroak eta haurreskola) 8.400,00 eurokoa izango da.

3. Diruz lagunduko diren ikastaroak, kopurua, baldintzak eta diru-laguntzaren xedea

3.1. Diru-laguntzen helburua, Eako herritarrei, kirol jardueretan parte hartzea, musika ikasketak sustatzea, euskara ikasketak bultzatzea eta hezkuntzan (haurreskola) ekonomikoki laguntzea da.

3.2. Diruz lagunduko diren ikastaroak eta kopurua.

- 1 Mota: herritik kanpo aurkitzen diren Udal Kiroldegia.

Diru-laguntza honetarako kopurua zehazteko, Eako udalerrian eskaintzen ez diren kirol aktibitateetarako, abonuetan, erroldatu eta ez-erroldatuen arteko diferentzia kalkulatu da.

- 2 Mota: euskara ikasketak erakunde ofizialetan.

Euskara ikastaroak:

Diru-laguntzaren kopurua matrikularen %100a izango da.

Beti ere, kopuru hori baldintzatuta/mugatuta egongo da hurrengo azpi-mugara:

- Urtean 700,00 euroko muga gehienez (matrikulatu nahi duen ikastaro guztien kopurua kontuan hartuz).

- 3 Mota: bestelako ikasketak eta Eako Haurreskola.

Bestelako ikasketak: Diru-laguntza honetarako kopurua zehazteko, Eako udalerrian eskaintzen ez diren ikastaroetarako, abonuetan, erroldatu eta ez-erroldatuen arteko diferentzia kalkulatu da.

Haurreskola: Diru-laguntza Eako Haurreskolan, umea matrikulatzen duten familientzat, %100ekoa izango da.

4. Onuradunak

Onuradunak, deialdi hau argitaratzen den eguna baino sei hilabete lehenagotik Ean erroldatuta eta hurrengo artikuluan jasotzen diren baldintzak betetzen dituztela ziurtatzen duten agiriak aurkeztuta, edo betetzen dituztela ziurtatzen duen erantzunkizun-aitorpena aurkeztzen duten pertsonak izango dira.

**5. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak****5.1. Eskatzailearen baldintzak:**

- 1 Motako laguntzak jaso nahi dituzten eskatzaileek, herritik kanpo dagoen Kiroldelgi batean matrikulatzea edo zinpeko aitortpenarekin idatzi bat aurkeztea matrikulatuko dela esanez (aurrez izapidetzeko kasuetarako).
- 2 Motako eskatzaileen kasuan, Euskal Autonomi Erkidegoko edozein hizkuntza eskola ofizial, euskaltegi edo barnetegian matrikulatzea eta gutxienez ikastaroaren iraupenaren %70ko asistentzia edo aprobetxamendua izatea edo zinpeko aitortpenarekin idatzi bat aurkeztea matrikulatuko dela esanez (aurrez izapidetzeko kasuetarako).
- 3 Motako eskatzaileen kasuan, Euskal Autonomi Erkidegoko edozein musika eskolatan matrikulatzea eta gutxienez ikastaroaren iraupenaren %70ko asistentzia edo aprobetxamendua izatea edo zinpeko aitortpenarekin idatzi bat aurkeztea matrikulatuko dela esanez (aurrez izapidetzeko kasuetarako).

Laguntzak jaso nahi dituzten eskatzaileek, Eako Haurreskolan matrikulatzea edo zinpeko aitortpenarekin idatzi bat aurkeztea matrikulatuko dela esanez (aurrez izapidetzeko kasuetarako).

5.2. Aurkeztutako eskaera edo atxikitako dokumentazioa osatugabea balego edo konpongarria den beste akatsen bat balego, eskatzaileari 5 laneguneko epea eman-go zaio akatsak konpondu edo falta den dokumentazioa aurkezteko, eskakizuna egiten zaion egunaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta horrela egingo ez balu, eskaera bertan behera geratuko litzatekeela jakinaraziz.

6. Deialdia. Eskaerak aurkezteko epea

Deialdia ireki ondoren eskabideak eta dokumentazio osagarria aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

7. Beharrezko dokumentazioa

- a) Eskaera behar bezala beteta. Eskaera orria Eako Udaletxean eta www.eakouda-la.net webgunean egongo da.
- b) NA fotokopia.
- c) Erantzunkizun-aitortpena Diru-Laguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan jasotakoaren arabera, eskatzaileak udal diru-laguntzak jasotzeko debeku edo ezintasun egoera batean aurkitzen ez dela adieraziz.
- d) Eskatzaileak egindako matrikularen, abonuaaren edo zerbitzua eskaintzen duen Erakundearen ziurtagiriaren fotokopia, eskatzaileak zerbitzua jasotzen duela egiaztatzen duena.

Baldintza hau betetzeko, ordezkio agiri modura, erantzunkizun-aitortpena jasotzen duen idatzia aurkeztu ahalko da diruz laguntzeko ikastaroa jasoko dela adieraziz aurretiazko ordainketen kasuan.

Eskatutako dokumentuak Udaletxean balitu, eskatzaileak, betiere, dagokion amaitutako prozeduratik, bost urte pasa ez balira, eskatutakoa ez aurkezteko eskubidea izango du, non eta zein eskudun organoren aurrean aurkeztu ziren data adierazten badu.

8. Ordainketa eta justifikazioa

8.1. Diru-laguntzaren kopurua eskaeran jasotako kontu zenbakian ingresatuko da.

8.2. Eskatzailearen betebeharrak-justifikazioa:-

- Beharrezko dokumentazioa atalean zehaztutako dokumentazioa behar bezala egiaztatzea.
- Matrikula ordaintzea.



- Euskara ikastaroen, barnetegien, gainerako hizkuntzen eta bestelako ikastaroaren ordu guztien %80 aprobetxatzea. Ez dira kontuan hartuko justifikante ofizialen birtatez egiaztatutako hutsegiteak.
- Xede bererako beste diru-laguntzarik ez jasotzea.
- Udal zergen betebeharretan egunean egotea.

Aurkeztutako justifikazio dokumentu guztiek laguntza emandako urte barruko data izan beharko dute.

9. Administrazio-bidearen amaiera

Diru-laguntzaren ebazpenak administrazio-bidea agortzen du eta Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Arrunten Araubide Juridikorako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123.artikuluari, eta hurrengoetan, jasotakoaren arabera beharrezko errekurtsoak jarri ahal izango dira.

10. Jakinarazpen eta argitalpenerako bideak

Ebazpen eta jakinarazpenak egiteko, eskatzaileak horretarako zehaztutako bidea erabiliko da Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Arrunten Araubide Juridikorako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.artikuluari, eta hurrengoetan, jasotakoaren arabera.

11. Diru-laguntza bueltatzea

Jasotako diru-laguntza udalaren kuxara bueltatu beharko da, jarraian zehazten den kasuetan, eta diru-laguntza eman zen unetik bueltatzea eskatzen zaion arte, dagozkion atzerapenen interesekin:

- a) Diru-laguntza eskatutako xederako ez erabiltzea.
- b) Beharrezko baldintzak bete gabe, diru-laguntza jasotzea.
- c) Onuradunari egotzitako arrazoiengatik, deialdi honetan zehaztutako betebeharrak ez betetzeagatik.
- d) Ikastaroaren gastu erreala kontuan hartuz gehiegizko finantzaketa; kasu honetan gerakinaren kopurua bueltatu beharko da.
- f) Beste erakunde batzuen, publiko zein pribaturen, laguntzagatik edo diru-laguntzengatik, gehiegizko finantzaketa izatea; kasu honetan eskatzaileak Eako Udalak emandako diru-laguntzatik, finantzatutako kopuru osoaren proportzioari dagokion zatia bueltatu beharko du.
- g) Ebazpenean onuradunari diru-laguntza jasotzeko ikastaroa burutzeko modu edo proiektuaren exekuzioan, ezarritako betebeharrak eta baldintzak ez betetzeak. Kasu honetan, ez betetzeen larritasuna kontuan hartuko da bueltatzeko kopurua zehazteko, berdintasun eta proportzionaltasun printzipioak jarraituz.

Bueltatzeko kopurua zehazteko, guztia edo zati bat, berdintasun eta proportzionaltasun printzipioak hartuko dira kontuan, eta horretarako, kasu bakoitzaren egoera aztertuko da.

Bueltatzea eskatzeko ebazpena Eako Udaleko Osoko Bilkurak emango du.

Bueltatzeko espedienteak azaroaren 17ko, Diru-Laguntzen 38/2003 Lege Orokorreko 36-43 artikuluetan jasotakoaren arabera; Azken Xedapenarekin bat etorrira; 887/2006 Errege Dekretuaren 91-94 artikuluetan jasotakoaren arabera eta Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Arrunten Araubide Juridikorako urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera egingo da.



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Etxebarriko Udala

Lan Eskaintza Publikoa

2023ko martxoaren 13 datan, 0232-2023 Alkatetza Ebazpenaren bidez, zera erabaki da:

2022ko urriaren 4 datan, 0872-2022 Alkatetza Ebazpenaren bidez, merezimendu lehiaketaren deialdia egin zela Arlo Soziokulturalako (euskara normalizazioa) Teknikari plaza ba hornitzeko, Udalaren lanpostu-zerrendan hutsik daudela.

Eskaerak aurkezteko epea bukatuta, eta deialdiaren zortzigarren oinarriaren arabera, honen bidez

EBAZTEN DUT:

1. Ebazpen hau Udalaren iragarki oholean eta Udalaren egoitza elektronikoan argitaratzea, izangai onartuen behin betiko zerrendarekin batera. Hona hemen:

Onartuak / Admitidos/as

NAN / DNI	Izen-abizenak / Nombre-apellidos
****9009	BARROSO GONZALEZ DE ARRILUZZA, LORENA
***4348*	IDIAKEZ SORAZU, AITOR
****4694	LAUZIRIKA ERKIAGA, DANIEL
*2317***	URIARTE TOTRIKAGUENA, AINHOA
3152	ZUAZO URKAREGI, LEIRE
***9065*	ZUNTZUNEGI LEGARRETA, IZASKUN

Baztertutak / Excluidos/as

NAN/DNI	Izen-abizenak / Nombre-apellidos	Baztertzeko arrazoia / Causa de exclusión
****9369	ARANZABAL NARBAIZA, USUE	Ez du aurkezten eskatutako dokumentazioa (oinarrietako 7.6 art.) No aporta documentación requerida (artículo 7.6. de las bases)
*2753***	ECHEVARRIA GONZALEZ DE GARIBAY, LUIS JAVIER	Ez du aurkezten eskatutako dokumentazioa (oinarrietako 7.6 art.) No aporta documentación requerida (artículo 7.6. de las bases)
*8945***	FRESCO PEREZ, VANESA	Ez du aurkezten eskatutako dokumentazioa (oinarrietako 7.6 art.) No aporta documentación requerida (artículo 7.6. de las bases)
*6071***	GONZALEZ GURIDI, ITXARO	Ez du aurkezten eskatutako dokumentazioa (oinarrietako 7.6 art.) No aporta documentación requerida (artículo 7.6. de las bases)
8991	HORNILLOS JURADO, AMAIA	Ez du aurkezten eskatutako dokumentazioa (oinarrietako 7.6 art.) No aporta documentación requerida (artículo 7.6. de las bases)
***6721*	IRUARRIZAGA AURTENETXE, MARIA	Ez du aurkezten eskatutako dokumentazioa (oinarrietako 7.6 art.) No aporta documentación requerida (artículo 7.6. de las bases)
3170	ODRIOZOLA GOIKOLEA, NAIA	Ez du aurkezten eskatutako dokumentazioa (oinarrietako 7.6 art.) No aporta documentación requerida (artículo 7.6. de las bases)

2. Hautapen Epaimahaiak erabakiko du izangaiek frogatutako merezimenduen balorazioa, eta horretarako 10 egun naturaleko epea izanen da, iragarki hau argitaratzen denetik hasita.

3. Ebazpen hau argitaratzea Udaletxeko egoitza elektronikoan.

Etxebarrin, 2023ko martxoaren 13an. — Alkatea, Loren Oliva

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Galdakaoko Udala****UECR9 unitatearen Birpartzelazio Proiektuaren hasierako onespina**

Jendaurrean jartzen da martxoaren 4ko 456/2023 Alkatetza Ebazpenaren bidez, UECR9 unitatearen Birpartzelazio Proiektuari hasierako onespina eman zaiola.

Jendaurrean jarri da 20 egunez. Espedientea Udaleko Hirigintza Arloan dago kontsultatzeko.

Galdakaon, 2023ko martxoaren 7an.—Hirigintzako Zinegotzi Delegatua, Asier Egui-raun Iturbe-Ormaeche

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gernika-Lumoko Udala****Lanpostuen Zerrenda eta Udal Plantilla Organikoaren aldaketa puntuala onartzea.**

Udalbatzak 2023eko otsailaren hogeita zortzian zera,

ERABAKI ZUEN:

Lehenengoa: Gernika-Lumoko Udalaren lanpostuen zerrenda aldatzea erabakitzea, honako xehetasun hauen arabera:

1. TAG Kontratazioa eta Ondarea lanpostuaren behin-behineko balorazioa (A1 azpitaldea):
 - ZO*: 24.
 - BO*: 26.615,62 euro.

** Berrikusi beharreko behin-behineko balorazioa*

Bigarrena: Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta udalaren web-gunera bidaltzea, publizitate aktiboaren arloan udalak dituen betebeharrak betez.

Hirugarrena: Udaleko plantilla organikoa aldatzea, administrari lanpostuari (C1 azpitaldea) dagokion lanpostu gehigarri bat gehituz eta esleituz, gainontzeko dotazioak dauzkan baldintza bernekin, eta jendaurrean jartzea, bai eta aurrekontua onartzeari dagokion gainerako tramiteak ere.

Gernika-Lumon, 2023eko otsailaren 28an. — Alkatea, José María Gorroño Etxebarrieta

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Plentziako Udala****Plentziako Udaleko Iragarkia, 2023. urteko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren kobrantzari buruzkoa.**

Martxoaren 8ko 105/2023 Alkatetza Dekretuaren bidez onartu da 2023 ekitaldiari dago-kion Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren Errolda Fiskala, eta argitara eman da Zergen Lege Orokorrean eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezartzen den beza-la. Hamabost eguneko epea zabalduko da iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argi-taratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horrela, interesdunek espedienteaz aztertu ahalko dute, eta egokitzeak jotzen dituzten erreklamazioak egin ahalko dituzte.

Era berean, zerga hau ordaindu behar duten udalerri honetako bizilagunei jakinaraz-ten zaie ordainketa ondoren azaltzen diren modu, epe eta tokietan egingo dela.

1. Ordainketa borondatezko epean, gainordainik gabe*Ordaintzeko epea*

Zergaren zenbatekoa gainordainik gabe ordain daiteke aurtengo 2023ko apirilaren 17tik maiatzaren 26ra arte, biak barne.

Ordaintzeko tokia eta modua

- Helbideratu gabeko ordainagiriak. Edozelan ere, etxera bidalitako inprimaki-sorta aurkeztu beharko da ondorengo banketxeetan: Kutxabank, Laboral Kutxa, La Cai-xa, Nire Ordainagiriak.
- Helbideratutako ordainagiriak. Zergaren ordainketa banku-erakunde zehatz ba-tean egiteko eskatu duten zergaren jabeek horretarako ezarritako kontuan zordun-duko zaie ordainagiria 2023ko maiatzaren 26an.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Bilketari buruzko Araudian ezarritakoaren arabera, zerga honetako zergadunek euren ordainagiriak helbideratu ahalko dituzte. Horretarako, beharrezko jarraibideak eman beharko dizkiote banku-erakundeari, eta azken horrek Uda-lari jakinarazi beharko dio nahitaez. Helbideratzea Udaletxean bertan ere egin dezakete.

2. Jakinarazpenak

Plentziako Udalak inprimaki-sorta bat bidaliko die zergadunei etxera, eta horien bidez ordainketa egin ahalko dute borondatezko epea amaitu baino lehen ondorengo banke-txeetan: Kutxabank, Laboral Kutxa, La Caixa eta Nire Ordainagiriak. Inprimaki-sorta ez jasotzekotan edo berau galtzekotan, inprimaki-sortaren kopia bat emango zaie ordainke-ta banku-erakundeetan egin dezaten.

3. Ordainketa epe exekutiboan, gainordainarekin

Borondatezko ordainketa egiteko epea igarota, zuzenean ordainduko da premiamen-du-bidez, dagokion gainordainarekin eta lege eskatu daitezkeen berandutzagatikote inte-resak, gastuak eta kostuak gehituta, Derrigorrezko Diru Bilketarako Bulegoetan bakarrik.

4. Inpugnazio-bideak

Interesdunek berraztertze errekurtsoa jar dezakete hilabeteko epean, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera.

Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko 7/89 Foru Arauko 8.3. ar-tikuluaren ezarritakoari jarraiki, Trafikoko Buruzagitzek ez dituzte izapidetuko ibilgailuen baja edo aldaketen espedienteak, egiaztatzen ez bada zerga hau ordaindu dela.

Plentzian, 2023ko martxoaren 13an. — Alkatea, Elixabete Uribarri Uriarte

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Sestaoko Udala****Sestaoko Euskal Forging 02, PEOU_EF02 Area Industrial eta Tertziarioaren Birpartzelazio Proiektuaren behin betiko onarpena.**

Araubidez xedatutakoaren arabera, jakinarazten da Alkatetza honen 2023ko martxoaren 13eko Dekretu bidez behin betiko onartu duela Euskal Forging 02, PEOU_EF02 Area Industrial eta Tertziarioaren Birpartzelazio Proiektuaren 3. Bertsioari. Proiektua 2023ko otsailaren idatzi zuten Javier A. Muñoz arkitektoak eta Juan Carlos Celaya abokatuak, eta Euskal Forging, SAK Udalean aurkeztua 2023ko otsailaren 6an.

Udal-ebazpen huren aurka, honako errekurtsio hauek erabili ahal izango dira:

Nola nahi ere, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke alkate-udalburuari, hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123-124 artikulua).

Errekurtsio hori erabiliz gero, eta gehienez ere hilabeteko epean ebazten ez bada, errekurtsioa ezetsitzat joko da, eta, kasu horretan, berraztertze errekurtsioaren berrazko ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango da dagokion Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

Berraztertze errekurtsorik jarri nahi ez badu, zuzenean erabili ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsioa dagokion Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 46. artikulua).

Onartutako dokumentazioa udalaren webgunean kontsultatu ahal izango da.

Sestaon, 2023ko martxoaren 13an.— Alkatea, Ainhoa Basabe Meléndez



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Zeanuriko Udala

Ikasgela berria arautzeko Ordenantza

Udalbatzak, 2023ko urtarrilaren 26an hasierako onarpena eman eutson aipatutko ordenantzari. Horretarako jarritako epean alegaziorik ez denez egon, onarpena behin betikoa bihurtzen da.

Araudi osoa publikatzen da.

Zeanurin, 2023ko martxoaren 11n.—Alkatea, Eider Ajuriagerra

**IKASGELA BARRIA ARAUTZEKO ORDENANTZA****I. TITULUA****ORDENANTZAREN HELBURUAK****1. artikulua**

Ordenantza honen helburua, Udalarena dan Zeanuriko ikasgelaren erabilera eta funtzionamendua arautzea da.

2. artikulua

Ordenantza honen helburua erabiltzaileak Ikasteko gelara sarrera izatea eta era egokian erabiltzea da.

II. TITULUA**IKASGELARASARRERA ETA ERABILERA****3. artikulua**

Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren presidenteak, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko langile lan-kontratudun finkoen lanpostuen hornidura egonkortzeko ezohiko prozesuak arautu behar dituzten oinarri komunak (2022ko azaroaren 8ko eta 212 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean) seigarren oinarriko 2. puntuan eta zazpigarren oinarriko 1. puntuan (eskatzaileen onarpenari eta epaimahai kalifikatzailearen osaerari buruzkoak, hurrenez hurren) ezarritakoa betez, 2023ko martxoaren 10ko ebazpenaren bitartez honako hau xedatu du:

Lehenengoa: Lehiaketa bidez, txanda askeko sistema erabiliz, Administrari Balioanitzuna lanpostu bat betetzeko (euskarako nahitaezko 2. hizkuntza-eskakizuna eta 3. lanbide-sailkapeneko taldea —C taldea, C1 azpitaldea—) hautaketaprozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, xedatzen da hautaketaprozesuko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak onartzea. Pertsona horiek jarraian jasotzen den zerrendan agertzen dira.

Onartutakoen behin-behineko zerrenda

NAN/AIZ	LEhenengo abizena	Bigarren abizena	Izena
***7*243	ASKORBEBEITIA	ALONSO	LUIS
*425***5	BASTEGUIETA	ELESPE	IRATXE
***0*717	BIDAURRAZAGA	VAN DIERDONCK	HERMINE
*6***211	CARRETE	REDONDO	M ^a AUXILIADORA
*0***784	GARCIA	FUENTES	AINHOA
*2***190	GARCIA	CARAZO	MARIA JOSE
***2*698	GONZALEZ	RODRIGUEZ	OLGA LUCIA
***8*793	HERREZUELO	RODRIGUEZ	JESICA
*900***6	HUIDOBRO	BALENCIAGA	MAITANE
*892*6**	IZAGIRRE	VELASCO	AINHOA
*45***95	MEDINA	GARRIDO	MARGARITA
*8***755	POZUELO	ARTEAGOITIA	SARA
*434*4**	SANCHEZ	URBANEJA	MARIA

Baztertutakoen behin-behineko zerrenda

— Bat ere ez.

Bigarrena: Indarreko oinarri orokor hauetan eta deialdiaren oinarri espezifikoetan xedatutakoarekin bat etorriz, hautaketa-prozesua baloratzeko epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

— Mahaiburua: titularra Jose María Escolástico Sánchez jauna, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko zuzendariorde operatibo eta juridikoa; eta ordezkoa Marta Pérez Sanz andrea, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko Kalitate eta Giza Baliabideen sailako arduraduna.



- 1. mahaikidea: titularra Alberto López Fernández de Viana jauna, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko sail soziokomunitarioaren arduraduna; eta ordezkoa Larraitx Loiarzte Azkue andrea, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko gizarte langilea.
- 2. mahaikidea: titularra Koldobika Ibáñez García jauna, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko Ondarearen kudeadeta sailako arduraduna; eta ordezkoa Rosario Vallejo Ilarduya andrea, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko Etxebizitzen sustapenerako sailako arduraduna.
- 3. mahaikidea: titularra Janire Querejazu Ansoleaga andrea, eta ordezkoa María Blanca Orcajada Muriel andrea, biak Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak izendatutakoak.
- Idazkaria: titularra Marta Pérez Sanz andrea, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko Kalitate eta Giza Baliabideen arduraduna; eta ordezkoa, Itziar Ibarra Marroquín andrea, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko Zerbitzu Orokorren arduraduna.

Hirugarrena: Bai baztertutakoak, hala baleude, bai, bidezkoa bada, argitaratutako zerrendan ez egoteagatik ahaztutakoak, 10 egun baliodun dituzte, ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, baztertzea edo zerrendan ez agertzea arrazoitu duten akatsak zuzentzeko. Bestela, hautaketa-prozesutik behin betiko baztertuta geldituko dira. Horretarako, eskaera aurkeztu beharko dute Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren erregistro orokorrean edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako moduan.

Aipatutako epean hautagaiek bazterketa zuzentzen ez badute, zuzenketa hori bidezkoa ez bada edo ez-egitea alegatzen ez badute, hautaketa-prozesutik behin betiko baztertuta geldituko dira.

Nahiz eta onartuen zerrendan azaldu, ez da aitortzen hautagaiek deialdian parte hartzeko eskatzen diren eskakizunak betetzen dituztenik.

Era berean, deialdi hau arautzen duten oinarriek eta, horrekin lotuta, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuei buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.2 artikulua eta martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 23.2 artikulua xedatutakoaren babesean, prozeduraren edozein unetan epaimahaiak hautagairen batek deialdian eskatzen diren eskakizunak betetzen ez dituela jakiten badu, baztertu egingo da, betiere interesduna entzun ondoren, eta egun berean hautaketaprosesuari deialdia egin duen agintaritzari jakinaraziko zaio. Ondorioz, egindako jarduketak ondorerik gabe geldituko dira, baita hautaketa-prozesua gaitututakoan ere, parte hartzeko eskabidean izan daitekeen faltsutasunarengatik erantzukizuna gorabehera.

Bilbon, 2023ko martxoaren 10ean.—Zuzendari Nagusia, Eider Bilbao Aldayturriaga

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilboko Udal Etxebizitzak TEA**

2022ko EPEko Komunitateen Administralari lau lanpostu, salbuespenezko egonkortze sistemaren bidez (lehiaketa), txanda irekiaren bidez betetzeko deitutako hautaketa-prozesuan izangaiak onartzea eta behin-behinean baztertzea.

Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren presidentek, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko langile lan-kontratadun finkoen lanpostuen hornidura egonkortzeko ezohiko prozesuak arautu behar dituzten oinarri komunak (2022ko azaroaren 8ko eta 212 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean) seigarren oinarriko 2. puntuan eta zazpigarren oinarriko 1. puntuan (eskatzaileen onarpenari eta epaimahai kalifikatzailearen osakerari buruzkoak, hurrenez hurren) ezarritakoa betez, 2023ko martxoaren 10ko ebazpenaren bitartez honako hau xedatu du:

Lehenengoa: Lehiaketa bidez, txanda askeko sistema erabiliz, Komunitateen Administralari lau lanpostu betetzeko (euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna, horietako bi nahi-taetzkoa eta 3. lanbide-sailkapeneko taldea —C taldea, C1 azpitaldea—) hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, xedatzen da hautaketaprosesuko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak onartzea. Pertsona horiek jarraian jasotzen den zerrendan agertzen dira.

Onartutakoen behin-behineko zerrenda

NAN/AIZ	Lehenengo abizena	Bigarren abizena	Izena
*8***366	ALVAREZ	GONZALEZ	ITSASO
*08***86	ARABIOURRUTIA	RUIZ	ALBERTO
***7*243	ASKORBEBEITIA	ALONSO	LUIS
*425***5	BASTEGUIETA	ELESPE	IRATXE
*6***211	CARRETE	REDONDO	M. ^a AUXILIADORA
*89***39	ECHEVARRIA	BILBAO	IMANOL
*0***784	GARCIA	FUENTES	AINHOA
*2***190	GARCIA	CARAZO	MARIA JOSE
***2*698	GONZALEZ	RODRIGUEZ	OLGA LUCIA
***7*540	GONZALEZ	DEL RIO	NURIA
***8*793	HERREZUELO	RODRIGUEZ	JESICA
*900***6	HUIDOBRO	BALENCIAGA	MAITANE
*892*6**	IZAGIRRE	VELASCO	AINHOA
*88***54	JAUREGUI	ARANDA	IRUNE
*068*2**	ORIBE	MESA	SONIA
*8***755	POZUELO	ARTEAGOITIA	SARA
*4***229	RAMOS	SAEZ DE EGUILAZ	ZURIÑE
*46***86	RUIZ	PEREZ	MARTA
*4***764	RUIZ	GARCIA	MIGUEL ANGEL
*0***443	SAN JUAN	CANTERA	ESPERANZA
***8*532	YURREBASO	GOIRI	MARIA IDOIA
*723*1**	ZAZO	RUIZ	M. ^a CARMEN

**Baztertutakoen behin-behineko zerrenda**

— Bat ere ez.

Bigarrena: Indarreko oinarri orokor hauetan eta deialdiaren oinarri espezifikoetan xedatutakoarekin bat etorritik, hautaketa-prozesua baloratzeko epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Mahaiburua: titularra Jose María Escolástico Sánchez jauna, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko zuzendariorde operatibo eta juridikoa; eta ordezkoa Marta Pérez Sanz andrea, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko Kalitate eta Giza Baliabideen sailako arduraduna.
- 1. mahaikidea: titularra Alberto López Fernández de Viana jauna, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko sail soziokomunitarioaren arduraduna; eta ordezkoa Larraitz Loiarde Azkue andrea, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko gizarte langilea.
- 2. mahaikidea: titularra Koldobika Ibáñez García jauna, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko Ondarearen kudeadeta sailako arduraduna; eta ordezkoa Rosario Vallejo Ilarduya andrea, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko Etxebizitzen sustapenerako sailako arduraduna.
- 3. mahaikidea: titularra Janire Querejazu Ansoleaga andrea, eta ordezkoa María Blanca Orcajada Muriel andrea, biak Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak izendatutakoak.
- Idazkaria: titularra Marta Pérez Sanz andrea, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko Kalitate eta Giza Baliabideen arduraduna; eta ordezkoa, Itziar Ibarra Marroquín andrea, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAko Zerbitzu Orokorraren arduraduna.

Hirugarrena: Bai baztertutakoak, hala baleude, bai, bidezkoa bada, argitaratutako zerrendan ez egoteagatik ahaztutakoak, 10 egun baliodun dituzte, ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, baztertzea edo zerrendan ez agertzea arrazoitu duten akatsak zuzentzeko. Bestela, hautaketa-prozesutik behin betiko baztertuta geldituko dira. Horretarako, eskaera aurkeztu beharko dute Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren erregistro orokorrean edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako moduan.

Aipatutako epean hautagaiek bazterketa zuzentzen ez badute, zuzenketa hori bidezkoa ez bada edo ez-egitea alegatzen ez badute, hautaketa-prozesutik behin betiko baztertuta geldituko dira.

Nahiz eta onartuen zerrendan azaldu, ez da aitortzen hautagaiek deialdian parte hartzeko eskatzen diren eskakizunak betetzen dituztenik.

Era berean, deialdi hau arautzen duten oinarriek eta, horrekin lotuta, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuei buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.2 artikulua eta martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 23.2 artikulua xedatutakoaren babesean, prozeduraren edozein unetan epaimahaiak hautagairen batek deialdian eskatzen diren eskakizunak betetzen ez dituela jakiten badu, baztertu egingo da, betiere interesduna entzun ondoren, eta egun berean hautaketaprosesuaren deialdia egin duen agintaritzari jakinaraziko zaio. Ondorioz, egindako jarduketak ondorerik gabe geldituko dira, baita hautaketa-prozesua gainditutakoan ere, parte hartzeko eskabidean izan daitekeen faltsutasunarengatik erantzukizuna gorabehera.

Bilbon, 2023ko martxoaren 10ean. —Zuzendari Nagusia, Eider Bilbao Aldayturriaga

**III. ATALA****EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA****Lan eta Enplegu Saila**

Erabakia Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko Lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Fundiciones San Antonio de Urkiola, S.L. enpresaren Hitzarmen Kolektiboa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48100492012013).

Aurrekariak

Telematikaren bidez aurkeztu da, ordezkaritza honetan, enpresako zuzendaritzak eta enpresa batzordeak 2023ko urtarrilaren 12an sinatutako akordioa.

Zuzenbideko oinarriak

Lehenengoa: Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24 EBO) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuko 14.1.g) artikulua —Lan eta Enplegu Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2021ko urtarrilaren 29ko EHAA)— dionarekin bat etorri eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko EBO) —hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak— lotuta.

Bigarrena: Sinatutako akordioak betetzen ditu lehen aipatutako Langileen Estatutu Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak.

Honen ondorioz,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa: Hitzarmen Kolektiboen Erregistroaren Bizkaiko Lurralde Atalean inskribatu eta gordailu egiteko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadin xedatzea.

Bilbon, 2023ko otsailaren 20an. —Bizkaiko Lurralde Ordezkaria, Verónica Fernández Fernández



**FUNDICIONES SAN ANTONIO DE URKIOLA, S.L., ENPRESAREN
HITZARMEN KOLEKTIBOA 2022-2024
EHAAREN AZKEN BERTSIOA**

1. artikulua. — Eremu funtzionala

Hitzarmen kolektibo hau Fundiciones San Antonio de Urkiola, S.L., enpresari eta haren langileei aplikatuko zaie.

2. artikulua. — Eremu pertsonala

Fundiciones San Antonio de Urkiola, S.L., enpresari zerbitzu egiten dioten langile guztiak daude hitzarmen kolektibo honen eraginaren pean, hauek izan ezik:

- a) Langileen Estatutuko 2.1.a) artikulua aipatzen dituenak, hau da, abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretua (goi-zuzendaritzako langileen lan-harreman berezia arautzen duena) bete behar dutenak.
- b) Enpresan zuzendaritza-karguak betetzen dituzten langileak, hala erabakitzen badute.

3. artikulua. — Hitzarmenaren indarraldia, iraupena eta denuntzia

Hitzarmen hau legezko alderdiek sinatzen duten egunean jarriko da indarrean. Hitzarmen honen, 2022ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra izango da. Ondorio ekonomikoek 2022ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izango dute. Hitzarmen honen amaiera 2024ko azaroaren 1ean emango da iragarritzat. Ordutik aurrera, alderdiek hilabete dute negoziazio-mahaia eratzeko.

Behin Hitzarmenaren aurkako salaketa jarritakoan, Langileen Estatutuaren 86.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Hitzarmena indarrean egoten eta guztiz aplikagarria izaten jarraituko du, harik eta Hitzarmen berri batek zaharra ordezkatu arte.

4. artikulua. — Lanaren antolakuntza

Lanaren antolaketa teknikoa eta praktikoa, eta lan-jardueraren kontrola Enpresako Zuzendaritzaren eginkizun eskusiboa izango da beti, hitzarmen kolektiboko zenbait artikulutan ezarritakoaren arabera Enpresa Batzordearen kontsulta eta partaidetza eskatzen den gaitan izan ezik.

Lan-prozeduretan egiten diren funtsezko aldaketak idatziz jakinaraziko zaizkio Enpresa Batzordeari; aldizkako aldaketak, berriz, ahoz jakinarazi ahal izango dira.

Lana antolatzearen helburua da enpresaren giza baliabide eta baliabide materialak modu eraginkorrean erabiltzea, ahalik eta produktibitate-maila handiena lortzeko.

5. artikulua. — Konpentsazioa

Alderdiek hitzarmen honen esparruan hitzartzen dituzten baldintzak hitzarmena indarrean sartzen denean enpresan daudenen ordezkioak dira, nolakoak diren eta nondik sortu diren gorabehera.

6. artikulua. — Ordainsariak

Ordainsariak hitzarmen honen 1. eranskinean ageri dira, azalpenaren eta epealdia-
ren arabera.

Ordainsariak, soldata-kontzeptuei ondorengoak aplikatzearen emaitza izango dira:

— Abiapuntuko erreferentzia: 2019ko soldata-etaulak.

— 2022ko soldata-etaulak (2022ko urtarrilaren 1etik ondore ekonomikoekin):

- %6,4ko igoera 2019ko soldata-taulen gainean, honela:
%0,9 (2019ko KPI: %1,2 eta 2020ko KPI: -%0,3).
%5,5 (2021eko KPI: %6,4).



- 2022ko soldata-aulak aplikatuta zor diren atzerapenak bi ordainketa berdinetan ordainduko dira:
Lehen, 2023ko martxoaren 15a baino lehen.
Bigarrena, 2023ko urriaren 31 baino lehen.
- 2023ko soldata-aulak (2023ko urtarrilaren 1etik ondore ekonomikoekin):
 - %4ko igoera 2022ko soldata-aulen gainean.
- 2024ko soldata-aulak (lehen berrikuspena, 2024ko urtarrilaren 1etik ondore ekonomikoekin):
 - %3ko igoera 2023ko soldata-aulen gainean.
Igoera, guztira: %13,4.
- 2024ko soldata-aulak (bigarren berrikuspena, 2024ko abenduaren 31tik ondore ekonomikoekin):
 - 2024. urteko KPIa argitaratzen den unean, 2024ko soldata-aulak berrikusi egingo dira (bigarren berrikuspena), eta 2019, 2020, 2021, 2022, 2023 eta 2024 urteetarako KPIen batura %13,4tik gorakoa bada, egon daitezkeen KPI negatiboak zenbatuz eta kenduz, aulak eguneratu egingo dira, urte horietako KPIen baturak aipatu %13,4arekiko duen aldearen ehunekoarekin, 2024ko abenduaren 31tik aurrerako ondore ekonomikoak izanik eta gehienez ere %3,5eko muga ezarrita.
- Hitzarmen kolektiboan ez bada 2025. urterako akordiorik lortzen eta hitzarmen honek aurrera-eragina izaten jarraitzen badu, hitzarmen kolektiboan jasotako soldata-zenbatekoak igo egingo dira, honela: 2025. urteko KPIari dagokion ehunekoa gehi aplikatu ez den KPIaren ehunekoa, 2024ko abenduaren 31n berrikusitako soldata-aulaetarako %3,5eko muga ezarri delako (bigarren berrikuspena), betiere gehienez ere %3,5eko muga ezarrita eta ondore ekonomikoak 2025eko abenduaren 31n hasita.
- Hitzarmen kolektiboan ez bada 2026. urterako akordiorik lortzen eta hitzarmen honek aurrera-eragina izaten jarraitzen badu, hitzarmen kolektiboan jasotako soldata-zenbatekoak igo egingo dira, honela: 2026. urteko KPIari dagokion ehunekoa gehi aplikatu ez den KPIaren ehunekoa, 2025eko abenduaren 31n berrikusitako soldata-aulaetarako %3,5eko muga ezarri delako, betiere gehienez ere %3,5eko muga ezarrita eta ondore ekonomikoak 2026ko abenduaren 31n hasita.

KPIa Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumo Prezioen Indize orokorra dela joko da. Soldata-berrikuspenen ehunekoak igoera edo murrizketa gisa aplikatuko dira, KPI positiboak edo negatiboak diren, hitzarmen kolektiboan aurreikusitako soldata-zenbateko guztietan.

Urteko ordainsaria

Hau da urteko ordainsaria kalkulatzeko formula:

$$(\text{Oinarrizko soldata} \times 365 \text{ egun}) + (\text{pizgarria} \times 299 \text{ egun}) + (\text{jardueragatiko saria} \times 299 \text{ egun}) + (\text{lan toxiko, nekagarri edo arriskutsuagatiko saria} \times 299 \text{ egun}) + (\text{soldataz kanpoko plusa} \times 12 \text{ hilabete}) + (\text{aparteko bi ordainsari, 14. artikularekin bat}) + (\text{gaueko lanagatiko plusa} \times \text{langile bakoitzak gauez lan egiten duen egunen kopurua}) + (\text{antzintasun-plusa} \times 365 \text{ egun, bosturtekorako eskubidea duten langileentzat}) + (\text{garraio-plusa} \times \text{langile bakoitzak pluserako eskubidea duen egunen kopurua}) + (\text{isurketa-prima, 7. artikularekin bat}) + (\text{ekoizpen-prima, 8. artikularekin bat}).$$

7. artikulua. — Isurketa-prima

Galdaketa-prima orain arte izan ditugun baldintza berberetan mantenduko da, egungo hitzarmenean jasotako igoerekin.

8. artikulua. — Ekoizpen-prima

Ekoizpen garbia-erreusa (urteko kudeaketa-adierazleak).

**2022. urtea**

- 11.000-12.000 tona: 110,91 euro pertsona eta urteko.
- 12.000-13.000 tona: 166,37 euro pertsona eta urteko.
- 13.000-14.000 tona: 221,82 euro pertsona eta urteko.
- 14.000-15.000 tona: 433,58 euro pertsona eta urteko.
- 15.000-16.000 tona: 627,76 euro pertsona eta urteko.
- 16.000-17.000 tona: 736,82 euro pertsona eta urteko.

Enpresak hurrengo ekitaldiko urtarreleko nominarekin batera ordainduko du ekoizpen-prima, langile bakoitzak egiaz lan egin duen denboraren arabera, urte naturalen arabera hainbanatuta, urte naturalean sortzen baita.

9. artikulua. — Kategoriak**— Fabrikako langileak**

Kategorien izenak aldatu dira: peoiaren ordezkari ohiko peoia, eta peoi espezialistaren ordezkari peoi espezialista balioaniztuna.

Kategoria berri bat sortu da: peoi espezialista Ez balioaniztuna.

Peoi espezialista balioaniztunen balioaniztasuna horiek gutxienez bi ekoizpen-ataletan (atal bakoitzean gutxienez 6 hilabetez) zeregin eta ardura desberdinak era egoki, autonomo eta zuzenean betetzeko duten gaitasunaren arabera zehaztuko da.

Fabrikako langileen kategoriak honako hauek izango dira:

- Taldeburua.
- 1. ofiziala.
- 2. ofiziala.
- 3. ofiziala.
- Peoi Espezialista Balioaniztuna.
- Peoi Espezialista Ez-Balioaniztuna.
- Peoi Arrunta.

2023ko lehen hiruhilekoan zehar, langile guztiei jakinaraziko zaie, banan-banan, zein den beren kategoria ofiziala eta zein benetan lan egiten duten lanari legokiokeen kategoria.

Peoi espezialista balioaniztunaren soldata- eta lan-baldintzak espezialistak egun dituen berak izango dira, eta peoi arruntarenak peoiak egun dituen berak.

Peoi espezialista Ez-balioaniztunaren soldata-baldintzak peoi espezialista balioaniztunaren eta peoi arruntaren baldintzen artean dauden aldean %50 izango dira.

— Administrariak

Ofizial administrariaren kategoria bitan banatu da: 1. ofizial administraria eta 2. ofizial administraria. Beraz, honako hauek dira administrazioko langileen kategoriak:

- 1. Ofizial Administraria.
- 2. Ofizial Administraria.
- Administrari Laguntzailea.

Ofizial administrariaren soldata- eta lan-baldintza horiek 1. ofizial administrariaren parekoak izango da.

2. ofizial administrariaren soldata-baldintzak 1. ofizial administrariaren eta administrari laguntzailearen baldintzen artean dauden aldean %50 izango dira.

10. artikulua. — Taldeburuak (ordezkoak)

2022. urtean, egungo taldeburuen ordezkari lanegunetan eta larunbatetan 3,94 euroko ordainsari finkoa izango dute, hilean batez beste 98,09 euroren parean, hala aktibo egon nahiz ez.



Taldeburuak urte naturalean zehar 4 hilabetez baino gehiago jarduten badute hala, gehiegizko denbora hori lanegun eta larunbatetan 7,87 eurotan osatuko da.

Puntualki taldeburuen eginkizunak betetzen dituzten langileek, beren kategoria profesionalaren arabera, lanegun bakoitzeko ordainsaria edukiko dute:

1. mailako ofiziala: 12,04 euro lan egindako eguneko.
2. mailako ofiziala: 16,18 euro lan egindako eguneko.
3. mailako ofiziala: 18,90 euro lan egindako eguneko.

Peoi Espezialista Balioaniztuna: 20,31 euro lan egindako eguneko.

Peoi Espezialista Ez-Balioaniztuna: 29,41 euro lan egindako eguneko.

Peoi Arrunta: 36.78 euro lan egindako eguneko.

11. artikulua. — *Peoi arrunta eta administrari laguntzailea*

Enpresan 12 hilabete igaro ondoren peoi arruntaren edo administrari laguntzailearen kategorietan, langile horiek automatikoki lortuko dute peoi espezialista ez-balioaniztunaren edo 2. ofizial administrariaren kategoria. 12 hilabeteko aldi horretan aldi baterako lan-enpresa baten bidez lan egindako denbora ere kontuan hartuko da.

Akordio honen datan peoiaren kategorian (izendapen berriaren arabera, peoi arrunta) lan egiten duten langileei 9 bis artikuluaurreko idazkuntza aplikatuko zaie: Peoia – Enpresan kategoria horretan 12 hilabete igarotzen duen langilea automatikoki bihurtuko da espezialista, aldi baterako lan-enpresa baten bidez lan egindako denbora ere kontuan hartuta.

12. artikulua. — *Mantentze-lanak egiteko guardia-sistema*

Litekeena da inoiz ekoizteko eragozpenak izatea enpresan eta mantentze-lanetarako langile bat ere ez egotea. Bada, beharrezkoa da langileok mantentze-lanak egiteko guardia-sistema bat ezartzea.

Sistemaren oinarria da langile batek telefono bat eramatea asteko zazpi egunetan 24 orduz, aurkitzeko moduan egoteko eta, beharrezkoa bada, matxura edo arazoa konpontzeko.

Guardia egiten duen langileak 24 orduz egon behar duenez gero enpresak deituko dion adi, haren eguneroko lana hankaz gora gelditzen da. Hori dela eta, alderdiek konpentsazio hau hitzartu dute ordainetan:

- 1) 26,27 euro 2022. urtean laneguneko eta 60,91 euro 2022. urtean larunbat, jaiegun eta zubietan.
- 2) Enpresak deitu egiten badu, langileak lanean ematen dituen orduak eta etxetik lanera joateko eta itzultzeko kilometroak ordaintzea, baita larunbat edo jaiegun bateko aparteko lanordu bat, fitxatze hutsagatik, eta, hala badagokio, gaueko lanagatiko plusa.
- 3) Enpresak gauez deitzen badu eta langileak goizeko txanda (06:00etatik 14:00etara bitartekoa) badu, bi ordu lan egiten badu gutxienez eta 23:00etatik aurrera matxura konpontzen jarraitzen badu, jai ematea hurrengo egunean, laneguna bada betiere.
- 4) Enpresak gauez deitzen badu eta langileak arratsaldeko txanda (14:00etatik 22:00etara bitartekoa) badu eta 05:00etatik aurrera matxura konpontzen jarraitzen badu, jai ordaindua ematea egun horretan bertan, laneguna bada betiere.

13. artikulua. — *Oporrak*

Hitzarmen honen eraginaren pean dauden langileek ordainpeko 30 opor-egun natural dituzte. Enpresak eta langileen ordezkariak finkatuko dute oporraldia, urteko lehen hiru hilabeteetan, lan-egutegiarekin batera.



Enpresak formula honen arabera ordainduko ditu oporrak:

$$\frac{\text{Azken 90 egun naturaletako soldata erreala} \times 30}{90}$$

Langileak gaixotasun- edo istripu-bajan egon badira edo ordaindu gabeko baimena izan badute azken 90 egun naturaletan, zenbat egun egon diren bajan edo zenbat egun iraun duen baimenak azken 90 egun naturalen barruan, azken 90 egun naturalen aurre-aurretik altan egon diren hainbat egun hartuko dira kontuan oporren ordaina kalkulatzeko, 90 osatu arte. Langileak altan egon diren egunek urtean urtekoak izan behar dute. Langileak urtean-urtean ez badira egon 90 egun natural altan, altan egon diren egunak bakarrik hartuko dira kontuan. Horrelakoetan, azaldutako formula egokitu egingo da.

Oraindik hartu gabeko oporrak hurrengo urtean hartzeak ezin du izan eraginik ekoizpenean. Hau da, bi langile edo gehiago inola ere ezin dira egon batera oporretan baldin eta horrek eraginik badu ekoizpenean edo/eta atalen funtzionamendu egokian. Gainera, oporrak hurrengo urtean hartzeko, langileek arduradunarekin adostu behar dute.

Hartzeko dituzten zortzi opor-egun edo gehiago hartzeko, langileek arduradunarekin adostu behar dute, bi hilabete lehenago gutxienez.

14. artikulua.— Gaueko lanagatiko plusa

1. Gaueko hamarretatik goizeko seietara bitartekoa da gaueko lana.
2. Gaueko lanaren ordaina 1. eranskinaren arabera da.

15. artikulua.— Antzinasun-plusa

Enpresako langileek enpresari zerbitzu egiten dioten urte bakoitzeko aldizkako igorak kobratuko dituzte: bosturtekoa (langile bakoitzaren lanbide-taldearen kategoriari dagokion oinarritzko soldataren %5).

Bosturteko bat amaitu eta hurrengo hilabetean hasten da hurrengoa.

16. artikulua.— Aparteko ordainsariak

Hitzarmen honen eraginaren pean dauden langileek aparteko bi ordainsari irabaziko dituzte urtean, eta uztailearen 15ean eta abenduaren 15ean kobratuko dituzte. Aparteko ordainsaria kalkulatzeko, formula hau erabiliko du enpresak:

Aparteko ordainsaria

(Oinarritzko soldata + antzinasun-plusa, eskubidea dutenentzat) $\times$ 30 + aparteko ordainsariaren osagarria.

Enpresak lan egindako denboraren arabera ordainduko ditu aparteko ordainsariak, eta sortzen diren urteetako seihileko naturalen arabera hainbanatuko ditu.

17. artikulua.— Probaldia

Zuzendaritzak bakarrik du langileak kontratatzeko eta lanpostu jakin bati esleitzeko eskumena.

Euren lanpostuan sartu aurretik, enpresak azterketa mediko bat egingo die langile guztiei, lanpostu bakoitzeko protokolo medikoekin bat.

Azterketa medikoa amaitutakoan, hautagaiak betetzeko den lanpostua betetzeko egokia den ala ez jakinaraziko diote enpresari, baina ez diote emango dena delako ondorioa ateratzeko arrazoiaren xehetasunik, langilearen pribatutasun eta intimitateari buruzko xehetasunik ez emateko.

Aipatutako eskakizunak betetakoan (hautagaiak gaitasun-proba, zuzeneko elkarriketa eta azterketa medikoa gainditutakoan), enpresak idatziz egingo du kontratua, kontratu mota dena delakoa ere.



Tituludunek sei hilabeteko probaldia izango dute, eta gainerako langileek, hiru hilabetekoa, kualifikaziorik gabeko langileek izan ezik, hilabetekoa izango baitute.

Probaldian langilearen aldi baterako ezintasunak, amatasunak, adopzioak eta harre-rak ez dute probaldiaren zenbaketa etengo.

18. artikulua. — Lanaldia

Hitzarmen hau indarrean dagoen urteetan, urteko lanaldia 1.684 ordukoa izango da. Egutegian itundutako hitzarmeneko aldearen orduak ezin izango dira oporrekin metatu eta, hartuz gero, ezin izango diote ekoizpen osoari eragin; hau da, bi pertsonak edo gehiagok ezin izango dituzte ordu horiek aldi berean hartu, horrek atalen funtzionamen-du egokiari eragiten badio.

Produktzio-beharrak direla-eta ordaintzen bada, larunbateko ordu gisa ordainduko dira.

2022ko abenduaren 31n hitzarmeneko ordu negatiboak dituzten langileei 2023ko hitzarmeneko ordu aldeekin kitatuko zaizkie automatikoki.

19. artikulua. — Enpresak nahi bezala erabiltzeko orduak

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, enpresak urteko 52 ordu erabil ditzake gehienez ere nahi bezala.

Langileek berarekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla eta (material falta, ekoiz-penaren krisia, garraio-greba... dela eta) lan egiten ez duten orduak konpentsatzeko erabiliko ditu, larunbat, igande, jaiegun eta zubi-egunetan, eta, langileek larunbat batean edo oporretan konpentsatzen badituzte, larunbat edo jaieguneko aparteko orduaren eta aparte ordu normalaren arteko aldea ordainduko die.

Enpresak atalen edo lan-espezialitateen arabera erabaki dezake nola erabili nahi bezala erabiltzeko orduak, zergatik dituen.

Enpresak edozein egunetan erabil ditzake orduak, Eguberri-egunean, Urtezaha-rraan, Urteberrian, errege-egunean, San Fausto zubian eta hamabost eguneko oporral-dian izan ezik, eta zortzi egun lehenago jakinarazi behar du noiz erabiliko dituen, edo 30 egun lehenago oporretan erabiliko baditu.

Langileek hurrengo ekitaldiko otsailaren 28ra artekoa epea izango dute enpresak urteko azken hiru hilabeteetan nahi bezala erabilitako orduak berdintzeko.

Ustekabeko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa bada eguneko edo asteko lanaldia lu-zatzea enpresak normal funtziona dezan, langileek sartzen dituzten orduak apartekoak izango dira, eta hitzarmen honen 1. eranskinarekin bat ordainduko ditu enpresak.

20. artikulua. — Lanaldiaren banaketa irregularra

Lan-karga normala denean, enpresak bi txanda egingo ditu. Enpresak ekoizpen-beha-rran arabera ezarriko ditu txandak. Enpresa-batzordearekin hitz egingo da alde z aurretik.

Udako lanaldia ekaineko lehen astelehenean hasiko da, eta iraileko bigarren ostira-lean amaituko.

21. artikulua. — Larunbat, zubi-egun eta jaiegunetako lana

Ekoizpenaren beharizanengatik edo bezeroen errekerimenduengatik egiten diren aparteko orduak atsedeen-orduekin konpentsatu ahal izango dira. Egoera horietarako, gertatzen diren unean egingo du langileak horien gaineko ohartarazpena.

Kompentsazioa 1,5 eguneko izango da larunbatetan, oporretan edo zubietan lan egindako eguneko; 2 eguneko jaiegunetan lan egin bada.

Langileek hamabost egun lehenago jakinaraziko diote enpresari noiz berdindu nahi dituzten orduak eta, atsedeen hartzeak ez badio kalte larria egiten ekoizpenari, berdindu egingo dituzte. Atsedeen hartzeak kalte larria egiten badu, berriz, orduak berdintzeko bes-te atsedeen-ordu batzuk jakinaraziko dituzte, eta erabakia behin betikoa izango da.

**22. artikulua.— *Mugikortasun geografikoa***

Ekoizpen- edo leku-beharrak direla-eta, behar adina langile Abadiñora bidal ditzake enpresak, Batzordeari jakinarazten badio betiere. Enpresak Abadiñora bidaltzen dituen langileek lanaldi bera izango dute, eta kamioiak zamatzeko lanak egingo dituzte.

Lekualdatutako langileek 4,24 euroko urruntasun-plusa jasoko dute 2022. urtean, lanera joaten diren egun bakoitzeko; horrez gain, 5,31 euroko lekualdatze-plusa jasoko dute 2022. urtean. Halaber, lanaldi zatitua egiten badute, enpresak eguneko menu bat ordainduko die lanera joaten diren egun bakoitzeko.

Enpresak lantoki berriak irekitzen baditu, langileak lekualdatu aurretik horretarako baldintzak negoziatzeko konpromisoa hartu dute alderdiek.

23. artikulua.— *Lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak eragindako aldi baterako ezintasuna*

Langileek aldi baterako ezintasuna badute laneko ezbehar edo gaixotasun baten ondorioz, enpresak ezintasun-saria osatuko du, oinarriaren %100 osatu arte, hurrengo baldintza hauekin:

- 1) Istripua lantokian gertatu dela egiaztatu ahal izatea.
- 2) Langileak segurtasun-neurriak eta agindutako lana egiteko berariazko arauak bete izana.

Enpresak in itinere gertatutako istripuengatik ezintasun-egoeretan ere ordainduko du aurreko paragrafoan azaldutako osagarria.

Gaixotasun arruntak eta lanez kanpoko istripuak eragindako aldi baterako ezintasuna izanez gero, urteko lehenengo bajaren aurreneko bi egunak ordainduko dizkio enpresak langileari, istripuaren aurreko hilabeteko oinarri arautzailea kontuan hartuz; eta kobratu gabeko kotizazio-oinarrien erdiaren baliokidearekin (% 12,5) osatuko du gaixotasun-baja 30 egunetatik aurrera.

Hitzarmen hau sinatzen denetik aurrerako ondorioekin, langileak ospitaleratzen badi-tuzte edo/eta ebakuntza bat egiten badiete eta gutxienez bi egunez badiuzte ospitalean, enpresak %100 ordainduko du, hogeitaz gutxienez ere.

Hitzarmen hau sinatzen denetik aurrerako ondorioekin, era berean, enpresak %100 ordainduko die gaixotasun arrunt bat duten langileei, absentismoa enpresa osoko %6tik gorakoa ez bada betiere lan egindako aurreko hiru hilabeteko naturala kontuan izanik. Absen-tismoa enpresa osoko %5etik gorakoa bada, berriz, enpresak ez du ordainduko horre-lako osagarriarik.

Absentismoaren ehunekoa kalkulatzeko, enpresak gaixotasun arruntengatik absen-tziak hartuko ditu kontuan, hitzartutako orduen aldean, baina ordaindutako baimenak eta lan-istripuengatik bajak ez ditu hartuko kontuan.

24. artikulua.— *Lanerako prestakuntza eta mugikortasun funtzionala*

Batzordearekin adostuta, enpresako lan errazak (pintatzea, arrak egitea, labean erre-tzea, desmoldatzea eta bizarrak kentzea) menperatzeko eta egiteko abilezia berezia du-ten langileak horrelakoak egiteko trebatzeko konpromisoa hartu du enpresak, produktibi-tatea hobetzeko eta nolanahiko lan-absentismoagatik hutsik gelditzen diren lanpostuak betetzeko. Langileak kategoria beheagoko lanpostuetan aritu daitezke, baina soldatari eutsiko diote.

25. artikulua.— *Ordaindutako baimenak*

1. Aldez aurretik jakinarazten badute eta arrazoitu egiten badute, langileek ordain-dutako baimenak hartzeko eskubidea dute. Hona ordaindutako baimenak hartzeko es-kubidea izateko arrazoiak eta arrazoi bakoitzaren araberrako epeak:

- A. Inor hiltzea:
 - Ezkontidea hiltzea, bost egun natural.
 - Guraso, seme-alaba edo anai-arrebak hiltzea, hiru egun natural.



- Ezkontidearen guraso, seme-alaba edo anai-arrebak hiltzea, bi egun natural.
- Noren edo ezkontidearen bilobak edo aitona-amonak hiltzea, bi egun natural.
- Bidaiatu egin behar izatea, beste bi egun.

Enpresak ohiko bizilekutik edo lantegitik kanpora bidali baditu langileak, lanean egon behar duten tokitik hildakoaren etxerainoko joan-etorria hartuko da kontuan.

Izatezko bikoteek ere dute horrelako baimena hartzeko eskubidea, artikuluko honetako 5. puntuak ezartzen dituen baldintzetan.

- B. Gaixotasun edo istripu larri baten ondorioz inor gutxienez 24 orduz ospitaleratzea, naturalki erditzen direnak eta zesarea egiten dietenak izan ezik, horrelako egoerek ez baitute ematen atal honetako baimena hartzeko eskubidea:

- Ezkontidea ospitaleratzea, hiru egun natural.
- Guraso, seme-alaba edo anai-arrebak ospitaleratzea, bi egun natural.
- Ezkontidearen guraso, seme-alaba edo anai-arrebak ospitaleratzea, bi egun natural.
- Noren edo ezkontidearen bilobak edo aitona-amonak ospitaleratzea, bi egun natural.
- Bidaiatu egin behar izatea, beste bi egun.

Izatezko bikoteek ere dute horrelako baimena hartzeko eskubidea, artikuluko honetako 5. puntuak ezartzen dituen baldintzetan.

- C. Ezkontidea, seme-alabak edo gurasoak ospitale edo kliniketako larrialdietara joatea: lanalditik kanpo joaten badira larrialdietara eta lau ordu edo gehiago badaude han, hurrengo eguneko lanaldiaren hasieran lanaldi erdiko atsedena hartzeko eskubidea dute langileek, alderdiek besterik hitzartzen ez badute behinik behin. Egoera hori lanaldiaren barruan gertatzen bada, berriz, behar beste denborarako izango da baimena.

Langileek aurreko paragrafoan aipatutako senideei lagundu behar badiete ebakuntza egin behar dietela-eta eta senideak 24 ordu baino gutxiago ospitaleratzen badituzte, ebakuntzak irauten duen denbora iraungo du ordaindutako baimenak. Langileek behar bezala egiaztatu behar dute ebakuntza egin behar dietela senideei.

Izatezko bikoteek ere dute horrelako baimena hartzeko eskubidea, artikuluko honetako 5. puntuak ezartzen dituen baldintzetan.

- D. Ezkontzea:

- Langilea bera ezkontzea, hamasei egun natural.

Langileak batera hartu nahi baditu oporrak eta ezkontzeagatik baimena, bata bestearen ondoren har ditzake. Urteko oporraldiak finkatu aurretik jakinarazi behar dio enpresari ezkontzeko asmoa duela.

Odolkidetasunezko edo ezkontzazko guraso, seme-alaba edo anai-arrebena: egutegiko egun 1. Kasu zehatz horretan, izatezko bikoteei ere aitortuko zaie ordaindutako lizentzia hori, artikuluko honetako 5. puntuan ezarritako baldintzetan.

- E. Seme-alaben jaiotzagatik: 2 lanegun. Zesarea egin bada, lizentzia 2 lanegun gehiagoz luzatuko da.
- F. Nortasun-agiria ateratzea, lau ordu, dokumentu publikoak egiten dituzten zentroak lanaldiaren barruan irekitzen eta ixten badituzte.
- G. Gizarte Segurantzako mediku espezialista batengana joatea, behar beste denbora, kontsulta lanorduetan bada, Medikuntza Orokorreko medikuak agintzen badu eta langileak medikuaren aginduaren frogagiria aurkezten badio aurrez enpresari. Gainerakoan, langileek hamasei ordu har ditzakete gehienez urtean. Langileek euren edo ezkontidearen lehen mailako ahaideei medikuarengana laguntzeko ere erabil ditzakete nor medikuarengana joateko hamasei orduak, bal-



din eta haiek euren kabuz moldatu ezin badira adina, istripu bat edo gaixotasun bat dela-eta, baita seme-alabak pediatarrengana eramateko ere. Betiere, behar bezala arrazoitu behar dute beharra.

H. Ohiko etxebizitzaz aldatzea, egun natural bat, langileek erroldatze-aldaketa aurrez egiaztatzen badute betiere.

I. Ezinbesteko betebeharrak publiko eta pertsonal bat betetzea (tartean, botoa ematea), behar besteko denbora. Legezko edo egiunezko arauen batek epe jakin bat aipatzen badu, arauak dioena hartuko da kontuan absentiaren iraupenari eta konpentsazio ekonomikoari dagokienez.

Dena delako betebeharra betetzeak hiru hilabeteko lanorduen %20 baino gehiago egitea galarazten badie langileei, enpresak eszedentzia hartzera behartu ditzake.

Langileek kalte-ordainik kobratzen badute karguren bat edo beste betebeharren bat betetzeagatik, enpresak soldatatik kenduko die haren zenbatekoa.

J. Sindikalista-lanetan edo langileak legez ordezkatzeko lanetan aritzea, hitzarmen honetako 26. artikulua xedatzen duena.

K. Erditu aurreko azterketak egitea eta erditzea prestatzeko teknikak lantzea, lanaldian egin behar bada, behar besteko denbora.

L. Bederatzi hilabete baino gutxiagoko semea edo alaba edoskitzea: langileak aukera izango du lanean ordubeteko absentzia hartzeko (bi zatitan banatzeko aukerarekin) edo lanaldia helburu bererako murrizteko. Langileak eskatuz gero, eguneko ordu-erdiko lanaldi-murrizketa metatu ahal izango da.

2. Inor gaixo egoteak edo/eta ospitaleratzeak ordaindutako baimenerako eskubi-dea ematen duen egoeretan, artikulua honetako B) atalean ezarritako irizpideari (egun naturalen arabera) eutsiz, baimen-egunak senideen artean mailaka daitezke gaixotasun edo ospitaleratzeak irauten duen bitartean.

Inor gaixo egoteagatik edo hiltzeagatik edo seme-alabak jaiotzeagatik ordaindutako baimen-egunak langileek lan egiteari uzten diotenean hasiko dira, eta, lanaldia amaitutakoan uzten badiote lan egiteari, hurrengo egunean.

3. Enpresak oinarritzko soldataren arabera ordainduko ditu ordaindutako baimenak, soldataren osagarriak gehituta.

4. Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean beste egoera edo gai batzuei buruzko beste baimen batzuk arautzen badituzte legez, artikulua honi erantsiko zaizkio.

5. Artikulu honetako 1. ataleko A), B), C) eta D) egoeretan, izatezko bikoteek ere dute ordaindutako baimena hartzeko eskubidea. Alde horretatik, izatezko bikoteak dira ez ezkontzea aukeratu dutenak eta, izatezko bikoteen erregistro ofizialik ez badago, behar bezala frogatzen diren elkarrekin bizi direla baimena hartu baino sei hilabete lehenagotik gutxienez.

6. Hilabete naturalean langileek ez badute egiaztatzen dokumentu bidez ordaindutako baimena hartzeko arrazoia, enpresak ez du joko ordaindutako baimena hartu dutela.

26. artikulua. — Eszedentziak

Langileen Estatutuak xedatzen duenaren arabera izango dira eszedentziak. Enpresak hilabetean erabakiko du gehienez ere eszedentzia-eskaerei buruz, eta ez du onartuko eszedentzia-eskaerarik baldin eta langileek Fundiciones San Antonio de Urkio-la SLren lehiakide diren enpresei zerbitzu egiteko erabili nahi badituzte.

27. artikulua. — Euskararen sustapena

Langileen legezko ordezkariak eskatzen badute langileen ezaugarriak direla-eta, Zuzendaritzak gaztelaniaz eta euskaraz kaleratuko ditu iragarki-taulan argitaratzen dituen ohar eta jakinarazpen guztiak.



Bizkaiko metalgintzako langileak euskalduntzeko prestakuntza-jarduera guztiak lanbide-heziketa edo etengabeko prestakuntzaren barnekotzat hartuko dira ondorio guztietarako.

28. artikulua. — Langileen ordezkarien eta enpresa batzordeko kideen ordu-kreditua

1. Enpresa Batzordeko kide edo langileen ordezkari bakoitzak karguan jarduteko ordaindutako hogeitau ordu izango ditu hilean, 24 ordu lehenago jakinarazten eta arrazoitzen badu betiere.

Ordezkari bakoitzaren eta Batzordeko gainerako kideen orduak ezin dira metatu.

29. artikulua. — Aurretiko abisuak eta zerbitzu-uztea

Enpresari zerbitzu egiteari utzi nahi dioten langileek aurrez jakinarazi behar dute:

- Langileek, hamabost egun lehenago.
- Mendekoek, hamabost egun lehenago.
- Administrazioek, hilabete lehenago.
- Nagusiek eta administrazio tituludunek, titulurik gabeko teknikariek eta goi- eta erdi-mailako tituludunek, bi hilabete lehenago.

Langileek ez badute dagokionean jakinarazten lanari uzteko asmoa dutela, enpresak eskubidea du atzeratzen diren egun bakoitzeko soldataren zenbatekoa likidaziotik kentzeko.

Aitzitik, langileek dagokionean jakinarazten badute lanari uzteko asmoa dutela, enpresak epea amaitutakoan likidatuko ditu orduak kalkula daitezkeen kontzeptu finkoak. Gainerakoak, berriz, dagokionean ordainduko ditu.

Enpresak ez badu betetzen betebeharrak, langileek eskubidea dute atzeratzen den egun bakoitzeko soldataren zenbatekoaren adinako kalte-ordaina kobratzeko. Gehienez ere, zenbat egun lehenago abisatu behar duten aurrez, hainbat egunetako soldataren zenbatekoaren adinako kalte-ordaina kobratzeko eskubidea dute. Langileek ez badute dagokionean jakinarazten lanari uzteko asmoa dutela, ordea, enpresak ez du inongo betebeharririk, eta, hortaz, langileek ez dute inongo eskubiderik.

Desadostasunik badago likidazioaren oinarria kalkulatzeko eta enpresak zuzenbidetara araberakotzat duen likidazioa ematen badie langileei zerbitzu egiteari uzten dioten egunean, aipatutako zigorra ez da izango bidezkoa. Hala ere, langileek erreklamazio bat aurkez dezakete lan-arloko jurisdikzioaren aurrean, falta dela iruditzen zaiena erreklamatzeko.

30. artikulua. — Lan-osasuna

Hitzarmen hau sinatu duten alderdien oinarritzko eta lehentasunezko xedea da langileen osasuna babestea, eta, haien ustez, horretarako, prebentzioa ezarri eta planifikatu behar da enpresan eta lantokietan. Prebentzioaren helburuak izan behar du, arriskuen ebaluaziotik abiatuz, haiek jatorrian desagerraraztea edo murriztea, eta, horretarako, beharrezko neurriak hartu behar dira, dagoen egoera zuzentzeko eta enpresa alde tekniko eta antolamenduaren aldetik bilakatzeko eta, hartara, lana pertsonari egokitzeko eta haren osasuna babesteko.

Langileen osasun- eta segurtasun-prebentzioari buruzko gai orotan, azaroaren 8ko 31/1995 Legeak, lan-arriskuen prebentzioari buruzkoak, eta harekin bat datozen arauak biltzen dituzten xedapenak aplikatuko dira.

Zuzendaritzak langileen ordezkari galdetuko die enpresan arriskuei aurrea hartzeko aplikatu beharreko plangintzari buruz.

Planek hauek hartu behar dituzte barnean: batetik, lan-istripuak, laneko gaixotasunak eta lanean osasunari egindako kalteak desagerrarazteko edo murrizteko beharrezko neurri tekniko eta antolamenduzkoak eta, bestetik, lan-arriskuei jatorrian aurre egiteko eta horrelakoak transmititzea eragozteko ahalik eta prebentzio-neurri egokienak erabiltzeko aurreikuspena.



Langile bakoitzari prebentzioari buruzko behar adinako prestakuntza teoriko eta praktikoa ematen diola bermatu behar du enpresak, bai kontratatzen duenean, kontratu mota edo kontratuaren iraupena dena delakoa ere, bai ekipamenduan aldaketak egiten ditue-nean. Ahal duen neurrian, lanorduetan eman behar du prestakuntza. Langilea behartuta dago bere esku jarritako prebentzio-neurriak erabiltzen laguntzera eta enpresak gaiari buruz emandako aginduak betetzera, azaroaren 8ko 31/1995 Legeak ezartzen dituen prebentzio-printzipioekin bat badatoz betiere.

Prebentzio Zerbitzuak babes-ekipamendua erabiltzeko aholkuak emango dizkie lan-gileei beharrezkoa bada egoeran egoeraren ezaugarriak kontuan izanik edo ekipamen-dua erabiltzen zaila bada.

Enpresak beren eginkizunak betetzeko beharrezko bitartekoak eta prestakuntza emango dizkie prebentzio-ordezkariei. Alde horretatik eta, batez ere, haiek beren egin-kizunak betetzeko eta prebentzio-gaietan trebatzeko ordu-kredituaren aldetik, 31/1995 Legeko 37. artikulua xedatzen duena aplikatuko da.

Enpresak eta prebentzio-ordezkariek onartu behar dute parte-hartzea ezinbestekoa dela istripuen aurka borrokatzeko eta osasunerako kalteei aurrea hartzeko.

Enpresaburuek osasuna zaintzea bermatuko dute, lanak berezkoak dituen arriskuen arabera, eta osasuna zaintzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte.

Enpresaren lanaren ezaugarriak kontuan izanik, nahitaezkoa da galdategi osoan III. babes-faktoredun maskarak erabiltzea.

31. artikulua. — Laneko istripuen kontrako aseguru kolektiboa

Enpresak laneko istripuetarako aseguru itunduko du Mapfreekin, pertsonako ziur-tatutako berme eta kopuruekin, eta hitzarmen hau sinatu ondoren aplikatuko da.

Istripuzko heriotza 75.000 euro.

Lanerako ezintasun osoa 75.000 euro.

Lanerako ezintasun absolutua 75.000 euro.

Ezintasun handia 75.000 euro.

32. artikulua. — Laneko arropa

Industriak laneko zer arropa erabili ohi duen, enpresak bi lohihartzeko, bina jaka eta galtza, bina alkandora eta galtza edo bi mantal emango dizkie urtean langileei; urte natu-raleko sei hilekoko jantzi bat. Aurrez, langileek erabilitako arropa itzuli behar dute.

Arropa termikoa emango zaie langileei.

Laneko arropa (2 jantzi) astero garbitu beharko da atal guztietan.

33. artikulua. — Batzorde paritarioa

Bi alderdiek batzorde paritario bat osatzea erabaki dute, hitzarmen hau interpretatze-ko eta alderdiek hitzartutakoa betetzen dutela kontrolatzeko. Hortaz, edozein prozedura indibidual hasi aurretik, nahitaezkoa da Batzordeari kontsulta egitea.

Enpresa Batzordeko lau kideek eta, egoki irizten badiote, haien aholkulariek eta Zu-zendaritzako bi kidek eratuko dute Batzorde Paritarioa.

Batzorde Paritarioa eta enpresa hiru hilabeteen behin bilduko dira gutxienez. Gaine-ra, alderdien ekimenez, ohiz kanpoko bilerak egin ditzakete, alderdi batek bilera eskatu eta hamar egunera gehienez.

Bere eskumenen esparruan auziren bat planteatzen badiote Batzorde Paritarioari eta ez bada gai adostasuna lortzeko, alderdiek gatazkak auzibidetik kanpo ebazteko siste-metara bideratuko dute auzia, eta ORPRICCE hartuko du bere gain.

34. artikulua. — ORPRICCE

Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek men egingo diote ORPRICCE laneko gatazkak ebazteko borondatezko prozedurei buruzko lanbide arteko akordioari [EHAA, 2014ko urtarrilaren 17koa].

**35. artikulua. — Kontratazio-ereduak**

Iraupen mugatuko kontratuak: Ekoizpen-gorabeherengatiko aldi baterako kontratua eta ordezkapen-kontratua. Agindu honen xedea osatzen duten kontratu-modalitateek Langileen Estatutuaren 15. artikuluan eta abenduaren 18ko 2720/1998 Errege Dekretuan xedatutakoa beteko dute.

- a) Ekoizpen-gorabeheren ziozko aldi baterako kontratutzat joko dira jardueraren ezusteko eta noizbehinkako igoerak eta oszilazioak artatzeko hitzartzen direnak, baldin eta, osilazio horiek enpresaren ohiko jardueraren parte izan arren, behin-behinean desoreka sortzen badute dagoen enplegu egonkorren eta behar denaren artean, eta, betiere, Langileen Estatutuaren 16.1. artikuluan jasotako kasuekin lotuta ez badaude. Aurreko paragrafoan aipatutako oszilazioen barruan sartutzat joko dira urteko oporren ondoriozkoak. Iraupen mugatuko kontratua produkzioari lotutako inguruabar horien zioz egin bada, haren iraupena ezin izango da sei hilabetetik gorakoa izan. Era berean, enpresak produkzioari lotutako inguruabarren ondoriozko kontratuak formalizatu ahal izango ditu, ezustekoak, noizbehinkakoak eta iraupen mugatu eta murriztekoak diren egoerei erantzuteko, paragrafo honetan aurreikusitako baldintzetan. Enpresek kontratu hau urte naturalean gehienez ere lauogeita hamar egunez erabili ahal izango dute, egun horietako bakoitzean egoera zehatzak artatzeko beharrezkoak diren langileak gorabehera. Edonola ere, langileak kontratuan behar bezala identifikatuta agertu beharko dira. Lauogeita hamar egun horiek ezin izango dira jarraian erabili.
- b) Ordezkapen-kontratua da lanpostua gordetzeko eskubidea duen langile bat ordezkatzeko enpresan sartzen diren langileei aplikatu behar zaiena. Horretarako, alabaina, ezinbestekoa izango da ordezkaturako pertsonaren izena eta ordezkapenaren arrazoiak zehaztea kontratuan. Kasu horretan, ordezkaturako pertsona falta baino lehen hasi ahal izango da zerbitzuak ematen; izan ere, biak batera egon ahal izango dira lanean lanpostuaren eginkizunak behar bezala betetzen direla bermatzeko behar den denboran zehar, eta, gehienez ere, hamabost egunez. Era berean, ordezkapen-kontratua hitzartu ahal izango da, lanaldi murriztua beste langile batekin osatzeko, baldin eta murrizketa hori hitzarmen kolektiboan legez ezarritako edo araututako arrazoietan oinarritzen bada eta kontratuan ordezkaturako langilearen izena eta ordezkapena egiteko arrazoiak zehazten badira. Halaber, kontratu-modalitate hau aplikatu ahal izango da behin-behinean betetzeko lanpostu bat, hautaketa- edo sustapen-prozesu batean zehar, beste kontratu finko baten bidez behin betiko betetzeko. Kasu zehatz horretan, kontratuaren iraupena hautaketa- edo sustapen-prozesuak irauten duen denbora izango da, gehienez ere hiru hilabeteko epea ezarrita. Gehieneko epe hori igarotakoan ezingo da beste kontraturik egin xede bererako. Bitartekotasun-kontratua amaitu egingo da, lanpostua erreserbatzea eragin duen arrazoiak iraungitzen denean.
- c) Arau komunak: Bai ekoizpen-gorabeherengatiko aldi baterako kontratua bai ordezkapen-kontratua beti egingo dira idatziz, eta dagokien Enplegu Bulegoan erregistratuko dira, hamar egun naturaleko epean, sinatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Kontratuak urtebetetik gorako epea baldin badu, amaieraren iragarpen hori egin duen aldeak modu sinesgarrian jakinarazi beharko dio besteari hura amaitu dela, gutxienez hamabost (15) egun natural lehenago.

Aldeetako edozeinek epe hori betetzen ez badu, kalte-ordaina kobratzeko eskubidea eragingo dio beste aldeari. Kalte-ordainaren zenbatekoak izan behar du, zenbat egunetan ez duten bete enpresaburuek kontratua amaitzeaz dagoela aurrez jakinarazteko betebeharra, hainbat egunetako soldataren adinakoa.

Enpresak baimena dauka dagokion zenbateko hori kentzeko zor diren soldatak likidatzean, bai eta parte proportzionalak, aparteko ordainsariak eta langilearen oporrak likidatzean ere.



Langileak enpresa utzi nahi duela jakinarazi badu aldez aurretik eta enpresak aldi hori baino lehen lan-harremana etetea erabakitzen badu, aurre-abisuaren aldia amaitu arte egokituko litzaiokeen soldata ordaindu beharko du, eta, gainera, ezingo du haren baja Gizarte Segurantzaren bideratu, harik eta jakinarazitako aurre-abisuaren arabera kontratua amaitzen den arte.

Enpresak bestelakorik erabaki ezean, langileak ez du eskubiderik izango aurre-abisuko epean zor dituen oporrak konpentsatzeko.

Prestakuntza-kontratuak

Ikasketa-mailari egokitutako praktika profesionala eskuratzeko kontratua eta ikas-ekinezko prestakuntza-kontratua:

- 1) Ikas-ekinezko prestakuntza-kontratuaren helburua lan-jarduera ordaindua lanbide-prestakuntzaren eremuko prestakuntza-prozesuekin, unibertsitate-ikasketekin edo Enplegu Sistema Nazionalako prestakuntza-espezialitateekin bateratzea da, eta, kontratu hori formalizatzeko, honako arau hauek bete beharko dira:
 - a) 2. atalean araututako praktika profesionala eskuratzeko prestakuntza-kontratua ituntzeko eskatzen diren titulazio edo ziurtagirien bidez aitortutako kualifikazio profesionalik ez duten pertsonekin egin ahalko dira. Edonola ere, lanbide-heziketako edo unibertsitateko ikasketekin lotutako kontratuak egin ahalko dira beste titulazio bat duten pertsonekin, baldin eta horiek ez badute aurretik beste prestakuntza-kontratu bat lortu prestakuntza-maila bereko eta ekoizpen-sektore bereko beste prestakuntza batean.
 - b) Kontratua 1. eta 2. mailako profesional-ziurtagirien esparruan sinatzen bada, eta enpresa-prestakuntzako ikas-ekinezko prestakuntza-programa publiko edo pribatuak badaude, Enplegu Sistema Nazionalaren prestakuntza-espezialitateen katalogoaren barruan, kontratua hogeita hamar urtera arteko pertsonekin soilik hitzartu ahalko da.
 - c) Langileak enpresan betetzen duen jarduerak lotura zuzena eduki beharko du lan-kontratazioa justifikatzen duten prestakuntza-jarduerekin, prestakuntza-programa komun batean integratuta eta koordinatuta, lanbide-heziketako edo unibertsitateetako lan- edo hezkuntza-agintariek enpresa eta erakunde lankideekin sinatutako lankidetza-hitzarmen eta -akordioen esparruan.
 - d) Kontratututako pertsonak prestakuntza-erakundeak edo zentroak izendatutako tutore bat eta enpresak izendatutako beste bat edukiko ditu. Azken horrek prestakuntza edo esperientzia egokia izan beharko du zeregin horietarako. Bere eginkizuna enpresako banakako prestakuntza-planari jarraitzea ematea izango da, prestakuntza-erakunde edo -zentroarekin hitzartu den lankidetza-akordioan aurreikusitakoaren arabera. Zentro edo erakunde horrek, halaber, tutorearekin koordinatuta egon beharko du enpresan.
 - e) Lanbide-heziketako zentroek, egiaztatutako edo inskribatutako prestakuntza-erakundeek eta unibertsitate-zentroek, lankidetza-hitzarmen eta -akordioen esparruan, enpresaren partaidetzarekin egin beharko dituzte banakako prestakuntza-planak, honako hauek zehaztuz: prestakuntzaren edukia, egutegia eta jarduerak, bai eta beren helburuak betetzeko tutoretza-baldintzak ere.
 - f) Kontratu honen funtsezko zati dira bai prestakuntza-zentro edo -erakundeak edo enpresak emandako prestakuntza teorikoa, hala ezartzen denean, bai enpresak eta zentroak emandako prestakuntza praktikoa. Arauz garatuko dira prestakuntza emateko sistema eta ezaugarriak, bai eta prestakuntza-jardueraren finantzaketarekin lotutako alderdiak ere.
 - g) Kontratuaren iraupena dagokion prestakuntza-planean edo -programan aurreikusitakoa izango da, hau da, gutxienez hiru hilabetekoa eta gehienez bi urtekoa, eta kontratu bakar baten babesean egin ahal izango da modu ez jarraituan, ikasketekin bat datozen urteko aldi batzuetan, baldin eta prestakun-



tza-planean edo -programan aurreikusita badago. Kontratua legez ezarritako gehieneko iraupena baino laburragoa bada, eta prestakuntza-kontratuari lotutako titulu, ziurtagiri, egiaztapen edo diploma lortu ez bada, aldeek hala adostuta luzatu ahal izango da, harik eta titulu, ziurtagiri, egiaztapen edo diploma hori lortu arte, betiere bi urteko gehieneko iraupena gainditu gabe.

- h) Ikas-ekinezko prestakuntza-kontratu bakarra egin ahal izango da lanbide-heziketako ziklo eta unibertsitate-titulazio bakoitzeko, profesionaltasun-ziurtagiri bakoitzeko edo Enplegu Sistema Nazionalako Prestakuntza Espezialitateen Katalogoko prestakuntza-espezialitateen ibilbide bakoitzeko. Hala ere, ziklo berean, profesionaltasun-ziurtagirian edo aipatutako katalogoko espezialitate-ibilbidean oinarrituta, hainbat enpresarekin ikas-ekinezko prestakuntza-kontratuak formalizatu ahal izango dira, baldin eta kontratu horiek zikloarekin, planarekin edo prestakuntza-programarekin lotutako jardueraren desberdinei badagozkie, eta kontratu guztien gehieneko iraupenak ezin badu gainditu aurreko paragrafoan aurreikusitako muga.
 - i) Benetako lan-denborak prestakuntza-zentroko prestakuntza-jardueretan emandako denborarekin bateragarria izan behar du, eta hitzarmen kolektiboak ezartzen duten gehieneko lanaldiaren %65ekoa izan daiteke gehienez ere lehenengo urtean, eta %85ekoa bigarren urtean.
 - j) Langileak sei hilabete baino gehiago aritu badira enpresa bateko lanpostu batean, ezin dute jarduera edo lanpostu berean trebatzeko ikas-ekinezko prestakuntza-kontraturik egin.
 - k) Ikas-ekinezko prestakuntza-kontratuarekin kontratatutako pertsonak ezin izango dute ordu osagarririk edo aparteko ordurik egin, 35.3. artikuluan aurreikusitako kasuan izan ezik. Gaueko lanik edo txandakako lanik ere ezingo dute egin. Salbuespen gisa, aipatutako aldi horietan lan-jarduerak egin ahal izango dira prestakuntza-planean aurreikusitako ikaskuntzak eskuratzeko prestakuntza-jarduerak ezin badira beste aldi batzuetan garatu, jardueraren izaera dela-eta.
 - l) Kontratu horietan ezingo da probaldirik ezarri.
 - m) Ordainsaria ehuneko hirurogei izango da lehenengo urtean, ehuneko hiru-rogeita hamabost bigarrenengan, hitzarmenean funtzioei dagokien lanbide-taldearentzat eta ordainsari-mailarentzat finkatutakoarekiko, benetan lan egin-dako denboraren proportzioan. Inola ere ezingo da ordainsaria lanbidearteko gutxieneko soldata baino baxuagoa izan, benetan lan egindako denboraren proportzioan.
- 2) Ikasketa-mailari egokitutako praktika profesionala lortzeko prestakuntza-kontratuak arau hauek bete beharko ditu:
- a) Unibertsitateko titulua edo erdi-mailako edo goi-mailako titulua, espezialista, master profesionala edo lanbide-heziketako sistemaren ziurtagiria dutenekin itundu ahal izango da, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoan aurreikusitakoarekin bat etorriz, bai eta hezkuntza-sistemako arte- edo kirol-irakaskuntzen titulu baliokidea dutenekin ere, lan-jarduerarako gaitzen edo prestatzen badute.
 - b) Praktika profesionala lortzeko lan-kontratua hiru urteren buruan hitzartu beharko da, edo bost urteren buruan, desgaitasuna duen pertsona batekin hitzartzen bada, dagozkion ikasketak amaitu ondoren. Ezin izango da sinatu enpresan jarduera berean esperientzia profesionala edo prestakuntza-jarduera egin duenarekin, hiru hilabete baino gehiagoz. Ondorio horietarako, ez dira zenbatuko kontratazio hori gaitzen duen titulazioa edo ziurtagiria lortzeko eskatzen den curriculumaren parte diren prestakuntza-aldiak edo praktikaldiak.
 - c) Kontratuaren iraupena gutxienez sei hilabetekoa izango da eta gehienez urtebetekoa.



- d) Enpresa berean edo beste batean ezin izango da langilerik kontratatu aurreko atalean aurreikusitako gehienekoak baino denbora luzeagorako, titulazio edo ziurtagiri profesional beraren arabera. Era berean, ezin izango da lanpostu bererako prestakuntzan kontratatuta egon aurreko atalean aurreikusitako gehienekoak baino denbora luzeagorako, nahiz eta beste titulazio bat edo ziurtagiri bat izan. Artikulu honen ondorioetarako, unibertsitateko gradu-, master- eta doktorego-ikasketen tituluak ez dira hartu behar titulu bakartzat, kasu honetan izan ezik: praktika profesionalen kontratuaren bidez kontratatzen direnean lehen aldiz, baldin eta langileek goi-mailako titulua badute.
 - e) Lanpostuek izan behar dute langileek kontratuaren xedeko ikasketa- edo prestakuntza-mailari dagokion praktika profesionala egiteko modukoak. Enpresak praktika profesionalaren edukia zehaztuko duen banakako prestakuntza-plana egingo du, eta planaren jarraipena egiteko eta kontratuaren xedea behar bezala betetzeko prestakuntza edo esperientzia egokia duen tutorea izendatuko du.
 - f) Kontratua amaitzean, egindako praktikaren edukia egiaztatzeko eskubidea izango du langileak.
 - g) Praktika profesionala lortzeko prestakuntza-kontratuarekin kontratatutako pertsonak ezin izango dute aparteko ordurik egin, Langileen Estatutuaren 35.3. artikuluan aurreikusitako kasuan izan ezik.
 - h) Hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera lanpostu berean edo baliokidean jarduten duen langile bati ordaintzen zaion soldataren % 70 eta % 95 ordainduko zaio langileari, kontratuaren indarraldiko lehen eta bigarren urtean, hurrenez hurren. Inola ere ezingo da ordainsaria lanbidearteko gutxieneko soldata baino baxuagoa izan, benetan lan egindako denboraren proportzioan.
- 3) Prestakuntza-kontratuaren arau komunak honako hauek dira:
- a) Prestakuntza-kontratu bat sinatzen duten pertsonen Gizarte Segurantzaren babes-ekintzak barne hartuko ditu babes daitezkeen gertakizun eta prestazio guztiak, baita langabezia eta Soldatak Bermatzeko Funtsaren estaldura ere.
 - b) Kontratuaren iraupenaren zenbaketa eten egingo da egoera hauetan: aldi baterako ezintasuna, jaiotza, adopzioa, adopzio aurreko zaintza, harrera, haurdunaldiko arriskua, edoskitzaroko arriskua eta genero-indarkeria.
 - c) Kontratua idatziz formalizatu beharko da, Langileen Estatutuaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta nahitaez jasoko du Langileen Estatutuaren 11. artikuluko 2. b), c), d), e), g), h) eta k) eta 3.e) eta f) apartatuetan aipatzen den banakako prestakuntza-planaren testua. Bertan, praktiken edo prestakuntzaren edukia eta tutoretza-jarduerak zehaztuko dira, helburuak betetzeko. Era berean, Langileen Estatutuaren 11. artikuluko 2. e) apartatuan aipatzen diren akordio eta hitzarmenen testua ere jasoko du.
 - d) Prestakuntza-kontratuaren gehieneko iraupena eta adin-mugak ez dira aplikatuko desgaitasuna duten pertsonekin edo laneratzeko enpresen araubidea arautzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legearen 2. artikuluan aurreikusitako gizarte-bazterketako egoeran dauden kolektiboekin ituntzen denean, baldin eta dagokion administrazio-erregistroan kualifikatuta eta aktibo dauden laneratzeko enpresek kontratatzen badituzte.
 - e) Langileek enpresan jarraitzen badute kontratuak amaitzen direnean, enpresak ezin du berriro probaldirik jarri, eta prestakuntza-kontratuaren iraupena kontuan hartu behar du antzintasuna neurtzeko.
 - f) Lege-iruzurrez egindako prestakuntza-kontratuak edo enpresak bere prestakuntza-betebeharrak betetzen ez ditueneko prestakuntza-kontratuak kontratu mugagabe arruntzat joko dira.
- 4) Enpresak langileen legezko ordezkariak jakinaraziko dizkio prestakuntza-kontratazioa jasotzen duten hezkuntza- edo prestakuntza-lankidetzako akordioak,



banakako prestakuntza-plan edo -programei buruzko informazioa barne, bai eta tutoretza-jarduera garatzeko betekizun eta baldintzei buruzko informazioa ere.

Era berean, ziklo, ziurtagiri edo ibilbide bakar bati lotutako hainbat kontraturen kasuan, Langileen Estatutuaren 11. artikuluko 2.h) apartatuan adierazitako baldintzetan, enpresak kontratazio horiei buruz duen informazio guztia helarazi beharko dio langileen legeko ordezkariari.

Lanaldi partzialeko kontratuak eta ordu osagarriak

Langileen Estatutuko 12. artikuluekin bat, lanaldi partzialeko lan-kontratua egiten da langileek egunean, astean, hilean edo urtean ordu kopuru jakin batean egiteko zerbitzu, eta ordu kopurua txikiagoa da lanaldi osoan diharduten langileena baino.

Kontratua idatziz egin behar da nahitaez, eredu ofizialaren arabera, eta adierazi behar du egunean, astean, hilean edo urtean zenbat ordu arrunt egiteko kontratatzen duen enpresak langilea eta nola banatuko dituen orduak.

Lanaldi partzialeko langileek ordu osagarriak egin ditzakete; gehienez ere, kontratuak finkatzen dituen ordu arrunten %50. Horretarako, Langileen Estatutuko 12. artikulua gaiari buruz xedatzen duena aplikatuko da.

Guztira, bi ordu moten (arrunten eta osagarrien) kopurua inola ere ezin da izan handiagoa enpresako lanaldirik luzeenak dituen orduena baino.

Enpresak hiru egun lehenago jakinarazi behar die langileei zer egun eta ordutan egin behar dituzten ordu osagarriak.

Enpresak ordu arruntak bezala ordainduko ditu benetan egindako ordu osagarriak, eta kontuan hartuko ditu Gizarte Segurantzako kotizazioen oinarrietarako. Horretarako, egindako ordu osagarrien kopurua eta ordainsariak soldataren ordainagirian adieraziko ditu, baita Gizarte Segurantzako kotizazio-agirietan ere.

Enpresak lanaldi partzialeko langileei ematen dizkien ordainsariak (aldizkakoak, hila-betik gorako epean hainbanatutakoak eta oro harreko zenbatekokoak) ohiko lanaldia-rikiko proportzionalak izango dira betiere, edonolakoak direla ere.

Kapitulu honek arautzen ez duen gai oro berariaz aplikatu beharreko araudiak arautuko du.

Ezintasun-mailaren bat dutenak gizarteratzeko kontratuak

Apirilaren 7ko 13/1982 Legeak, minusbaliatuak gizarteratzekoak, eta hura garatzeko arauak xedatzen dutena aplikatuko da; tartean, hauek: urtarrilaren 14ko 27/2000 Errege Dekretua, 50 langile edo gehiagoko enpresetan lanpostuen %2ko kuota ezinduentzat gordetzearen ordezkio salbuespenezko neurriak ezartzen dituen [EAO, 2000ko urtarrilaren 26koa]; eta otsailaren 20ko 290/2004 Errege Dekretua, lan-enklabeak arautzen dituen ezintasunen bat dutenen enplegua sustatzeko [EAO, 2000ko otsailaren 21koa].

36. artikulua.— Diziiplina-araubidea

Diziiplina-araubide honen helburua da lan-giroak elkarbizitza normala eta enpresaren eraketa teknikoa eta antolamendua errespetatzea eta langile eta enpresaburuen eskubiak eta interes legitimoak bermatzea eta babestea.

Zuzendaritzak zigorrak jar ditzake langileek egitez zein ez-egitez euren kontratuak finkatzen dituen betebeharrak betetzen ez dituztenean, ondoko puntuetako hutsegiteen mailakatzearen arabera.

Zuzentzeko ahalmena erabiliz, enpresari dagokio zigorrak jartzea, artikuluko honek ezartzen dituen baldintzetan.

Enpresak idatziz jakinarazi behar dizkie hutsegiteen zigorrak langileei, eta noiz eta zergatik zigortzen dituen adierazi behar die.

Enpresak langileen legeko ordezkariak jakinaraziko die hutsegite larri eta oso larriengatik jartzen duen zigor oro.

Zigorra jarri eta 60 egunean bete dezakete hura hutsegileek.



Enpresak eta langileek hutsegiteen mailakatzearen eta maila bakoitzeko hutsegiteen zigorren berri izan dezaten, jarraian, erabakia transkribatuko dugu.

Langileen hutsegiteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke, garrantziaren edo asmoaren arabera.

2.1. Hauek dira hutsegite arinak:

- a) Inolako justifikaziorik gabe lanera berandu iristea edo lanetik behar baino lehenago irtetea hilean hiru aldiz gehienez.
- b) Inolako justifikaziorik gabe hilean egun batean lanera ez joatea.
- c) Lanera joateko ezintasuna aldeztu aurretik edo hurrengo 24 orduetan ez jakinaraztea, salbu eta langileak hori egiterik izan ez duela egiaztatzen duenean.
- d) Inolako arrazoi justifikaturik gabe denbora-tarte laburrez lanpostua uztea, lanpostua uzteak pertsoneri edo gauzei kalte nabarmena egiten badie.
- e) Noren ardurapeko laneko ekipamendu eta materialaren kontserbazio- edo mantentze-egoerari kalte arinak egitea.
- f) Enpresaren bezero edo hornitzaileak axolagabekeriak edo zuzentasunik gabe tratatzea.
- g) Bizileku- edo helbide-aldaketak enpresari ez jakinaraztea, aldaketek nola-baiteko kaltea egin badieziaiekete lankideei edo enpresari.
- h) Noren familian izandako aldaketak dagokionean ez jakinaraztea, aldaketek eraginik badute Gizarte Segurantzaren edo zerga-administrazioan.
- i) Nagusiek euren eginkizunak behar bezala betetzerakoan emandako aginduak ez betetzea, aginduak ez betetzeak pertsona edo gauzei kalterik egiten ez badie eta pertsona edo gauzak arriskuan jartzen ez baditu.
- j) Behar bezalako justifikaziorik gabe ohiko lanaldian prestakuntza teoriko edo praktikoa lortzeko ikastaroetara ez joatea.
- k) Lanorduetan lankide, bezero edo hornitzaileekin eztabaidan jardutea.
- l) Inoiz lanean mozkortzea edo drogak kontsumitzea.

2.2. Hauek dira hutsegite larriak:

- a) Inolako justifikaziorik gabe lanera berandu iristea edo lanetik behar baino lehenago irtetea hilean hiru alditan baino gehiagotan.
- b) Inolako justifikaziorik gabe hilean bi egun eta lau egun bitartean lanera ez joatea. Lanera ez joateak lankide baten txandan eragina badu edo enpresari kalte nabarmena egiten badiu, berriz, nahikoa izango da lanera behin bakarrik joan ez izana.
- c) Zerga-gaietan edo Gizarte Segurantzaren eragina duten datuak faltsutzea edo nahita ezkatzea.
- d) Lanaldiaren barruan nolanahiko jolas edo entretenimenduetan aritzea behin eta berriz, horrek lanaren garapenari kalte egiten badiu.
- e) Organikoki goiko mailan daudenek euren eginkizunak behar bezala betetzerakoan emandako aginduak ez betetzea, aginduak ez betetzeak eragin handia badu pertsona edo gauzetan.
- f) Garbi eta txukun ez egotea, inguruan diharduten lankideak arrazoiz kezkatzen badira eta enpresak aldeztu aurretik ohartarazi badu.
- g) Beste langile bat ordezkatzeko, sarrera edo irteerako erregistroak eta kontrolak aldatuz.
- h) Lanean zabarkeriak edo arduragabekeriak aritzea behin eta berriz, jokabide horrek eraginik badu lanaren martxa onean baina pertsoneri edo gauzei kalte larria egiten ez badie.



- i) Enpresaren baimenik gabe lanaldiaren barruan lan partikularrak egitea eta enpresaren lanabes, erreminta, makina edo ibilgailuak lana ez den beste helburu baterako erabiltzea lanaldiaren barruan zein kanpoan.
- j) Zigorra jaso eta hiruhileko baten barruan hutsegite arin bat (puntueltasun falta izan ezik) egitea berriro, nahiz eta hutsegitea ez izan bera.
- k) Langileen askatasun sexualari erasotzea (ahoz edo fisikoki erasotzea edo pertsonen intimitate edo duintasunarekiko errespeturik ez adieraztea).
- l) Inoiz lanean mozkortzea edo drogak kontsumitzea, mozkortzeak edo drogak kontsumitzeak ondorio txarrak baditu lanean, kalte egiten badio langileak lanean babesteari edo arriskuan jartzen badu langileak lanean babestea.

2.3. Hauek dira oso hutsegite larriak:

- a) Inolako justifikaziorik gabe lanera berandu iristea edo lanetik behar baino lehenago irtetea hilean hamar alditan baino gehiagotan edo urtean hogeitalditan baino gehiagotan.
- b) Hilean elkarren ondoko hiru egunetan edo txandakako bost egunetan lanea ez joatea.
- c) Agindutako egitekoetan iruzur egitea, leialtasunik gabe jokatzeko edo konfiantzaz aprobetxatzea edo enpresari, lankideei edo beste edozeini ostea, enpresaren egoitzan eta bulegoetan edo, lanorduetan bada, beste edozein lekutan.
- d) Gaixo-itxurak egitea edo istripuren bat izan izana sinetsarazten saiatzea. Alde horretatik, langileek ezin dute egin inolako lanik ez euren kabuz ez inoren kontura baldin eta aipatutako edozein arrazoiengatik bajaran badaude, laneako arau-haustetzat hartuko baita. Gaixotasun- edo istripu-baja luzatzeko manipulazio oro ere oso hutsegite larritzat hartuko da.
- e) Inolako justifikaziorik gabe zerbitzu edo lanpostua uztea, denbora-tarte laburrez bada ere, lanpostua uzteak kalte handia egiten badie enpresari edo lankideei, arriskuan jartzen badu segurtasuna edo istripu bat eragiten badu.
- f) Nahitaez isilpean gorde beharreko enpresako sekretuak agertzea.
- g) Enpresaren aurkako bidegabeko lehian aritzea.
- h) Lanaren errendimendua noren borondatez eta jarraituki jaistea.
- i) Nagusiei, haien senideei, lankideei edo enpresako hornitzaile edo bezeroei hitzezko edo egitezko tratatu txarrak ematea edo errespetu edo begirunerik gabe jokatzeko haiekin.
- j) Zigorra jaso eta bi hilean hutsegite larri bat egitea berriro, nahiz eta hutsegitea ez izan bera.
- k) Nagusiek lan-arloan emandako aginduak ez betetzea, aginduak ez betetzeak kalte handia egiten badie enpresari edo/eta lankideei, salbu eta aginduak agintekeriaren emaitza direnean. Alde horretatik, agintekeriatzat hartuko da legezko aginduak nahita eta nabarmen urratzen dituzten eta langileei eurei kalte egiten dieten aginduak ematea nagusiek.
- l) Askatasun sexualari erasotzea, erasoak lan-arloko nagusitasuna aprobetxatuz egiten badira edo euren egoera pertsonal edo lan-egoeragatik bereziki ahulak direnei erasotzen bazaie.

Gehienez ere, hauek izan daitezke aipatutako hutsegiteen zigorrak:

- A. Hutsegite arinako : Idatzizko ohartarazpena.
- B. Hutsegite larriak:
 - Idatzizko ohartarazpena.
 - Bi egun eta hogeitalditan bitarteko enplegu-soldaten etenaldia.
- C. Oso hutsegite larriak:
 - Idatzizko ohartarazpena.



- Hogeita bat egunetik hirurogei egunera bitarteko enplegu-soldaten etenaldia.
- Kaleratzea.

Hauek dira hutsegiteak preskribatzeko epeak, mailakatzearen arabera:

- Hutsegite arinak: Hamar egunean preskribatzen dira.
- Hutsegite larriak: Hogeia egunean preskribatzen dira.
- Oso hutsegite larriak: 60 egunean preskribatzen dira.

Enpresak hutsegitearen berri duen egunetik aurrera hasiko da preskripzio-epea, eta, edonola ere, hutsegitea egin eta sei hilabetera.

37. artikulua. — *Gatazken auzibidetik kanpoko ebazpena*

Lan-harremanak hobetzeko eta sortzen diren gatazkak (besteak beste, soldata-erregimena ez aplikatzeko klausulari, aparteko orduetara lanaldiaren banaketari buruzkoak) ahal den neurrian konpontzen saiatzeko, bi alderdiek berariaz hitzartu dute ORPRICEri men egitea.

38. artikulua. — *Aldi batetako laneko enpresak*

Kontuan izanik galdategian egin beharreko lost-foam lanak (poliestirenoak) berezitasunak dituela, enpresak bezeroen eskaerei azkar erantzun behar diela eta eskaerak ezberdinak izaten direla, alderdiek aldi baterako laneko enpresetako langileak kontratatzea hitzartu dute.

Ekitaldi honetan, enpresa-kontratuak egingo zaizkie aldi baterako langileei, ardura-dun orokorraren eta sekzioko talde-buruen irizpideekin bat eginez, aurretik batzordeari jakinarazita.

Aldi baterako lana murriztuko da 4 urtetan; langile guztien %17k izango du, gehienez, lan mota hori.

39. artikulua. — *Azken kitapena eta atzerakinen ordainketa*

1. Enpresarekiko lan-harremana 2022ko urtarrilaren 1aren eta hitzarmen hau sinatzeko egunaren artean iraungitzen bazaie, langileek eskubidea dute hitzarmen honek ezartzen dituen soldaten eta zerbitzu egin duten bitartean kobratu dituztenen arteko aldeak kobratzeko, atzeratuta, dagokionean.

2. Atzerakinak ordaintzearekin batera, enpresak ordaintzeko zuenaren likidazio osagarria aurkeztu behar du Gizarte Segurantzaren eta, eskatzen badizkiote, haren kopia eta enpresa-ziurtagiria eman behar dizkie langileei.

3. Enpresak hitzarmen hau sinatu eta bi hilabeteetan ordainduko du gehienez artikulua honek aipatzen dituen atzerakinen likidazioa.

40. artikulua. — *Lantoki-mugigarritasuna*

Abadiñoko lantoki berria dela eta.

Langileen lanpostuek mugigarritasuna eduki beharko dute (Durangoko instalazioa eta Abadiñoko instalazioa).

41. artikulua. — *Arduradunak*

Arduradunek beste atal bateko arduradun-lanak gauzatu ahalko dituzte, atal horretako arduradunak baja hartu badu; baita ezohiko egoeretan ere.

Halaber, arduradunek beren taldeko langileen lana egin beharko dute behar den kasuetan.



1. ERANSKINA

2022KO ORDAINSARI-BALIOAK (€)

Kategoria	Eguneko oinarritzko soldata (€)	Eguneko bosturtekoa (€)	Eguneko pizgarria (€)	Eguneko T.N.A (€)	Eguneko jarduera (€)	Eguneko gauekoa (€)	Hileko soldataz kanpokoa (€)	Aparteko ordainsariaren osagarria (X2) (€)
Taldeburua	49,76	2,49	23,63	13,17	15,71	15,09	136,69	1.381,95
1. mailako Ofiziala	37,70	1,89	23,63	13,17	15,71	15,09	136,69	1.381,95
2. mailako Ofiziala	34,71	1,74	22,49	13,17	15,71	13,87	136,69	1.326,81
3. mailako Ofiziala	32,75	1,64	21,71	13,17	15,71	13,08	136,69	1.291,24
Balio Anitzeko Peoi Espezialista	31,76	1,59	21,32	13,17	15,71	12,69	136,39	1.272,74
Balio Anitzekoa Ez Den Peoi Espezialista	26,66	1,33	17,31	13,17	15,71	10,66	72,95	1.098,12
Peoi Arrunta	23,31	0,00	13,29	8,15	15,71	9,31	72,95	923,52
1. mailako Admin. Ofiziala	36,89	1,84	22,84	0,00	15,71	0,00	136,69	1.033,28
2. mailako Admin. Ofiziala	29,19	1,46	22,34	0,00	15,71	0,00	136,69	978,40
Administrari Laguntzailea	23,31	0,00	21,84	0,00	15,71	0,00	72,95	923,52

APARTEKO ORDUEN BALIOA 2022. URTEAN (€)

	Egun arrunta (€)	Larunbatak eta zubiak (€)	Igandeak eta jaiegunak (€)
Taldeburua	20,00	30,00	40,00
1. mailako Ofiziala	17,53	26,29	35,06
2. mailako Ofiziala	16,76	25,14	33,52
3. mailako Ofiziala	16,19	24,28	32,38
Balio Anitzeko Peoi Espezialista	15,95	23,92	31,90
Balio Anitzekoa ez den Peoi Espezialista	13,77	20,65	27,55
Peoi Arrunta	11,59	17,38	23,18

**IV. ATALA**
ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRA**Justizia Ministerioa****Notificación de contrato de financiación a comprador de bienes muebles**

De conformidad con lo dispuesto en el acuerdo 7.º de la Instrucción de 3 de diciembre de 2002, de la Dirección General de Registros y del Notariado, desarrollando la de 23 de octubre de 2001 que aprueba la cláusula autorizatoria para la presentación telemática de contratos en el Registro de Bienes Muebles y resolviendo otras cuestiones con relación al mismo, se notifica a José Ramirez Catalán con NIF 14563160C y domicilio en CL Irberluze, 7, 2.º izda. Galdakao 48960-Bizkaia, titular registral del bien que se dirá, que se ha presentado en este Registro de Bienes Muebles de la Provincia de Bizkaia, un contrato de financiación a comprador de bienes muebles de fecha 27 de enero de 2023, del vehículo matrícula 1372JFB marca Dacia cuyo titular administrativo es Antonio González Cano con NIF 14563160C, según resulta de la Base de datos de la Dirección General de Tráfico. Se realiza esta notificación a los efectos del ejercicio del Derecho de Oposición regulado en la citada Instrucción.

En Bilbao, a 22 de enero de 2023.—El Registrador del Registro Mercantil y de Bienes Muebles de Bizkaia, Iñigo Basurto Solaguren-Beascoa



IV. ATALA
ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRA

Justizia Ministerioa

Notificación de mandamiento de anotación preventiva de embargo

De conformidad con lo dispuesto en el acuerdo 7.º de la Instrucción de 3 de diciembre de 2002, de la Dirección General de Registros y del Notariado, desarrollando la de 23 de octubre de 2001 que aprueba la cláusula autorizatoria para la presentación telemática de contratos en el Registro de Bienes Muebles y resolviendo otras cuestiones con relación al mismo, se notifica a Pabellones Nervion, S.A. con domicilio en Bilbao, Carretera Zorroza-Castrejana número 42, titular registral del bien que se dirá, que se ha presentado en este Registro de Bienes Muebles de la Provincia de Bizkaia, un mandamiento de anotación preventiva de embargo de bienes muebles de fecha 17 de febrero de 2023, del vehículo matrícula 5003FSG marca BMW modelo X5 3 0D cuyo titular administrativo es Santiago Zabala Fernández según la Base de datos de la Dirección General de Tráfico. Se realiza esta notificación a los efectos del ejercicio del Derecho de Oposición regulado en la citada Instrucción.

En Bilbao, a 22 de febrero de 2023.—El Registrador del Registro Mercantil y de Bienes Muebles de Bizkaia, Iñigo Basurto Solaguren-Beascoa

**IV. ATALA**
ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRA**Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana**

Anuncio del ADIF - Alta Velocidad por el que se somete a información pública a efectos de declaración de la necesidad de ocupación el Proyecto «Modificación número 2 del proyecto de construcción de plataforma de la línea de alta velocidad Vitoria Bilbao-San Sebastián. Tramo: Elorrio-Elorrio. 2018».

En cumplimiento de los artículos 18 y 19.1 de la Ley de Expropiación Forzosa de 16 de diciembre de 1954 y artículos concordantes de su Reglamento (decreto de 26 de abril de 1957) se abre un período de información pública de quince días hábiles, a partir del día siguiente al de la publicación de este anuncio, sobre la relación de bienes y derechos afectados por la ejecución de las obras definidas en el proyecto de referencia, con el objeto de que cualquier persona pueda aportar por escrito los datos oportunos para rectificar posibles errores de la relación que se publica en este anuncio u oponerse, por razones de fondo o forma, a la necesidad de ocupación.

Con tal motivo, la documentación de expropiaciones del mencionado proyecto puede ser examinada, en días y horas hábiles de oficina en la Subdelegación del Gobierno en Bizkaia. (Plaza Federico Moyúa, 5, 48071-Bilbao (Bizkaia), en la Subdirección de Construcción Norte de ADIF-Alta Velocidad (calle Sor Angela de la Cruz 3, C.P. 28020-Madrid), en el Ayuntamiento de Elorrio (Herriko Plaza, s/n, 48230 Elorrio (Bizkaia) y en «Información Pública», del Portal de Transparencia de la web de ADIF/ADIF-AV (www.adif.es).

Las alegaciones que se formulen irán dirigidas a la Subdirección de Construcción Norte de ADIF-Alta Velocidad (calle Sor Angela de la Cruz 3, C.P. 28020-Madrid), indicando como referencia «Información pública de la declaración de la necesidad de ocupación. Proyecto Modificado número 2 de construcción de plataforma LAV. Tramo: Elorrio-Elorrio».

Asimismo para la presentación de las alegaciones, se podrá hacer uso del Registro Electrónico General de la Administración General del Estado a través de la siguiente dirección: <https://rec.redsara.es/registro/action/are/acceso.do>

RELACIÓN CONCRETA E INDIVIDUALIZADA DE BIENES Y DERECHOS AFECTADOS
TÉRMINO MUNICIPAL DE ELORRIO

N.º de Finca	Polígono / Ref Catastral	Parcela	Titular actual Nombre y domicilio	Expropiación (m²)	Servidumbre (m²)	Ocupación Temporal (m²)	Total (m²)
H-48.0329-0523-C03	10	224	Diputación Foral de Bizkaia Calle Gran Vía Diego López Haro, 25 48009-Bilbao (Bizkaia)	0	0	3.086	3.086
H-48.0329-0097-C03	10	149	Ayala Garay, Manuel. Caserio Ayala Bo Iguria, 1 48230-Elorrio (Bizkaia); Ayala Mazorriaga, Leire. Caserio Ayala Bo Iguria, 1 48230-Elorrio (Bizkaia)	0	0	2.012	2.012
H-48.0329-0094-C05	10	201	Arana Arieta Araunabeña, Maria Begonia. Desconocido; Mendizabal Gallastegui, Julian. Desconocido; Mendizabal Gallastegui, Maria. Desconocido; Mendizabal Gallastegui, Jose. Desconocido; Arana Arieta, Maria Milagros. Desconocido; Igarza Zugazagoitia, Agurtzane. Bo Iguria, 18, 48230-Elorrio (Bizkaia); Igarza Zugazagoitia, Josu. Calle Anduetxeta, 9, 48230-Elorrio (Bizkaia); Mendizabal Gallastegui, Feliciano. Desconocido;	0	0	69	69
H-48.0329-0001-C03	10	163	Aguirre Aquiso, Maria Asuncion. Bo Iguria, 4, 48230-Elorrio (Bizkaia)	0	0	97	97



N.º de Finca	Polígono / Ref Catastral	Parcela	Titular actual Nombre y domicilio	Expropiación (m²)	Servidumbre (m²)	Ocupación Temporal (m²)	Total (m²)
H-48.0329-0901-C04	10	160	Arana Arieta Araunabeña, Maria Begoña. Desconocido; Mendizabal Gallastegui, Julian. Desconocido; Mendizabal Gallastegui, Maria. Desconocido; Mendizabal Gallastegui, Jose. Desconocido; Arana Arieta, Maria Milagros. Desconocido; Igarza Zugazagoitia, Agurtzane. Bo Iguria, 18, 48230-Elorrio (Bizkaia); Igarza Zugazagoitia, Josu. Calle Anduetxeta, 9, 48230-Elorrio (Bizkaia); Mendizabal Gallastegui, Feliciano. Desconocido	1.244	0	0	1.244
H-48.0329-1850	16	207	Desconocido. Desconocido	0	0	2.476	2.476
H-48.0329-1851	16	209	Desconocido. Desconocido	0	0	10.492	10.492
H-48.0329-0092-C04	16	18	Beitia Arietaleanizbeascoa, Esperanza. Bo Iguria, 1 48230-Elorrio (Bizkaia)	0	0	3.358	3.358
H-48.0329-0417-C03	16	136	Desconocido. Desconocido	0	0	185	185
H-48.0329-0207-C04	16	195	Diputación Foral de Bizkaia Calle Gran Vía Diego López Haro, 25, 48009-Bilbao (Bizkaia)	0	0	2.035	2.035
H-48.0329-0084-C03	17	216	Diputación Foral de Bizkaia Calle Gran Vía Diego López Haro, 25 48009-Bilbao (Bizkaia)	354	0	0	354
H-48.0329-0038-C05	17	223	Ayuntamiento de Elorrio Pz Herriko Plaza, 1, 48230-Elorrio (Bizkaia)	191	0	27	218
H-48.0329-0156-C04	17	154	Eguren Amiano, Genara. Calle Besaide, 17, 48230-Elorrio (Bizkaia)	5.815	0	2.742	8.557
H-48.0329-0153-C03	17	74	Menzabal Ania, Teresa. Av Trañabarren, 11, Traña-Matiena 48220-Abadiño (Bizkaia); Menzabal Ania, Pedro Jose. Calle Urkizuaran Caserios Torrekua, 2, 48230-Elorrio (Bizkaia); Menzabal Ania, Eusebio. Av Trañabarren, 11, Traña-Matiena 48220-Abadiño (Bizkaia)	3.703	0	935	4.638
H-48.0329-0077-C03	17	75	Zengotitabengoa Peña, Jon Iker. Calle Ibarra, 22 48230-Elorrio (Bizkaia)	455	0	0	455
H-48.0329-0418-C05	17	127	Zugaza Artaza Echaniz, Ana Maria. Calle Chonta, 1, 20600-Eibar (Guipúzcoa)	7.359	0	0	7.359
H-48.0329-0420-C13	17	242	Desconocido. Desconocido	0	0	1.655	1.655
H-48.0329-0949-C01	18	37	Arando Murgoitio, Jose Luis Cn Amilleta, 5, 48230-Elorrio (Bizkaia)	1.314	0	0	1.314
H-48.0329-0952-C01	18	241	Arando Murgoitio, Jose Luis Cn Amilleta, 5, 48230-Elorrio (Bizkaia)	727	0	0	727
H-48.0329-1853	18	289	Desconocido. Desconocido	270	0	0	270
H-48.0329-1854	18	290	Desconocido. Desconocido	99	0	0	99
H-48.0329-0950-C01	18	239	Arando Murgoitio, Jose Luis Cn Amilleta, 5, 48230-Elorrio (Bizkaia)	641	0	0	641
H-48.0329-1852	18	240	Desconocido. Desconocido	287	0	0	287
H-48.0329-1371-C00	18	291	Ayuntamiento de Elorrio. Pz Herriko Plaza, 1, 48230-Elorrio (Bizkaia)	41	0	0	41
H-48.0329-1372-C00	18	44	Arando Murgoitio, Jose Luis Cn Amilleta, 548230-Elorrio (Bizkaia)	376	0	0	376
H-48.0329-0165-C07	18	14	Sagastizabal Duñabeitia, Jesus Maria. Calle Berrio-Otxoa, 1448230-Elorrio (Bizkaia)	3.951	0	0	3.951
H-48.0329-0594-C03	18	267	Dfb Servicio De Patrimonio, Dpto. Hacienda. Calle Capuchinos de Basurtu, 4, 48013-Bilbao (Bizkaia)	38	0	0	38
H-48.0329-1855	18	306	Desconocido. Desconocido	224	0	0	224



N.º de Finca	Polígono / Ref Catastral	Parcela	Titular actual Nombre y domicilio	Expropiación (m²)	Servidumbre (m²)	Ocupación Temporal (m²)	Total (m²)
H-48.0329-0520-C04	18	278	Diputación Foral De Bizkaia Calle Gran Vía Diego López Haro, 25, 48009-Bilbao (Bizkaia)	109	0	0	109
H-48.0329-1856	18	311	Desconocido. Desconocido	28	0	0	28
H-48.0329-0162-C09	18	9	Solozabal Orbegozo, Aitor. Bo Errekazabaleta, 1, 48230 Elorrio (Bizkaia)	1.575	0	0	1.575
H-48.0329-1858	19	310	Desconocido. Desconocido	491	0	0	491
H-48.0329-0172-C08	19	309	Gamboa Urresti, María del Carmen; 18002-Granada (Granada); Gamboa Urresti, Lucio; calle Antonio Atehortua, 1, 48230-Elorrio (Bizkaia)	2.170	0	0	2.170
H-48.0329-0544-C00	19	198	Sagastizabal Duñabeitia, Jesús María Ramón. Calle Berrio-Otxoa, 1448230-Elorrio (Bizkaia)	692	0	0	692
H-48.0329-1857	19	301	Desconocido. Desconocido	455	0	0	455

En Madrid, a 7 de marzo de 2023. —El Director General de ADIF-Alta Velocidad, Juan Pablo Villanueva Beltramini